

# ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek jasandako injustiziarri buruzko txostena (1960–2011)

---

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua  
Deustuko Unibertsitatea

Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordetza  
Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco

---

José Ramón Intxaurre Vitorica  
Gorka Urrutia Asua  
Trinidad L. Vicente Torrado

2021eko urria



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

978-84-457-3635-7



9 788445 736357

# ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek jasandako injustiziarri buruzko txostena (1960–2011)

---

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua  
Deustuko Unibertsitatea  
Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordetza  
Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco

---

José Ramón Intxaurre Vitorica  
Gorka Urrutia Asua  
Trinidad L. Vicente Torrado

2021eko urria



BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001)

**Argitaraldia:**

1.a, 2022ko urtarrila

**Ale-kopurua:**

50 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

**Discinua eta maketazioa:**

Quod Sail S.L.

**Inprimaketa:**

XXXXX

**L.G.:**

LG G 00029-2022

**ISBN:**

978-84-457-3635-7

ETAren terrorismoaren ondorioz  
Estatuko Segurtasun Indar eta  
Kidegoetako kideek eta haien senideek  
jasandako injustiziar buruzko txostena  
(1960-2011)



ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun  
Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek  
jasandako injustiziar buruzko txostena  
(1960-2011)

1. Sarrera. Txostenaren helburua, edukia eta denbora-esparrua.	7
1.1. Txostenaren edukia eta enkarguaren justifikazioa.	
1.2. Txostenaren helburuak eta egitura.	
1.3. Metodologia.	
2. Egoera sozial eta politikoa. Azterlanaren esparru kronologikoaren erreferentzia laburra (1960-2011).	9
3. Datuen aurkezpena.	
3.1. Datu kuantitatiboan azterketa.	14
3.2. Datu kualitatiboan azterketa.	33
3.2.1. <i>Euskadi, destino zaila ESIKentzat ETAren mehatxuarengatik.</i>	
3.2.2. <i>Ia erabateko bakartasuna eta eragozpenak familia-harremanei eta gizarte-harremanei eusteko.</i>	
3.2.3. <i>Atentatua jasatea. Bizitza osoa istant batean aldatzen denean.</i>	
3.2.4. <i>Bizitza hondatuta. Ondorio fisikoak eta emozionalak.</i>	
3.2.5. <i>Abandonua. Erakundeen eta gizartearen babesik ez dagoelako sentazioa.</i>	
3.2.6. <i>Terrorismoaren biktimen papera eta memoria kolektiboaren eraikuntza.</i>	
4. Antzeman diren giza eskubideen urraketan kalifikazioa.	61
5. Ondorioak eta gomendioak.	
5.1. Amaierako balorazioak.	63
A) <i>Memoria eta egia. Askatasun publikoak zaintzeko lehen babes-lerroa.</i>	
B) <i>Justizia eta erreparazioa. Berebiziko papera terrorismoa garaitzeko.</i>	
C) <i>Gizartearen adiskidetzea eta kohesioa. Gertatutakoa berri ez gertatzeko konpromisoa.</i>	
5.2. Prozesu hau gauzatzeko Eusko Jaurlaritzari aurkeztutako iradokizunak.	69
6. Bibliografia.	72





# 1. Sarrera. Txostenaren helburua, edukia eta denbora-esparrua.

## 1.1. Txostenaren edukia eta enkarguaren justifikazioa.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren 3. ekimenaren funtsa zen azterlanak egitea iraganean zer gertatu zen argitzeko. Planean ezartzen zen txostenak eta azterlanak entitate adituei aginduko zitzaizkiela, bermatzeko iritzi-askatasunez, zorroztasunez eta diziplina anitzeko ikuspegiarekin egingo zirela eta era askotako iritziekin alderatuko zirela, joera ideologiko edo alderdi jakin baten aldekoak izan ez zitezen.

2020ko hasieran, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak txosten bat enkargatu zion Deustuko Unibertsitateko *Pedro Arrupe* Giza Eskubideen Institutuari, ETAk Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei (ESIK) jasanarazitako mehatxua azaltzeko eta aztertzeko. Kontzeptu horrek segurtasun publikoko hainbat kidego barne hartzen baditu ere, azterlan honek, zehazki, fenomeno terroristak guardia zibilengana eta polizia nazionalengana eta beren ahaideengan izan duen eragina aztertuko du, bereziki nabarmenduz nolako kaltea egin zien talde terroristaren jardunak haien eskubideei.

Datu kuantitatiboak (informazio pertsonal guztia kenduta) BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOAREN ASISTER datu-basetik atera dira; Terrorismo Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak eman ditu, eta arreta handiz eta isilpean landu ditu azterlan hau egin duen ikertzaile taldeak. Azpimarratu behar da *Asociacion Víctimas del Terrorismo (AVT)* elkarteak txosten honen egileei emandako laguntza, ezinbestekoa izan baita ikerketaren nondik-norakoak zehazteko, aztertutako fenomenoak Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen kasuan zer-nolako berezitasunak dituen ulertzeko eta lan hau elikatzeko datuak eta testigantzak aurkitzeko. Horrez gainera, ikertzaile taldeak eskerrak eman nahi dizkio *Asociación Cuerpos y Fuerzas Seguridad Estado Víctimas del Terrorismo (ACFSEVT)* elkarteari.

Enkarguaren arabera, 1960 - 2011ko aldia eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-esparrua hartu behar ziren aztergai. Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordetzak argitaratu du azterlan hau, eta *Udaberri 2024 Planean* jaso ditu txosten honen helburuak. Horrela, Eusko Jaurlaritzak legegaldi honetan egindako sailen birmoldaketaren ondoren (Eusko Legebiltzarraren XII. Legegintzaldia) Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusiak hasitako ildoari jarraitu zaio.

## 1.2. Txostenaren helburuak eta egitura.

Txosten honetako informazioa enkargua egitean ezarritako helburuen arabera egituratu da; alegia:

- Alde batetik, ESIKetak kideek eta beren ahaideek ETAren indarkeriaren ondorioz jasandako oinazearen azalpen kuantitatiboa ematea; bestetik, gehiago sakonduz, oinaze horren azalpen kualitatiboa ematea;
- Kolektibo horren bizipenak eta sufrimenduak agerian jartzen dituzten elementuak plazaratzea, zer gertatu zitzaien jakiteko eta EAEko gizarteak memoria kolektiboaren inguruko hausnarketa egin ahal izan dezan;

- 
- Botere publikoei memoriaren eta elkarbizitzaren inguruko politikak eratzeko proposamenak eskaintzea.a) Breve contextualización histórica del ámbito temporal cubierto por el informe.

Helburu horiek betetzeko, ikerketa-taldeak era honetara egituratu du txostena:

- a) Txostenaren denbora-esparruaren azalpen historiko laburra.
- b) Erabilgarri izan diren datuen azterketa
  - Alderdi kuantitatiboa. ETAK ESIKen gainean ezarritako mehatxuaren balantze kuantitatiboa egin da ETAK egindako atentatueta hildako eta zauritutako pertsonen buruzko datuez baliatuta.
  - Alderdi kualitatiboa. ETaren mehatxuen ondorioz jasandako bidegabeko sufrimendua aztertu dugu kasu esanguratsu batzuen kontaketa bidez (lehenengo pertsona). Haien lekukotzetan agerian geratzen da zer eragin izan duten jazarpenak eta beldurrak mehatxatutako agenteen eta haien senideen lanean eta familiako bizitzan.
- c) Antzeman diren giza eskubideen urraketaren kalifikazioa. Aurreko ataletan aztertu diren datu kuantitatibo eta kualitatiboen interpretaziotik abiatuta, gertaeren kalifikazio juridiko bat proposatzen da, kontuan edukita gertaera haiek giza eskubideen urraketak izan zirela eta erasoak jasandako pertsonen ez zutela eduki inolako baliabide juridikorik beren eskubideen defentsarako ez errepaziorako.
- d) Azken gomendioak. Aztertutako datuak eta esperientziak ikusita, ESIKetako ki-deek eta beren ahaideek EAEn jasandako bidegabeko oinazea onartzen eta herritarren artean zabaltzen lagundu lezaketzen zenbait iradokizun egin ditugu. Nahitaezkoa da egoera horien kontzientzia hartzea, enpatia edukitzea eta horretaz hitz egitea kontakizun kolektibo bateratu bat lortzeko, indarkeria terrorista jasan dutenentzat bidezkoa eta sendagarria izango dena.
- e) Erabilitako bibliografia.

### 1.3. Metodologia.

Azterlan egiteko bildutako datuak aztertzeko eta aurkezteko bi ikuspegi erabili ditugu: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Ikuspegi kuantitatiboak erakusten du nolako izan zen ETAK aztertutako kolektiboaren aurka egindako jardura terrorista. Atentatueta zendutako pertsonen zerrenda eta bakoitzaren inguruabarrak aztertu dira. Atentatuak azterlanaren xede diren hamarkada guztietan gertatu dira. Barne Arazoetako Ministerioaren ASISTER fitxategiari esker jakin ahal izan dugu zenbat pertsona zauritu ziren atentatueta eta nolako ondorioak izan zituzten beren lesioek: bajak eta ezintasun-onarpenak.

Bestalde, ikuspegi kualitatiboak bizi-istorioak ezagutzeko aukera ematen digu. Gainera, zenbaki hutsek ez bezala, erakusten digu indarkeria terrorista hainbat modutara gauzatu zela, eta argitzen du nolako kaltea egin zien erasandako agenteen lanbide-jardunari eta beren osasunari, nola zabaldu zen indarkeria hori pixkanaka agenteen familietara eta nola jarri zuen kolokan beren egonkortasuna. Aurrez aurreko elkarrizketak egin ziren erdi-egituratutako galdeketa bat erabiliz. Haren bidez elkarrizketa irekia sortzen zen, eta hala elkarrizketatuek beren testigantzen berezitasunak zehaz-

ten zituzten. Elkarriketatu guztiek beren borondatez hartu dute parte eta, noski, kasu askotan bereziki mingarriak zaizkien oroitzapenak ekarri behar izan dituzte gogora. Eskerrak eman nahi dizkiegu hemendik beren ahalegin eta eskaintza eskuzabalarengatik. Beren istorioei esker sakonagotik ikus dezakegu lanbide jakin bat aukeratzeagatik ez beste ezergatik, zerbitzu publikorako bokazioak bultzaturik, bizi behar izan duten bidegabeko egoera. Uniformea janzteak edo oso agerikoa den lanbide batean aritzeak berez dakarren nabarmentasunaren ondorioz askotan jazarpena lanbidez harago zabaltzen zen eta familiako beste kide batzuek ere jasaten zuten. Horrek asko gehitu zuen jasaten zuten estresa, eta ondorioz batzuen osasuna narriatu zen eta gaur egun, oraindik ere, ondorioak pairatzen dituzte. Azterlan honetarako bildutako bizi-istorioen xedea da herritarrei hausnarketarako elementu bat helaraztea, fenomeno horren memoria kolektiboa eratzen laguntzeko (istorioen zati batzuk azterketa kualitatiboaren atalean ageri dira). Halaber, badute beste helburu bat ere: aintzatespen publikoa egitea segurtasun publikoa zaintzeko funtsezko lana egiten ari zirela etengabeko jazarpena (haiek eta beren ingurukoek) jasan zuten emakumeei eta gizonei.

Jasotako datu kuantitatiboak eta kualitatiboak aztertuta, hobeto jakingo dugu zer eragin eta ondorio izan zituen jazarpenak pertsona horiengan, giza eskubideen parametro etiko-juridikoa aplikatuz. ETAren indarkeriaren eta erasoen ondorioz ESIKetako agenteei ukatu zitzaizkien printzipio eta askatasunak aztertuko ditugu, indarreko araudietan ere jasotakoak (Konstituziotik hasi eta erreferentziako nazioarteko itunetara).

## 2. Egoera sozial eta politikoa. Azterlanaren esparru kronologikoaren erreferentzia laburra (1960-2011).

### 1960-1969.

1959ko urrian ETAK bere lehen ekintza armatua egin zuen: etxean egindako lehergai-luak ipini zituzten Santanderreko *Alerta* egunkarian, Arabako Gobernu Zibilean eta Bilboko polizia-etxe batean. 1962ko maiatzean ETAren I. Biltzarrean hartutako erabakien berri ematen zuen "Printzipioen adierazpena" plazaratu zen. 1964ko apirilean eta maiatzean ETAK III. Biltzarra egin zuen eta "La insurrección en Euzkadi" dokumentua onetsi zuen. 1965eko udaberrian IV. Biltzarrean egin zuten eta "Bases teóricas de la guerra revolucionaria" ponentzia onetsi zuten. 1967ko martxoan ETAtik kanporatu zuten Patxi Iturrioz buru zuen korrante obrerista. V. Biltzarrean ETAren izena aldatu zen: aurrerantzean "Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista" izango zen. Halaber, lau frontetan antolatzea erabaki zuen: politikoa, ekonomikoa, militarra eta kulturala. 1967ko apirilean Txillardegí, José María Benito del Valle eta Xabier Imaz erakundetik irten ziren. 1967ko apirilean eta urrian eta 1968ko martxoan, ETAK zenbait banku-sukurtsaletan lapurretan egitea lortu zuen eta guztira 2.400.000 pezeta bildu zituen. 1968ko martxoan ETAK lehergailu bat ipini zuen *El Correo Español* egunkariaren Bilboko egoitzan eta apirilean beste bat egunkari beraren Eibarko ordezkartizan. Hil berean dinamita-karga bat jarri zuen Guardia Zibilarren Sondikako kuartelean. 1968ko ekainaren 2an ETAK *Biltzar Ttipia* egin zuen Ondarroan eta erabaki zuen Brigada de Investigación Social-eko bi inspektore hitzen saiatzea: José María Junquera, Donostiako burua, eta Melitón Manzanás, Bilboko.

---

ETAren lehen hildakoa José Antonio Pardines Arcay guardia zibila izan zen. 1968ko ekainaren 7an, ohiko trafiko-kontrol batean, gelditzeko agindua eman zien Txabi Etxebarrietari eta Iñaki Sarasketari, lapurtutako ibilgailu batean zihoazela. Gau hartan Pardinesekin bikotea osatzen zuen agentea, Félix de Diego Martínez, bizirik ateratu zen atentatutik. 1979ko urtarrilaren 31n, erreserban zegoela eta gaixotasun batetik sendatzen, ETAk Irungo taberna batean hil zuen<sup>1</sup>. 1968ko abuztuaren 2an ETAk bere historiako lehen pertsona hil zuen antolatutako atentatu batean, Melitón Manzanos polizia-inspektorea. Salbuespen-egoera dekretatu zen Gipuzkoan, eta 1969ko urtarrilaren 24an Espainia osoan. 1969ko Aste Santuan ETAk 14 lehergailu jarri zituen. 1969ko apirilaren eta maiatzaren ETako zenbait buruzagi atxilotu zituzten. Haietako batek, Mikel Etxeberriak, ihes egitea lortu zuen, zaurituta egon arren; Fermín Monasterioren taxian sartu zen eta tiroz hil zuen. 1969. urtean 1.953 pertsona atxilotu zituzten<sup>2</sup>.

### 1970-1979.

1970eko abenduaren 3an gerra-kontseilua hasi zen Burgosen ETako hamasei kideren aurka. Seirentzat heriotza-zigorra eskatzen zen. Kontseilua egiten zen artean ETAk Alemaniaren Donostiako kontsula bahitu zuen, Eugene Bëihl. 1971n ETA V. Biltzarraren eta ETA VI. Biltzarraren arteko zatiketa gertatu zen<sup>3</sup>. 1972ko urtarrilean ETAk Lorenzo Zabala industrialaria bahitu zuen, langileen aldarrikapenen alde egin nahian, eta ondoren Felipe Huarte, bahisaria eskatzeko. ETako zenbait militante hil ziren ESIKekin izan zituzten enfrontamenduetan. Ezagunena Eustakio Mendizabal (Txikia) izan zen; Algortan hil zen, 1973ko apirilaren 19an. 1973ko abenduaren 20an ETAk Luís Carrero Blanco Gobernuako presidentea hil zuen Madrilén. 1974an ETAk adierazi zuen aurrerantzean Ordena Publikoko Indarretako kide guztiak jomuga zilegiztat hartuko zituela.

1974ko apirilaren 3an Gregorio Posada Zurrón guardia zibila metrailatu zuten bere ibilgailuaren barruan. ETAk guardia zibila izateagatik hil zuen lehen pertsona izan zen. Urte berean, abenduan, ETAk Argimiro García Estévez eta Luís Santos Hernández guardia zibilak hil zituen Arrasaten, kidego horretako kideak hitzeko asmoarekin berariaz egindako beste atentatu batean. Bi krimen horien artean ETAk Manuel Pérez Vázquez, Martín Durán Grande eta Jerónimo Vera García agenteak ere hil zituen komandoekin gertatu ziren enfrontamenduetan.

1974ko irailaren 13an ETAk lehergailua eztandarazi zuen Madrilgo Rolando kafetegian eta sarraski indiskriminatua eragin zuen. Dirudienez, Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusiaren egoitzatik gertu zegoelako hautatu zuen ETAk kafetegia, polizia asko ibiltzen zirela-eta. Hildakoetako hamabi zibilak ziren; ez zuten inolako loturarik segurtasun-indarrekin. Bat bakarrik zen polizia-inspektorea, Félix Ayuso Pinel; 1977ko urtarrilean hil zen atentatuan jasandako zaurien ondorioz.

1974ko urrian ETA militarren (ETAm) eta ETA politiko-militarren (ETApm) arteko zatiketa gertatu zen. 1976ko irailean ETApm-aren VII. Biltzarrerako deia egin zen. Azkenean, komando operatiboak (Bereziak) erakunde horretatik irten ziren eta 1977an ETAm-n sartu ziren. Ángel Berazadi enpresariaren bahiketak eta ondoko hilketak ten-

---

1 Fernández Soldevilla, Gaizka "A sangre fría. El asesinato de José Antonio Pardines (y sus antecedentes)", in Fernández Soldevilla, Gaizka eta Domínguez Iribarren, Florencio (koord.) *Pardines. Cuando ETA empezó a matar*. Madril: Tecnos, 2018, 77-127 or.

2 Jauregui, Gurutz; "ETA: orígenes y evolución ideológica y política", in Elorza, Antonio (koord.) *La historia de ETA*. Madril: ediciones temas de hoy, 2000, 171-267 or.

3 Garmendia, José María; "ETA: nacimiento, desarrollo y crisis (1959-1978)", in Elorza, Antonio (koord.) *La historia de ETA*. Madril: ediciones temas de hoy, 2000, 77-162 or.

tsio handia sortu zuten ETApM-eko sektoreen artean. 1975eko irailaren 27an ETApM-eko Angel Otaegi eta Juan Paredes (Txiki) fusilatu zituzten Bartzelonan. Frankismoak fusilatu zituen azken bi pertsonak izan ziren. 1975eko azaroaren 20an Francisco Franco hil zen.

Eduardo Moreno Bergaretxe, ETApM-ren VII. Biltzarrean onetsi zen *Otsagabia* ponenziaren egileetako bat, Donibane Lohizunen ikusi zuten azkenekoz 1976ko uztailaren 23an. VII. Biltzarrearen ondorioetako bat EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) erakunde politikoaren bultzakada izan zen. Alderdi hori Euskadiko Ezkerra (EE) koalizioan aurkeztu zen 1977ko hauteskunde orokorretara. Koalizioak diputatu bat eta senatari bat lortu zituen. 1978an zenbait alderdik Herri Batasuna koalizioa sortu zuten. 1977ko urriaren 15ean Amnistiaren Legea aldarrikatu zen; beraren eraginpean zeuden “*Intenzio politikoko egintza guztiak, emaitza edozein dela ere, delitu eta falta gisa tipifikatuta daudenak, baldin eta mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseiko abenduaren 15a baino lehen egindakoak badira*”.

Komando Autonomo Antikapitalistak (KAA) taldeak bere lehen heriotza eragin zuen 1978ko irailaren 3an: Amancio Barreiro Gens taxilaria hil zuen. 1978ko urriaren 22an ETAko komando batek lau guardia zibil metrailatu zituen Gobelako futbol-zelaian (Getxo) jokatu zen partida batean segurtasun-zerbitzua egin ondoren kuartelera itzultzen ari zirela; hiru hil ziren: Luciano Mata Corral, Andrés Silverio Martín eta Luís Carlos Gancedo Ron. 1978ko abenduaren 6an Konstituzioa berresteko erreferenduma egin zen. Batallón Vasco Español taldeak ETAm-ren buruzagi José Miguel Beñaran (Argala) hil zuen lehergailu batez. 1978ko azaroaren 20an, Bilbao-Behobia autobideko goragune batetik ETAko komando batek 33 polizia metrailatu zituen Basauriko kuarteleko futbol-zelaian partida bat jokatzeko ari zirela. José Benito Sánchez Sánchez eta Benjamín Sancho Lejido hil ziren. 1979ko uztailaren 25ean ETApM-k hiru lehergailu ezandarazi zituen Madrilen (Barajasko aireportuan eta Atocha eta Chamartínko geltokietan). atentatu haietan zazpi pertsona hil ziren, eta zaurituak ehunetik gora izan ziren. 1979ko urriaren 25ean Gernikako Autonomia Estatutua onesteko erreferenduma egin zen.

## 1980-1989.

1980 izan zen Trantsizioko urterik bortitzena: urte hartan jardunean ari ziren talde terrorista guztien artean 100 pertsona baino gehiago hil zituzten. 1980ko martxoaren 9an Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeak egin ziren. 1980ko urriaren 3an Polizia Nazionalaren Kidegoko hiru agente metrailatu zituzten Durangon (Sergio Canal Canal, Jesús Hernando Ortega eta José Antonio Merenciano Ruíz), ofiziala ez zen ibilgailu batean zihozela. Hurrengo egunean hiru guardia zibil tirokatu zituzten Aguraingo jaietan txirrindulari-lasterketa batean trafikoa zaintzen ari zirela. Avelino Palma Brioa, José Luis Vázquez Platas eta Ángel Prado Melia hil ziren.

1981eko otsailaren 4an HBko hautetsiek *Eusko gudariak* kantatu zuten Gernikako Bazar Etxean Juan Carlos I.a hitz egiten ari zela. ETak José María Ryan, Lemoizko zentral nuklearreko ingeniari burua, bahitu zuen eta ondoren hil egin zuen. Halaber, ETak haren ordezkoa ere hil zuen: Ángel Pascual Múgica. Aurretik, 1978ko martxoan eta 1979ko ekainean, hiru langile hil zituzten lehergailu bana ezandarazita eraikitzen ari ziren zentrolean. 1981eko otsailaren 23an estatu-kolpeak kale egin zuen. 1981ean *Asociación de Víctimas del Terrorismo* (Terrorismoaren Biktimen Elkarte) eratu zen.

1982ko urrian PSOEk gehiengo osoa lortu zuen Kongresuan eta Senatuan. 1983ko urrian José Ignacio Zabala eta José Antonio Lasa inolako arrastorik utzi gabe desagertu ziren. Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) taldea ETAren kontrako gerra zikinean ari

---

zelako esamesak hasi ziren. 1984ko azaroaren 20an GALEk Santiago Brouard hil zuen beraren mediku-kontsultan.

1986ko irailaren 10ean ETAk María Dolores González Catarain (Yoyes) hil zuen, traïdorea zela-eta. 1986ko uztailaren 14an ETAk bonba-furgoneta bat utzi zuen Madrilgo Dominikar Errepublikaren Plazan eta 70 guardia zibil zihoazen konboi bat pasatzen ari zela eztandarazi zuen. 12 hil ziren zaurien ondorioz. 1986an *Bakearen Aldeko Koordina-kundea* eratu zen. 1987ko ekainaren 19an ETAk bonba-autoa utzi zuen Bartzelonako Hipercor merkataritza-guneko aparkalekuan. Eztandak 21 pertsona hil zituen. Hilabete batzuk geroago, abenduaren 11n, beste bonba-auto batez ETAk 11 pertsona hil zituen Guardia Zibilaren Zaragozako kuartel-etxearen kontrako atentatuan<sup>4</sup>.

1988ko urtarrilaren 12an Euskadi Normaltzeko eta Baketzeko Hitzarmena sinatu zen, Ajuria Eneko Ituna ere esaten zaiona. 1989ko urtarrilaren 8an ETAk alde bakarreko su-etena eman zuen (ekainaren 24ra arte luzatu zen) Aljerreko elkarrizketen esparruan. Baina elkarrizketak bertan behera gelditu ziren apirilaren 4an eta ETak bere jardun terroristari ekin zion: apirilaren 14an José Calvo de la Hoz Guardia Zibileko sarjentua hil zuen Getxon. Eskuin muturreko talde batek HBko Kongresuko diputatu Josu Muguruza Guarrotxena hil zuen eta Iñaki Esnaola diputatua larri zauritu zuen.

### 1990-1999.

Espainiako Gobernuak eta ETAk Aljerren izandako elkarrizketek porrot egin ostean, lau- rogeita hamarreko hamarkadaren hasieran talde terroristak Estatuaren aurkako erasoal- dia areagotu zuen. Bazirudien terrorismoaren jarduera areagotzearen helburua 1992ko nazioarteko ekitaldi garrantzitsuak zapuztea zela: esaterako, 1991. urtea oso gogorra izan zen, 46 hilketa eta indarkeriazko 149 ekintza egon baitziren, 1990ean baino % 19,25 gehiago. 1991ko maiatzaren 29an Guardia Zibilaren Vich-eko kuartel-etxearen barruan aparkatuta- ko bonba-auto batek eztanda egin zuen eta hamar pertsona hil ziren, haietatik bost adin- gabeak. 1993an EEren VI. biltzarrak PSE-PSOEn sartzeari onetsi zuen. ETAREN ahultasuna HB barruan piztutako eztabaidekin batera iritsi zen; horien bidez Ajuria Eneko Itunak eka- rri zuen bakartasuna gairatzeko estrategia bat zehaztu nahi zen. Garrantzi handiko zen- bait agirik aldi horren amaiera ezarri zuten. HBren *Oldartzen*, ETAREN *Zuzen 79* eta KASen *Karramarro* dokumentuek agerian utzi zuten erakunde horiek estrategia berriak zituztela. 1995ean HBk *Oldartzen* txostena onetsi zuen; bertan honako hau adierazten zen: “*esku har- tzeke ildoak egokitu beharra daukagu*”. Ez zen sufrimenduaren sozializazioaren kontzeptua aipatzen, baina, ustez, garai horretan hasi ziren oro har jazarpen-indarkeriaren estrate- giak martxan jartzen. *Zuzen 79* barne-dokumentutik ondorioztatzen da ETAK erabakia zuela PP eta PSOE alderdietako politikarien aurkako atentatuak egitea. KASen *Karrama- rro* txostenak honela definitu zuen kale-borroka: “*ezker abertzaleak lortutako kapital nagus- ia*”. 1995eko urtarrilaren 23an ETAk Gregorio Ordóñez hil zuen Donostiako jatetxe batean. 1995eko martxoaren 20an zabaldu zen José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabala- ren gorpuak agertu zirela; gertakari hark protesta ugari sorrarazi zituen.

Ardanza lehendakariak Eusko Legebiltzarrean aitortu zuen kale-borrokak gairatu egin zuela, neurri batean, prebentziorako eta defentsarako mekanismoen bidez eran- tzuteko ahalmena (1995ean, urteko 365 egunetatik 136 egunetan izan ziren kale-borro- kako ekintzak<sup>5</sup>). Oiarzunen atxilotu zutenean, Valentin Lasartek 713 pertsonari bu-

---

4 Fernández Soldevilla, Gaizka eta López Romo, Raúl; *Sangre, votos, manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical 1958-2011*. Madril: Tecnos, 2012.

5 Azurmendi, José Félix; *ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato*. Donostia: ttarttalo, 2014. 246. or.

ruzko informazioa zuen Donostia komandoarentzat. Horietako 22ri jarraipena egin zitzaion. ETAk zenbait talde gogor estigmatizatu zituen sufrimenduaren sozializazioaren estrategiaren bidez. Aldi horretan talde horiek iritzi publikoan eragin handia izan zuten atentatu latzak jasan zituzten. Enpresariena da talde horietako bat. Haien kontrako ekintza terroristen artean nabarmentzekoak dira Julio Iglesias Zamora eta José María Aldaiaren bahiketak. Bi kasuetan ADEGIk zeregin aktiboa izan zuen gertakarien salaketan, eta horren ondorioz mehatxu esplizituak jaso zituen. ETAk erasandako beste kolektibo bat espetxeetako funtzionarioena izan zen. Izan ere, kolektibo horretako zenbait profesional atentatuan hil zituen eta, gainera, José Antonio Ortega Lara bahituta izan zuen luzaroan, 532 egun, 1996ko urtarrilaren 17tik 1997ko uztailaren 1era arte. Era berean, ETAk udal-kargu hautetsien kontra ere jo zuen: Miguel Ángel Blancoren bahiketa eta hilketaren ondoren Alderdi Popularreko beste zenbait zinegotziren aurkako atentatuak egin zituen Euskadiko hainbat udalerritan (garai hartan PP Espainiako gobernuan zegoen). Zinegotzi horietako batzuek uko egin zioten eskolta edukitzeari, beren eguneroko jarduerak gauzatzea oztokatzen zuelako. Miguel Ángel Blancoren hilketaren ondoren egin ziren manifestazioetan eta kontramanifestazioetan nabarmen areagotu zen tirabira. 1998ko irailaren 14an ETAk “alde bakarreko, erabateko eta muga-egunik gabeko” su-etena iragarri zuen. 1999ko ekainaren 13ko udal hauteskundeak ETAren hilketarik gabe demokrazian egin ziren lehenengoak izan ziren.

### 2000-2011.

Su-etenak 438 egun iraun zuen (1999ko abenduaren 3ra arte); aldi hartan elkarriketak izan ziren Espainiako Gobernuaren ordezkarien eta ETAren artean. Su-etena amaitu zenean, PSEko eta PPko buruzagi eta hautetsien aurkako atentatu gehiago egon ziren. Horrez gain, ETAk herriz ekin zien mehatxatutako jarduera-sektoreetako pertsona nabarmenen aurkako atentatu hilgarriak (prentsa: José Luis López de Lacalle, Santiago Oleaga; enpresariak: José Luis Korta; botere judiziala: José María Lidón). 2000ko otsailaren 22an ETAk Fernando Buesa Blanco lider sozialista eta haren eskolta Jorge Díez Elorza ertzaina hil zituen auto-bomba batez. 2000ko abenduaren 8an Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren kontrako Ituna sinatu zen; ondoren Alderdi Politikoei buruzko Lege Organikoa (6/2002) onetsi zen. 2003ko martxoan Auzitegi Gorenak legez kanpo utzi zituen EH-HB-Batasuna formazioak. ETAren aurkako beste erasoaldi gogor bat Mikel Antza eta Soledad Iparragirreraren atxiloketa izan zen. Diputatuen Kongresuak Gobernuaren eta ETAren arteko elkarriketak proposatzen zuen mozioa onetsi zuen, zenbait baldintza ezarrita. 2005eko ekainean ETAk su-etena iragarri zuen hautetsitako kargu publikoentzat. Euskadin 956 pertsonak zuten eskolta motaren bat. 2006. urtean, Segurtasun Sailak partida horretarako bideratutako aurrekontua 62 milioi eurokoa zen<sup>6</sup>.

Espainiako Gobernuko ordezkarien eta ETAren arteko kontaktu gehiago egon ziren. 2006ko martxoaren 22an ETAk su-eten iraunkorra iragarri zuen, baina abenduaren 30ean hautsi zuen, Barajasko aireportuko T4 terminaleko aparkalekuan egindako atentatu hilgarri baten bidez. 2007ko ekainaren 6an ETAk adierazi zuen su-eten iraunkorra amaitu zela. Hainbat pertsonari eskolta jartzeko beharra sortu zen herriz ere. ETA AHTaren proiektuaren aurka azaldu zen eta atentatuak egin zituen proiektuarekin zerkusia zuten pertsona ezagunen eta enpresa kontratisten aurka. ETAren azken hilketak segurtasun-indarren kontrako atentatuetan izan ziren. 2009ko ekainaren 19an ETAk Eduardo Puelles García Polizia Nazionaleko inspektore burua hil zuen ibilgailuan itsatsitako lapa-lehergailu baten bidez. Egun batzuk geroago, uztailaren 30ean, Carlos Sáenz

---

<sup>6</sup> Datua hemen: Pérez, Kepa; *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbo: ADDH eta Eusko Jaurlaritzak, 2005, 13. or.

de Tejada García eta Diego Salvá Lezaun guardia zibilak hil zituen modu berean. 2010eko martxoaren 16an, Jean Serge Nérin jendarmea tirokatu eta hil zuten, Parisko hego-mendebaldean ETArekin komando batekin izan zuen enfrontamenduan. 2010eko martxoaren 29an Brian Currin-ek Bruselako Adierazpenaren aurkezpen publikoa egin zuen. 2011ko urtarrilaren 10ean ETAk su-eten iraunkorra, orokorra eta egiaztagarria iragarri zuen eta urte horretako urriaren 20an indarkeria terroristaren amaiera iragarri zuen.

Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroaren txostenaren arabera (Florencio Domínguezek egin), 1968-2016 aldian ESIKek 40.000 kilo lehegaitik gora konfiskatu zituzten ETArri. Beste alde batetik, Polizia Kidego Nazionalaren Informazio Bulego Nagusiaren datuen arabera, 1985-2009 aldian ETAk 12.509 kilo lehegai erabili zituen ekintzetan. Halaber, 1968-2016 aldian, 2.126 arma labur, 1.231 subfusil, 877 fusil eta eskopeta, eta 2.100 granadatik gora konfiskatu zitzaizkion ETArri.

### 3. Datuen aurkezpena.

#### 3.1. Datu kuantitatiboen azterketa.

Jarraian, 1. taulan ETAk hildako Guardia Zibileko eta Poliziako (edo horien aurreko kidegoetako) kideen zerrenda ageri da. Honako datu hauek zehazten dira: izen-abizenak, atentatua noiz gertatu zen eta segurtasun-kidegoa. Zerrenda osatzeko, *Foronda txostenean*<sup>8</sup> eta *Vidas Rotas*<sup>9</sup> eta *Historia de un desafío*<sup>10</sup> liburuetakoa informazioa erabili da. Guztira, 357 pertsona dira: 207 guardia zibil eta 150 polizia nazional. Bigarren taulan ETAk hildako beste bost pertsona ageri dira; atentatua gertatu aurretik guardia zibilak izan ziren, baina atentatua gertatu zenean beste lanbide batean ari ziren.

#### 1. Taula. *ETAk hildako Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak.*

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
1	1968-06-07	José Antonio PARDINES ARCAJ	Guardia Zibila
2	1968-08-02	Melitón MANZANAS GONZÁLEZ	Polizia
3	1973-12-20	Juan Antonio BUENO FERNÁNDEZ	Polizia
4	1974-04-03	Gregorio POSADA ZURRÓN	Guardia Zibila
5	1974-06-03	Manuel PÉREZ VÁZQUEZ-LÓPEZ	Guardia Zibila

7 Domínguez, Florencio; *Las claves de la derrota de ETA. Informe del Centro Memorial de las víctimas del Terrorismo*, nº 3. Gasteiz: Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroa Fundazioa, 2017, 50-52 or.

8 López Romo, Raul; *Foronda txostena. Terrorismoaren testuinguru historikoak Euskal Herrian eta biktimizeko arreta soziala. 1968-2010*. Gasteiz: Valentín de Foronda institutua, 2014.

9 Alonso, Rogelio; Domínguez, Florencio eta García Rey, Marcos; *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madril: Espasa, 2010.

10 Sánchez, Manuel eta Simón, Manuela; *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*. Bartzelona: Ediciones Península, 2021.



ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek jasandako injustiziari buruzko txostena (1960-2011)

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
6	1974-09-11	Martín DURÁN GRANDE	Guardia Zibila
7	1974-09-13	Félix AYUSO PINEL	Polizia
8	1974-10-29	Jerónimo VERA GARCÍA	Guardia Zibila
9	1974-12-17	Argimiro GARCÍA ESTÉVEZ	Guardia Zibila
10	1974-12-17	Luis SANTOS HERNÁNDEZ	Guardia Zibila
11	1975-03-29	José DÍAZ LINARES	Polizia
12	1975-04-22	José Ramón MORÁN GONZÁLEZ	Polizia
13	1975-05-06	Andrés SEGOVIA PERALTA	Guardia Zibila
14	1975-05-07	Fernando LLORENTE ROIZ	Polizia
15	1975-05-14	Domingo SÁNCHEZ MUÑOZ	Guardia Zibila
16	1975-06-05	Mariano ROMÁN MADROÑAL	Guardia Zibila
17	1975-06-06	Ovidio DÍAZ LÓPEZ	Polizia
18	1975-10-05	Esteban MALDONADO LLORENTE	Guardia Zibila
19	1975-10-05	Jesús Pascual MARTÍN LOZANO	Guardia Zibila
20	1975-10-05	Juan MORENO CHAMORRO	Guardia Zibila
21	1975-10-18	Manuel LÓPEZ TREVIÑO	Guardia Zibila
22	1976-01-17	Manuel VERGARA JIMÉNEZ	Guardia Zibila
23	1976-04-03	José María GONZÁLEZ ITUERO	Polizia
24	1976-04-03	José Luis MARTÍNEZ MARTÍNEZ	Polizia
25	1976-04-11	Miguel GORDO GARCÍA	Guardia Zibila
26	1976-05-03	Antonio DE FRUTOS SUALDEA	Guardia Zibila
27	1976-10-04	Alfredo GARCÍA GONZÁLEZ	Polizia
28	1976-10-04	Antonio PALOMO PÉREZ	Polizia
29	1976-10-04	Luis Francisco SANZ FLORES	Polizia
30	1977-03-13	Constantino GÓMEZ BARCIA	Guardia Zibila
31	1977-04-29	Antonio GALÁN ACEITUNO	Guardia Zibila
32	1977-05-18	Manuel ORCERA DE LA CRUZ	Polizia
33	1977-06-26	Valentín GODOY CEREZO	Polizia
34	1977-10-08	Antonio HERNÁNDEZ FERNÁNDEZ-SEGURA	Guardia Zibila
35	1977-10-08	Ángel Antonio RIVERA NAVARRÓN	Guardia Zibila
36	1977-11-26	Joaquín IMAZ MARTÍNEZ	Polizia

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
37	1978-01-11	José Manuel BAENA MARTÍN	Polizia
38	1978-03-05	Joaquín RAMOS GÓMEZ	Polizia
39	1978-03-05	Miguel RAYA AGUILAR	Polizia
40	1978-03-05	José Vicente DEL VAL DEL RIO	Polizia
41	1978-03-10	José María ACEDO PANIZO	Guardia Zibila
42	1978-05-08	Manuel LÓPEZ GONZÁLEZ	Guardia Zibila
43	1978-05-09	Miguel ÍÑIGO BLANCO	Guardia Zibila
44	1978-05-09	Juan MARCOS GONZÁLEZ	Guardia Zibila
45	1978-06-27	Francisco MARTÍN GONZÁLEZ	Polizia
46	1978-08-28	Alfonso ESTEVAS-GUILMAIN MUÑOZ	Polizia
47	1978-08-28	Aurelio SALGUEIRO LÓPEZ	Guardia Zibila
48	1978-09-23	José Antonio FERREIRO GONZÁLEZ	Polizia
49	1978-09-25	Lorenzo SOTO SOTO	Guardia Zibila
50	1978-09-25	José ZAFRA RÉGIL	Guardia Zibila
51	1978-10-09	Anselmo DURÁN VIDAL	Guardia Zibila
52	1978-10-09	Ángel PACHECO PATA	Guardia Zibila
53	1978-10-13	José Benito DÍAZ GARCÍA	Polizia
54	1978-10-13	Elías GARCÍA GONZÁLEZ	Polizia
55	1978-10-13	Ramón MUIÑO FERNÁNDEZ	Polizia
56	1978-10-14	Alberto VILLENA CASTILLO	Guardia Zibila
57	1978-10-22	Luis Carlos GANCEDO RON	Guardia Zibila
58	1978-10-22	Luciano MATA CORRAL	Guardia Zibila
59	1978-10-22	Andrés SILVERIO MARTÍN	Guardia Zibila
60	1978-11-05	Mariano CRIADO RAMAJO	Guardia Zibila
61	1978-11-11	Lucio REVILLA ALONSO	Guardia Zibila
62	1978-11-11	José RODRÍGUEZ DE LAMA	Guardia Zibila
63	1978-11-20	José Benito SÁNCHEZ SÁNCHEZ	Polizia
64	1978-11-20	Benjamín SANCHO LEGIDO	Polizia
65	1978-11-27	Heliodoro ARRIAGA CIAURRI	Guardia Zibila
66	1978-12-01	Manuel LEÓN ORTEGA	Guardia Zibila
67	1978-12-05	Gabriel ALONSO PEREJIL	Polizia

ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek jasandako injustiziari buruzko txostena (1960-2011)

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
68	1978-12-05	José María SARRAIS LLASERA	Polizia
69	1979-01-02	Francisco BERLANGA ROBLES	Polizia
70	1979-01-05	Ciriaco SANZ GARCÍA	Guardia Zibila
71	1979-01-06	Antonio RAMÍREZ GALLARDO	Guardia Zibila
72	1979-01-13	Miguel GARCÍA POYO	Guardia Zibila
73	1979-01-13	Francisco GÓMEZ GÓMEZ-JIMÉNEZ	Guardia Zibila
74	1979-01-13	Francisco MOTA CALVO	Guardia Zibila
75	1979-01-29	Esteban SÁEZ GÓMEZ	Guardia Zibila
76	1979-01-31	Félix DE DIEGO MARTÍNEZ	Guardia Zibila
77	1979-02-03	José Díez PÉREZ	Guardia Zibila
78	1979-02-23	Benito ARROYO GUTIÉRREZ	Guardia Zibila
79	1979-03-23	Antonio RECIO CLAVER	Polizia
80	1979-04-07	Miguel ORENES GUILLAMONT	Polizia
81	1979-04-07	Juan Bautista PERALTA MONTOYA	Polizia
82	1979-04-07	Ginés PUJANTE GARCÍA	Polizia
83	1979-04-17	Juan BAUTISTA GARCÍA	Guardia Zibila
84	1979-04-30	Juan Antonio DÍAZ ROMÁN	Guardia Zibila
85	1979-05-02	José Miguel MAESTRE RODRÍGUEZ	Guardia Zibila
86	1979-05-02	Antonio PEÑA SOLÍS	Guardia Zibila
87	1979-07-28	Emilio LÓPEZ DE LA PEÑA	Polizia
88	1979-07-28	Miguel Ángel SARO PÉREZ	Polizia
89	1979-07-28	Moisés CORDERO LÓPEZ	Guardia Zibila
90	1979-07-28	Antonio PASTOR MARTÍN	Guardia Zibila
91	1979-07-29	Juan LUNA AZOL	Guardia Zibila
92	1979-07-29	Dionisio REY AMEZ	Polizia
93	1979-08-04	Juan José TAUSTE SÁNCHEZ	Guardia Zibila
94	1979-08-08	Antonio NIEVES CAÑUELO	Guardia Zibila
95	1379-08-30	José María PÉREZ RODRÍGUEZ	Polizia
96	1979-08-30	Aureliano CALVO VAL	Polizia
97	1979-10-08	Carlos SANZ BIURRUN	Polizia
98	1979-10-11	Antonio MESA PORTILLO	Polizia

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
99	1979-10-31	Manuel FUENTES FONTÁN	Guardia Zibila
100	1979-11-28	Antonio ALÉS MARTÍNEZ	Guardia Zibila
101	1979-11-28	Ángel GARCÍA PÉREZ	Guardia Zibila
102	1979-11-28	Pedro SÁNCHEZ MARFIL	Guardia Zibila
103	1980-01-08	Sebastián ARROYO GONZÁLEZ	Guardia Zibila
104	1980-01-14	Francisco MOYA JIMÉNEZ	Guardia Zibila
105	1980-01-27	Juan Manuel ROMÁN MORENO	Polizia
106	1980-02-01	Alfredo DÍEZ MARCOS	Guardia Zibila
107	1980-02-01	José GÓMEZ MARTIÑÁN	Guardia Zibila
108	1980-02-01	José GÓMEZ TRILLO	Guardia Zibila
109	1980-02-01	Antonio MARÍN GAMERO	Guardia Zibila
110	1980-02-01	José MARTÍNEZ PÉREZ-CASTILLO	Guardia Zibila
111	1980-02-01	Victorino VILLAMOR GONZÁLEZ	Guardia Zibila
112	1980-04-06	Francisco PASCUAL ANDREU	Guardia Zibila
113	1980-04-16	Luis MARTOS GARCÍA	Guardia Zibila
114	1980-04-16	José TORRALBA LÓPEZ	Guardia Zibila
115	1980-04-28	Rufino MUÑOZ ALCALDE	Guardia Zibila
116	1980-05-09	Antonio MORENO NÚÑEZ	Polizia
117	1980-05-15	Jesús HOLGADO SABIO	Polizia
118	1980-05-15	José Manuel RODRÍGUEZ FONTANA	Polizia
119	1980-05-15	Dionisio VILLADANGOS CALVO	Polizia
120	1980-05-15	Francisco PUIG MESTRE	Guardia Zibila
121	1980-05-15	Francisco Ramón RUIZ FERNÁNDEZ	Guardia Zibila
122	1980-06-15	Ángel POSTIGO MEJÍAS	Polizia
123	1980-06-28	Justino QUINDOS LÓPEZ	Guardia Zibila
124	1980-07-13	Antonio GÓMEZ RAMOS	Guardia Zibila
125	1980-07-13	Aurelio NAVÍO NAVÍO	Guardia Zibila
126	1980-07-22	Francisco LÓPEZ BESCOS	Guardia Zibila
127	1980-09-06	Basilio ALTUNA FDEZ. DE ARROYABE	Polizia
128	1980-09-20	Antonio GARCÍA ARGENTE	Guardia Zibila
129	1980-09-20	Mariano GONZÁLEZ HUERGO	Guardia Zibila

ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek jasandako injustiziar buruzko txostena (1960-2011)

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
130	1980-09-20	Miguel HERNÁNDEZ ESPIGARES	Guardia Zibila
131	1980-09-20	Alfonso MARTÍNEZ BELLAS	Guardia Zibila
132	1980-10-03	Sergio CANAL CANAL	Polizia
133	1980-10-03	Jesús HERNANDO ORTEGA	Polizia
134	1980-10-03	José Antonio MERENCIANO RUIZ	Polizia
135	1980-10-04	Avelino PALMA BRIOA	Guardia Zibila
136	1980-10-04	Ángel PRADO MELLA	Guardia Zibila
137	1980-10-04	José Luis VÁZQUEZ PLATA	Guardia Zibila
138	1980-11-03	Julio César CASTILLEJOS PÉREZ	Guardia Zibila
139	1980-11-03	Modesto GARCÍA LORENZO	Guardia Zibila
140	1980-11-03	Arturo LÓPEZ HERNÁNDEZ	Guardia zibila
141	1980-11-03	Ángel RETAMAR NOGALES	Guardia Zibila
142	1980-11-06	José Alberto LISALDE RAMOS	Polizia
143	1980-11-17	Juan GARCÍA LEÓN	Guardia Zibila
144	1980-11-21	Aurelio PRIETO PRIETO	Guardia Zibila
145	1980-11-27	Carlos FERNÁNDEZ VALCÁRCEL	Polizia
146	1980-12-11	José Javier MORENO CASTRO	Polizia
147	1981-01-17	Leopoldo GARCÍA MARTÍN	Polizia
148	1981-03-05	José Luis RAIMUNDO MOYA	Polizia
149	1981-04-08	Vicente SÁNCHEZ VICENTE	Polizia
150	1981-04-09	Francisco FRANCÉS GARZÓN	Polizia
151	1981-04-14	Luis CADARSO SAN JUAN	Guardia Zibila
152	1981-05-14	José OLAYA DE LA FLOR	Guardia Zibila
153	1981-05-14	Manuel SÁNCHEZ BORRALLO	Guardia Zibila
154	1981-06-05	Esteban ÁLVAREZ MERAYO	Polizia
155	1981-06-16	María José GARCÍA SÁNCHEZ	Polizia
156	1981-07-06	Luis MIRANDA BLANCO	Guardia Zibila
157	1981-07-10	Joaquín GORJÓN GONZÁLEZ	Guardia Zibila
158	1981-10-17	Santiago GONZÁLEZ DE PAZ	Guardia Zibila
159	1982-02-16	Benjamín FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ	Guardia Zibila
160	1982-02-16	José FRAGOSO MARTÍN	Guardia Zibila

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
161	1982-03-15	Modesto MARTÍN SÁNCHEZ	Guardia Zibila
162	1982-03-22	Agustín MARTÍNEZ PÉREZ	Polizia
163	1982-03-22	Alfonso MASIDE BOUZO	Polizia
164	1982-03-26	Antonio GÓMEZ GARCÍA	Polizia
165	1982-04-17	Vicente Luis GARCERA LÓPEZ	Polizia
166	1982-05-02	Antonio Pablo FERNÁNDEZ RICO	Guardia Zibila
167	1982-06-13	José Luis FERNÁNDEZ PERNA	Guardia Zibila
168	1982-07-04	Juan GARCÍA GONZÁLEZ	Guardia Zibila
169	1982-08-25	Miguel GARRIDO ROMERO	Guardia Zibila
170	1982-08-25	Vicente GÓMEZ DUARTE	Guardia Zibila
171	1982-09-14	Antonio CEDILLO TOSCANO	Polizia
172	1982-09-14	Alfonso LÓPEZ FERNÁNDEZ	Polizia
173	1982-09-14	Jesús ORDOÑEZ PÉREZ	Polizia
174	1982-09-14	Juan SERONERO SACRISTÁN	Polizia
175	1982-10-09	José JIMÉNEZ MAYORAL	Guardia Zibila
176	1982-10-31	Francisco GONZÁLEZ RUIZ	Polizia
177	1982-12-12	Juan Ramón JOYA LAGO	Guardia Zibila
178	1982-12-29	Juan Manuel GARCÍA MENCÍA	Guardia Zibila
179	1982-12-29	Manuel LÓPEZ FERNÁNDEZ	Guardia Zibila
180	1983-02-02	Miguel MATEO PASTOR	Guardia Zibila
181	1983-03-25	Ramón Ezequiel MARTÍNEZ GARCÍA	Polizia
182	1983-03-27	Aniano SUTIL PELAYO	Polizia
183	1983-05-04	Pedro BARQUERO GONZÁLEZ	Polizia
184	1983-05-04	Julio SEGARRA BLANCO	Polizia
185	1983-05-28	Antonio CONEJO SALGUERO	Guardia Zibila
186	1983-05-28	Fidel LÁZARO APARICIO	Guardia Zibila
187	1983-06-22	Juan MALDONADO MORENO	Guardia Zibila
188	1983-06-23	Emilio Juan CASANOVA LÓPEZ	Polizia
189	1983-07-13	Manuel Francisco GARCÍA SAN MIGUEL	Polizia
190	1983-07-31	Rafael GIL MARÍN	Guardia Zibila
191	1983-07-31	Enrique RÚA DÍAZ	Guardia Zibila

ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek  
eta haien senideek jasandako injustiziari buruzko txostena (1960-2011)

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
192	1983-09-16	Pablo SÁNCHEZ CÉSAR	Polizia
193	1983-10-03	Manuel BENITO JOSÉ	Polizia
194	1983-10-13	Ángel FLORES JIMÉNEZ	Guardia Zibila
195	1983-10-15	José Reyes CORCHADO MUÑOZ	Guardia Zibila
196	1983-12-15	Eduardo NAVARRO CAÑADA	Polizia
197	1984-03-01	Pedro ORTÍZ DE URBINA GARAYALDE	Polizia
198	1984-04-02	Bernardo PÉREZ SOBRINO	Polizia
199	1984-04-06	José VERDÚ ORTÍZ	Polizia
200	1984-04-13	Tomás PALACÍN PELLEJERO	Polizia
201	1984-04-13	Juan José VISIEDO CALERO	Polizia
202	1984-04-21	Antonio VELASCO BENITO	Guardia Zibila
203	1984-05-27	Luis OLLO OCHOA	Guardia Zibila
204	1984-06-07	Diego TORRENTE REVERTE	Polizia
205	1984-06-14	Ángel ZAPATERO ANTOLÍN	Guardia Zibila
206	1984-07-19	Antonio TORRÓN SANTAMARÍA	Guardia Zibila
207	1984-09-28	Victoriano COLLADO ARRIBAS	Guardia Zibila
208	1984-09-28	Agustín David PASCUAL JOVE	Guardia Zibila
209	1984-09-28	José Luis VEIGA PÉREZ	Guardia Zibila
210	1984-11-23	Mohamed Ahmed ABDERRAMÁN	Polizia
211	1985-05-13	Máximo Antonio GARCÍA KLEINER	Polizia
212	1985-05-16	Luis Lorenzo NAVARRO IZQUIERDO	Polizia
213	1985-05-21	Máximo DÍAZ BARDERA	Polizia
214	1985-05-21	Francisco RIVAS LÓPEZ	Polizia
215	1985-05-26	Moisés Cosme HERRERO LUENGO	Polizia
216	1985-05-30	Francisco MIGUEL SÁNCHEZ	Polizia
217	1985-06-12	Esteban DEL ALMO GARCÍA	Polizia
218	1985-06-18	Eugenio RECIO GARCÍA	Guardia Zibila
219	1985-07-09	Juan MERINO ANTÚNEZ	Guardia Zibila
220	1985-07-09	Antonio Jesús TRUJILLO COMINO	Guardia Zibila
221	1985-07-29	Agustín RUIZ FERNÁNDEZ DE RETANA	Polizia
222	1985-08-03	Fernando AMOR CALVO	Guardia Zibila

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
223	1985-08-04	José EXPÓSITO AFÁN	Guardia Zibila
224	1985-09-14	Félix GALLEGO SALMÓN	Polizia
225	1985-11-25	Isidoro DÍEZ RATÓN	Guardia Zibila
226	1985-11-26	José HERRERO QUILES	Guardia Zibila
227	1985-12-05	Mario Manuel LEAL BAQUERO	Guardia Zibila
228	1985-12-23	Juan ATARÉS PEÑA	Guardia Zibila
229	1986-03-14	José Antonio ÁLVAREZ DÍEZ	Polizia
230	1986-04-25	Alberto Amancio ALONSO GÓMEZ	Guardia Zibila
231	1986-04-25	Juan José CATÓN VÁZQUEZ	Guardia Zibila
232	1986-04-25	Vicente Javier DOMÍNGUEZ GONZÁLEZ	Guardia Zibila
233	1986-04-25	Juan Carlos GONZÁLEZ RENTERO	Guardia Zibila
234	1986-04-25	Juan MATEOS PULIDO	Guardia Zibila
235	1986-05-20	Manuel FUENTES PEDREIRA	Polizia
236	1986-06-08	Antonio RAMOS RAMÍREZ	Guardia Zibila
237	1986-06-28	José María BALTASAR GIL	Guardia Zibila
238	1986-06-28	José Carlos MARRERO SANABRIA	Guardia Zibila
239	1986-06-28	Francisco MURIEL MUÑOZ	Guardia Zibila
240	1986-07-14	Carmelo BELLA ÁLAMO	Guardia Zibila
241	1986-07-14	Juan Ignacio CALVO GUERRERO	Guardia Zibila
242	1986-07-14	José CALVO GUTIÉRREZ	Guardia Zibila
243	1986-07-14	Miguel Ángel CORNEJO ROS	Guardia Zibila
244	1986-07-14	Javier ESTEBAN PLAZA	Guardia Zibila
245	1986-07-14	Andrés José FERNÁNDEZ PERTIERRA	Guardia Zibila
246	1986-07-14	Jesús María FREIXES MONTES	Guardia Zibila
247	1986-07-14	José Joaquín GARCÍA RUIZ	Guardia Zibila
248	1986-07-14	Ángel de la HIGUERA LÓPEZ	Guardia Zibila
249	1986-07-14	Santiago IGLESIAS GODINO	Guardia Zibila
250	1986-07-14	Jesús JIMÉNEZ JIMENO	Guardia Zibila
251	1986-07-14	Antonio LANCHARRO REYES	Guardia Zibila
252	1986-07-26	Adrián Dionisio GONZÁLEZ REVILLA	Guardia Zibila
253	1986-07-26	Ignacio MATEU ISTÚRIZ	Guardia Zibila



ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek jasandako injustiziari buruzko txostena (1960-2011)

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
254	1986-10-14	Ángel GONZÁLEZ DEL POZO	Polizia
255	1986-10-28	Julio César SÁNCHEZ RODRÍGUEZ	Polizia
256	1986-12-24	José Antonio PEÑA MEDINA	Guardia Zibila
257	1987-03-27	Antonio GONZÁLEZ HERRERA	Guardia Zibila
258	1987-07-14	Antonio LÓPEZ MARTÍNEZ-COLMENERO	Guardia Zibila
259	1987-07-14	Pedro GALNARES BARRERA	Guardia Zibila
260	1987-08-06	Antonio LIGERO HEC	Polizia
261	1987-08-06	Rafael MUCIENTES SANZ	Polizia
262	1987-09-09	Cristóbal MARTÍN LUENGO	Guardia Zibila
263	1987-09-09	Manuel ÁVILA GARCÍA	Guardia Zibila
264	1987-09-09	Federico CARRO JIMÉNEZ	Guardia Zibila
265	1987-09-25	Vicente MONTOYA SALAZAR	Polizia
266	1987-09-27	Wenceslao MAYA VÁZQUEZ	Polizia
267	1987-11-01	Antonio MATEO MELERO	Guardia Zibila
268	1987-12-11	José BALLARÍN CAZAÑA	Guardia Zibila
269	1987-12-11	Emilio CAPILLA TOCADO	Guardia Zibila
270	1987-12-11	José Julián PINO ARRIERO	Guardia Zibila
271	1987-12-11	José Luis GÓMEZ SOLÍS	Guardia Zibila
272	1988-03-19	Pedro BALLESTEROS RODRÍGUEZ	Guardia Zibila
273	1988-04-15	Francisco ESPINA VARGAS	Polizia
274	1988-04-15	Antonio GÓMEZ OSUNA	Polizia
275	1988-08-21	Antonio FERNÁNDEZ ÁLVAREZ	Guardia Zibila
276	1988-08-21	José Antonio FERRI PÉREZ	Guardia Zibila
277	1988-09-10	Pedro Antonio FONTE SALIDO	Polizia
278	1988-09-10	Martín MARTÍNEZ VELASCO	Polizia
279	1988-10-16	Julio GANGOSO OTERO	Guardia Zibila
280	1988-10-29	Cristóbal DÍAZ GARCÍA	Polizia
281	1988-12-18	José Antonio BARRACO RECIO	Polizia
282	1989-04-12	José CALVO DE LA HOZ	Guardia Zibila
283	1989-05-08	Juan Antonio GARCÍA ANDRÉS	Polizia
284	1989-05-08	José Antonio MONTES GILA	Polizia

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
285	1989-05-24	Manuel JÓDAR CABRERA	Polizia
286	1989-05-24	José María SÁNCHEZ GARCÍA	Polizia
287	1989-09-29	Juan Pedro GONZÁLEZ MANZANO	Polizia
288	1989-10-06	José Ángel ÁLVAREZ SUÁREZ	Polizia
289	1989-11-06	Eladio RODRÍGUEZ GARCÍA	Polizia
290	1990-01-30	José Ignacio PÉREZ ÁLVAREZ	Polizia
291	1990-04-04	Benjamín QUINTANO CARRERO	Guardia Zibila
292	1990-06-25	José Luis HERVÁS MAÑAS	Guardia Zibila
293	1990-09-02	José Manuel ALBA MORALES	Guardia Zibila
294	1990-11-18	José Francisco HERNÁNDEZ HERRERA	Polizia
295	1990-11-18	Daniel LÓPEZ TIZÓN	Polizia
296	1990-12-08	Ramón DÍAZ GARCÍA	Polizia
297	1990-12-08	Juan José ESCUDERO RUIZ	Polizia
298	1990-12-08	Juan GÓMEZ SALAR	Polizia
299	1990-12-08	Eduardo HIDALGO CARZO	Polizia
300	1990-12-08	Miguel MARCOS MARTÍNEZ	Polizia
301	1990-12-08	Francisco PÉREZ PÉREZ	Polizia
302	1990-12-14	Luis Alfredo ACHURRA CIANCA	Polizia
303	1991-03-16	Luis ARAGÓ GUILLÉN	Guardia Zibila
304	1991-04-08	José Manuel CRUZ MARTÍN	Polizia
305	1991-05-06	Francisco ROBLES FUENTES	Guardia Zibila
306	1991-05-09	Francisco ÁLVAREZ GÓMEZ	Guardia Zibila
307	1991-05-29	Juan CHINCOA ALÉS	Guardia Zibila
308	1991-05-29	Juan SALAS PIRIS	Guardia Zibila
309	1991-06-12	Valentín MARTÍN SÁNCHEZ	Polizia
310	1991-06-12	Andrés MUÑOZ PÉREZ	Polizia
311	1991-06-13	Ricardo COUSO RÍOS	Guardia Zibila
312	1991-07-01	Luis CLARACO LÓPEZ	Polizia
313	1991-07-01	Pedro DOMÍNGUEZ PÉREZ	Polizia
314	1991-07-01	José Luis JIMÉNEZ BARRERO	Polizia
315	1991-07-28	Carlos PÉREZ DACOSTA	Guardia Zibila

ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek jasandako injustiziar buruzko txostena (1960-2011)

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
316	1991-10-23	Eduardo SOBRINO GONZÁLEZ	Guardia Zibila
317	1991-10-23	Juan Carlos TRUJILLO GARCÍA	Guardia Zibila
318	1991-11-19	Pedro CARBONERO FERNÁNDEZ	Guardia Zibila
319	1991-12-13	Francisco Javier DELGADO GONZÁLEZ-NAVARRO	Polizia
320	1991-12-13	José Ángel GARRIDO MARTÍNEZ	Polizia
321	1991-01-14	José ANSEÁN CASTRO	Polizia
322	1992-02-10	Ángel GARCÍA RABADÁN	Polizia
323	1992-02-25	José SAN MARTÍN BRETÓN	Guardia Zibila
324	1992-03-19	Enrique MARTÍNEZ HERNÁNDEZ	Guardia Zibila
325	1992-04-23	Juan Manuel HELICES PATINO	Polizia
326	1992-08-17	José Manuel FERNÁNDEZ LOZANO	Guardia Zibila
327	1992-08-17	Juan Manuel MARTÍNEZ GIL	Guardia Zibila
328	1992-09-14	Ricardo GONZÁLEZ COLINO	Polizia
329	1992-11-30	Miguel MIRANDA PUERTAS	Guardia Zibila
330	1993-03-18	Emilio CASTILLO LÓPEZ DE LA FRANCA	Guardia Zibila
331	1993-09-16	Juvenal VILLAFANE GARCÍA	Guardia Zibila
332	1994-04-04	Fernando JIMÉNEZ PASCUAL	Guardia Zibila
333	1994-04-28	Benigno VILLALOBOS BLANCO	Guardia Zibila
334	1994-08-21	José SANTANA RAMOS	Polizia
335	1995-01-13	Rafael LEYVA LORO	Polizia
336	1995-01-13	Domingo DURÁN DÍAZ	Polizia
337	1995-04-19	Eduardo LÓPEZ MORENO	Polizia
338	1995-06-08	Enrique NIETO VIYELLA	Polizia
339	1997-02-17	Modesto RICO PASARÍN	Polizia
340	1997-04-24	Luis Andrés SAMPERIO SAÑUDO	Polizia
341	1997-05-03	José Manuel GARCÍA FERNÁNDEZ	Guardia Zibila
342	1997-09-05	Daniel VILLAR ENCISO	Polizia
343	1998-05-08	Alfonso PARADA ULLOA	Guardia Zibila
344	2000-08-20	Irene FERNÁNDEZ PERERA	Guardia Zibila
345	2000-08-20	José Ángel DE JESÚS ENCINAS	Guardia Zibila
346	2000-10-30	Jesús ESCUDERO GARCÍA	Polizia

Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
347	2001-07-10	Luis ORTÍZ DE LA ROSA	Polizia
348	2002-09-24	Juan Carlos BEIRO MONTES	Guardia Zibila
349	2002-12-17	Antonio MOLINA MARTÍN	Guardia Zibila
350	2003-05-30	Julián EMBID LUNA	Polizia
351	2003-05-30	Bonifacio MARTÍN HERNÁNDEZ	Polizia
352	2007-12-01	Raúl CENTENO BAYÓN	Guardia Zibila
353	2007-12-01	Fernando TRAPERO BLÁZQUEZ	Guardia Zibila
354	2008-05-14	Juan Manuel PIÑUEL VILLALÓN	Guardia Zibila
355	2009-06-19	Eduardo Antonio PUELLES GARCÍA	Polizia
356	2009-07-30	Carlos Enrique SÁENZ DE TEJADA GARCÍA	Guardia Zibila
357	2009-07-30	Diego SALVÁ LEZÁUN	Guardia Zibila

Iturria: Geuk egina honako hauek kontuan hartuta: Alonso, Domínguez eta García Rey (2010), López Romo (2014), eta Sánchez eta Simón (2021).

Foronda txosteneko datuen arabera, ETak 206 guardia zibil hil zituen eta 151 polizia nazional (aurreko kidegoetako kideak barne)<sup>11</sup>. Manuel Sánchez eta Manuela Simón-en lanean Guardia Zibilaren Informazio Burutzak dauzkan kopuruak agertzen dira (210 guardia zibil hilda), baina Sánchez eta Simónek kopuru horri lau gehitzen dizkiote: 214<sup>12</sup>. Horietatik 196 aktibo zeuden atentatua gertatu zenean eta 18 erreserban edo erretiratuta. Azterlan horretan bertan adierazten da ETak guardia zibilen 17 ahaide hil zituela; horietatik bi 17 urtetik beherakoak ziren eta beste 11 haurrak ziren.

Bigarren taulan ETak hildako beste bost pertsona ageri dira; atentatua gertatu aurretik guardia zibilak izan ziren, baina hil zituztenean beste lanbide batean ari ziren. Arakatu diren zerrenda batzuetan ez dira agertzen guardia zibilen artean eta beste batzuetan bai, baina inolako azalpenik gabe. Txosten honetan aritu garenok uste dugu ñabardura hau ezinbestekoa dela<sup>13</sup>.

11 López Romo, Raul; *Foronda txostena. Terrorismoaren testuinguru historikoak Euskal Herrian eta biktimekiko arreta soziala. 1968-2010*, op. cit., 170. or.

12 Sánchez, Manuel eta Simón, Manuela; *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*. Bartzelona: Ediciones Península, 2021, 1236. or.

13 Halaber, iritziak ez datoz bat Ramón Mayo García eta Juan Eserverri Chávarri buruz ere. Ramón Mayo García guardia zibila zen eta erreserba aktiboan zegoen. Anbulantzia batek harrapatu zuen Vic-eko kuartel-etxearen kontrako atentatuan zauritutako pertsonak artatzen laguntzen ari zela, 1991ko maiatzaren 29an. 2005ean terrorismoaren biktimatzat onartu zuen Ministroen Kontseiluak. Txosten hau egin dugunok uste dugu terrorismoaren biktima dela; hala ere, ez dugu zerrendan sartu, bertan ETak zuzenean hildako pertsonak bildu baititugu. Juan Eserverriren kasua dela-eta, ikus López Romo, Raúl; "Historia y memoria: las muertes de Juan Antonio Eserverri" *Grand Place*, 1 zk., 2014, 101-104 or.

## 2. Taula. *ETAk atentatuz hildako guardia zibil ohiak, atentatua gertatu zenean beste lanbide batean ari zirenak.*


Zk.	Atentatuaren eguna	Biktima	Kolektiboa
1	1978-12-13	Juan JIMÉNEZ GÓMEZ	Guardia zibil ohia Udaltzaina
2	1979-02-12	César PINILLA SANZ	Guardia zibil ohia Udaltzaina
3	1985-12-30	Alejandro SÁENZ SÁNCHEZ	Guardia zibil ohia Michelin enpresako zaintzaile burua
4	1991-01-11	Francisco DÍAZ DE CERIO GÓMEZ	Guardia zibil ohia UGTko kide aktiboa
5	1991-09-16	Francisco CEBRIÁN CABEZAS	Guardia zibil ohia Garabi-jabea

Iturria: Geuk egina honako hauek kontuan hartuta: Alonso, Domínguez eta García Rey (2010), López Romo (2014), Sánchez eta Simón (2021).

Hildako 357 pertsonetatik 207 guardia zibilak edo guardia zibil ohiak ziren (% 58) eta 150 Polizia Nazionaleko kideak (% 42). Horietatik, 268 Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean hil zituzten (% 75), 33 Madrilan (% 9,2), 27 Nafarroako Foru Komunitatean (% 7,6), 14 Bartzelonan (% 3,9), 5 Aragoiko Komunitatean (% 1,4), bi Palma Mallorcakoan (% 0,6), bi Errioxan (% 0,6), bat Murtzian (% 0,3) eta beste bat Gaztela-Mantxan (% 0,3). Gainera, lau Frantziako lurraldean hil zituzten: bi polizia-inspektore Hendaian eta bi guardia zibil Capbreton-en. 2. grafikoan biktima-kopuruak atentatua gertatu zen probintziaren arabera multzokatu dira.


---

1. Grafikoa. *ETAren ekintzetan hildako guardia zibilak eta polizia nazionalak.*



Iturria: Geuk egina honako hauek kontuan hartuta: Alonso, Domínguez eta García Rey (2010), López Romo (2014), Sánchez eta Simón (2021).

2. Grafikoa. *ETAren ekintzetan hildako guardia zibilak eta polizia nazionalak, atentatua gertatu zen lekua arabera.*




Iturria: Geuk egina honako hauek kontuan hartuta: Alonso, Domínguez eta García Rey (2010), López Romo (2014), Sánchez eta Simón (2021).

Euskadin, ETAk 159 guardia zibil hil zituen (ia % 77) eta 109 polizia nazional (% 73.). ETAk atentatuetan hil zituen pertsonen ia erdiak Gipuzkoan hil ziren (% 48); Bizkaian hil zirenak % 24 izan ziren eta Madrilen hildakoak % 19. Guardia Zibilak izan zituen hamar heriotzetatik bederatzi hiru probintzia horietan gertatu ziren.

Polizia Nazionalari dagokionez, hildakoen heren bat (100 pertsona) Bizkaian egindako atentatuetan hil ziren, % 30 (45 pertsona) Gipuzkoan egindako atentatuetan eta % 9 Araban egindakoetan. ETAk hil zituen polizia nazionaletan, lautik hiru Euskal Autonomia Erkidegoan egindako atentatuetan hil ziren. Aztergai diren bi kidegoetako kideak hil zituzten atentatuak non gertatu ziren zehatzago jakiteko, jarraian ageri diren 3. eta 4. grafikoak kontsulta daitezke.


### 3. Grafikoa. *ETAren ekintzetan hildako guardia zibilak, atentatua gertatu zen lekuaren arabera.*



Iturria: Geuk egina honako hauek kontuan hartuta: Alonso, Domínguez eta García Rey (2010), López Romo (2014), Sánchez eta Simón (2021).

---

#### 4. Grafikoa. *ETAren ekintzetan hildako polizia nazionalak, atentatua gertatu zen lekuaren arabera.*




Iturria: Geuk egina honako hauek kontuan hartuta: Alonso, Dominguez eta García Rey (2010), López Romo (2014), eta Sánchez eta Simón (2021).

ETAren ekintza terroristetan zauriak jasan zituzten Guardia Zibileko eta Polizia Nazionalako kideez denaz bezainbatean, ASISTER DATU-BASEAREN ARABERA 711 izan ziren. Horietatik % 43k lesioak izan zituzten. Halaber, zaurien ondorioz ezintasun iraunkor osoa izan zutenak ere % 43 izan ziren. % 10i erabateko ezintasun iraunkorra onartu zitzaizkien atentatuaren ondoren, % 2ri baliaezintasun handia, % 1i aldi baterako elbarritasuna eta % 1i elbarritasun partziala.



## 5. Grafikoa. *ETAren ekintzetan zauritutako guardia zibilak eta polizia nazionalak.*




Iturria: Geuk egina Asister datu-basetik hartutako informazioaz baliatuz (2021eko uztaila).

ETAren atentatueta zauritu ziren guardia zibilen % 48ri ezintasun iraunkor osoa onartu zitzaion, % 40ri lesioak, % 9ri erabateko ezintasun iraunkorra eta % 11 baliatzen ezintasun handia; % 1ek aldi baterako ezintasuna izan zuen eta % 1ek ezintasun iraunkor partziala.

---


## 6. Grafikoa. *ETAREN ekintzetan zauritutako guardia zibilak.*



Iturria: Geuk egina Asister datu-basetik hartutako informazioaz baliatuz (2021eko uztaila).

ETAREN atentatuetan zauritutako polizia nazionaleri dagokienez, ia erdiak (% 49) lesioak izan zituzten, heren batek (% 33) ezintasun iraunkor osoa izan zuten, % 10ek erabateko ezintasun iraunkorra izan zuten, % 4k baliaezintasun handia, % 2k ezintasun iraunkor partziala eta % 2k aldi baterako ezintasuna izan zuten zaurien ondorioz.

## 7. Grafikoa. *ETAREN ekintzetan zauritutako poliziak*<sup>14</sup>.



Iturria: Geuk egina Asister datu-basetik hartutako informazioaz baliatuz (2021eko uztaila).

---

<sup>14</sup> Grafiko honetan sartzen dira bai Polizia Nazionaleko kideak bai horren aurreko polizia-kidegoetako kideak.

---

### 3.2. Datu kualitatiboaren azterketa.

Txostenaren hasieran azaldu den bezala, metodologia mistoa erabili da aztertutako gaia lantzeko. Datu kuantitatiboak aztertzeaz gainera, xehetasunekin azaldu nahi izan ditugu aztertutako aldiko Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideen eta beren ahaideen bizipenak. Horretarako, erdi-egituratutako elkarrizketak egin ditugu. Hain zuzen ere, 1960 eta 2011 bitartean Euskadiko lurralde-eremuan lan egin zuten Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko agenteak eta beren ahaideak elkarrizketatu ditugu. Ikuspegi kualitatiboaren bidez sakonago aztertu nahi izan dira bizi izan duten esperientzia eta jasan duten sufrimenduaren alderdi subjektiboak, datu kuantitatiboek ez baitu horren berri ematen. Datu kualitatiboek esker, aldi horretan mehatxu terroristaren ondorioz jasandako erasoaren bidez urratutako eskubideen benetako egoera azter dezakegu.

Hamalau pertsona elkarrizketatu genituen erdi-egituratutako galdeketa baten bidez. Horrela, elkarrizketa gai komun batzuen inguruan antolatu zen, baina elkarrizketatuen erantzunak mugatu gabe, beren lekukotza nahi bezala eman ahal izan zezaten. Azterlan hau egiten lagun diguten pertsona batzuek esan ziguten nahiago zutela beren izen-abizenak aipatzen ez bagenituen, isilpean egon nahi zutela-eta. Zehatz-mehatz egin diogu men beren borondateari. Horregatik, erabaki dugu agertzen diren lekukotzak elkarrizketatuaren profil generikoaren bidez identifikatzea, eta, irizpide-batasunari eusteko, gauza bera egin dugu izena plazaratzeko inolako eragozpenik ez dutela esan duten pertsonen lekukotzekin ere. Uste dugu horrela lortuko dela arreta handiagoa jartzea lekukotzaren edukian lekukoaren nortasunean baino. Kasuren batean isilpean egon nahi zuen pertsonak esandakoa zertxobait aldatu behar izan dugu aipamen geografiko edo pertsonal batzuk ezabatzeke, nor den salatzen zuten eta.

Azterlan honetan, beren borondatez eta eskuzabaltasun handiarekin, parte hartu dutenei eskatu zaie kontu ditzatela beren bizipenak gogoratzen eta sentitzen dituzten bezala. Beraz, hausnarketarako adierazitakoa beren ikuspegitik kontatu digute; ariketa subjektiboa da. “Gogoratzen saiatzeko” prozesuan “historia egiten” laguntzen dugu, hau da, kontakizun kolektiboa ezartzen. Etxebarria Mauleonek laburbildu zuen moduan, *“biktimen testigantza espazio publikoan adierazitako memoria gisa ikusi behar da, herritarrek entzuteko egindakoa, edo erabilera desberdinetarako agiri-artxibo ireki bihurtzeko, edo prozesu judizial baterako frogagiri bihurtzeko”*, edo bake-hezkuntzako prozesuetan erabiltzeko<sup>15</sup>. Lan honen helburua izan da gure laguntzaileek kontatutako gertaeretan izan diren eskubide-urraketak hautematea, hurrengo kapituluan aztertzeko.

Bildutako informazioa gaikako zenbait bloketan sistematizatu da, eta bloke horietan elkarrizketetan adierazitako ideia eta bizipen nagusiak jaso dira.

---

15 Etxebarria, Xabier; *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*, Bilbo: Bakeaz, 2007, 60-61 or.

- 3.2.1. Euskadi, destino zaila ESIKentzat ETaren mehatxuarengatik.
- 3.2.2. Ia erabateko bakartasuna eta eragozpenak familia-harremanei eta gizarte-harremanei eusteko.
- 3.2.3. Atentatua jasatea. Bizitza osoa instant batean aldatzen denean.
- 3.2.4. Bizitza hondatuta. Ondorio fisikoak eta emozionalak.
- 3.2.5. Abandonua. Erakundeen eta gizartearen babesik ez dagoelako sentazioa.
- 3.2.6. Terrorismoaren biktimen papera eta memoria kolektiboaren eraikuntza.

Jarraiko taulan azterketa kualitatibo honetarako lekukotza eman zuten pertsonak zerrendatu eta identifikatu dira.

ELKARLANA	IZAERA	SEXUA	DESTINOA	IDENTIFIKATZAILEA
1. elkarrizketatua	Guardia zibilaren semea	Gizonezkoa	Bizkaia	E1
2. elkarrizketatua	Guardia zibilaren alaba Atentatua jasan zuen	Emakumezkoa	Araba	E2
3. elkarrizketatua	Guardia zibila	Gizonezkoa	Bizkaia	E3
4. elkarrizketatua	Hildako guardia zibilaren alaba	Emakumezkoa	Gipuzkoa	E4
5. elkarrizketatua	Bizkartzaina	Gizonezkoa	Gipuzkoa	E5
6. elkarrizketatua	Polizia nazionalaren alaba	Emakumezkoa	Bizkaia	E6
7. elkarrizketatua	Polizia nazionala	Gizonezkoa	Gipuzkoa	E7
8. elkarrizketatua	Guardia zibila	Gizonezkoa	Gipuzkoa	E8
9. elkarrizketatua	Hildako guardia zibilaren alaba	Emakumezkoa	Gipuzkoa	E9
10. elkarrizketatua	Guardia zibila	Gizonezkoa	Bizkaia	E10
11. elkarrizketatua	Guardia Zibila	Gizonezkoa	Zenbait toki	E11
12. elkarrizketatua	Polizia nazionalaren alaba	Emakumezkoa	Gipuzkoa	E12
13. elkarrizketatua	Guardia zibilaren alaba	Emakumezkoa	Gipuzkoa	E13
14. elkarrizketatua	Guardia Zibila	Gizonezkoa	Bizkaia/ Araba	E14

- 3.2.1. Euskadi, destino zaila ESIKentzat ETaren mehatxuarengatik.

Hasieran elkarrizketatuari eskatzen genion azaltzeko nolakoa zen bere egoera pertsonala, zergatik amaitu zuen lanean Euskadin. Ez zen destino erraza, eta askok ez zuten nahi bertara, mehatxu terrorista ezaguna baitzen, eta egunean baino egunean

nabariagoa, gainera. Errealitatea mingarria zen eta argiro islatu da elkarriketatuen lekukotzetan hitz egiten hasi orduko.

*Guardia zibil guztiak ETAren eta inguruko lehentasuneko jomugan geunden. Terroristek ez zuten behar zuzeneko baimenik Guardia Zibileko, Polizia Nazionaleko eta Armadako kideen kontra jotzeko; beraz, atentatu-mehatxupean bizi ginen egun osoan, batez ere Euskadin eta Nafarroan. (E11)*

*Guardia Gazteen Ikastetxetik guardi zibil izendatuta irten ondoren Asturiasko herri batera bidali ninduten. Handik urte eta erdira edo Bilbora bidali ninduten, nahitaez; hamahiru hilabete pasatu nituen bertan... Bilbon egon nintzen urtean ez nuen jasan atentatu terroristarik. Herstura handiarekin bizi ginen eta Euskadiko zenbait tokitan hildako lankide eta adiskideen hiletetan izan nintzen. Aldi hartan, bakanak ziren zenbait gertatzen ez zen egunak. 1984tik 1985era arte egon nintzen Bilbon. Areetan egiten nuen lan, kuartela babesten eta itsadarreko eskuinaldea zaintzen, Deustuko ubidetik Areetako hondartzaraino. Zerbitzuak kaleko jantzita (uniformerik gabe) eta norberaren autoan egiten genituen. (E14)*

Lekukotzen arabera, Euskadin destinaturik amaitzeko arrazoiak denetarikoak izan ziren. Kidegotik zerbitzu publikoan aritzeko bokazioa, terrorismoaren aurka borrokatzeko gogoia edo, kasu batzuetan, merezimenduak biltzea norberaren sorterritik gertuagoko destinoa hautatu ahal izateko. Nolanahi ere, arrazoiak gorabehera, denak ohartu ziren azkar asko egoera latz bati aurre egin beharko ziotela.

*17 urterekin bizitza militarri lotu nintzaion, eta geroago, 22 urterekin, Guardia Zibilean sartu nintzen bokazioz. Ilusioz gainezka nengoen, 20 egun besterik ez baini-tuen egin Guardia Zibilean, atentatua jasan nuenean. Hala ere, hark ez zidan bizitza kendu, baina ondorio fisikoek bizitza baldintzatu zidaten. Guardia Zibilarekin dudak lotura bokaziozkoa da erabat. Guardia Zibilera oposizioetara aurkeztu aurretik argi neukan ETAren eta beraren inguruko aurka borrokatu nahi nuela, gure herrialdeko gizartearen etsairik gaiztoena baitzen, bai eta Guardia Zibilarena ere, noski. Nortasunez, izaeraz eta abar, Guardia Zibileko bi unitate berezietako batean sartu nahi nuen. Guardia Zibilean sartu ondoren barne-oposizioa egin nuen GARen sartzeko (lehen Grupo Antiterrorista Rural zena eta gaur egun Grupo de Acción Rápida). Unitate hau ETAren eta beraren inguruko kontra borrokatzeko eratu eta sortu zen 1978. urtean. Trebakuntza berezietako ikastaroa egin nuen eta gero, faseak gainditu ondoren, 1999. urtean Unitatean sartu nintzen. Zerbitzuen ia % 100 Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan egiten ziren. (E11)*

*Tradizio militarreko familia batekoa naiz... birraitonak, aitonak, aita, osabak, anaia, denak militarrik, denak armadan... 16 urterekin sartu nintzen armadan, baina ofizialordeen akademian ari nintzela ohartu nintzen hura ez zela nahi nuena. Ez nuen nahi izan garai hartako ohiko kuarteleko militarra, eta erabaki nuen ibilbidea aldatzea eta Guardia Zibilera jotzea; izan ere, kidego ia militarra da, baina hurbilago zegoen nik nahi nuenetik, bila ari nintzenetik, eta, hala, 18 urte nituela, norabidea aldatu eta Guardia Zibilaren akademian sartu nintzen (...) Euskadira zergatik joan nintzen... zortea izan nuen eta promozio-zenbaki oso ona lortu nuen, eta ia beste edozein destino hautatu ahal nuen, baina, ez dakit gaztetasunagatik edo gero jaioterrira, Malagara, itzultzeko gogoagatik, Bilbo, Donostia eta Gasteiz eskatu nituen destinetzat, hurrenkera horretan. Azkenean Bizkaira destinatu ninduten, eta handik sei hilabetera lanpostu bat hutsik gelditu zen Basauriko informazio-zerbitzuan; eskatu nuen eta eman zidaten. Galdakaon bizi nintzen, orduan ohi zen bezala (...). Galdakaoko kuartela mendi-zulo*

---

*batean dago. Kuartelaren kokapena hautatu zuenak ederra egin zuen: han ez zegoen inolako segurtasun-neurririk. (E10)*

*Nik bokazioa eduki dut... Administrari aritu nintzen lanean, baina bulego-lana, bada ez, ez nuen neure burua horretan ikusten. Eta, orduan, Polizia Nazionalerako oposizioetara aurkeztu nintzen, eta gainditu egin nuen; gero akademian apuntatu nintzen, praktikak Tarragonan egin nituen. Tarragonan akademia bat dago. Gero Donostiara bidali ninduten. Orduan, 24 urte edo nituela, gaztea nintzen eta gauzak beste era batera ikusten nituen, eta ez nuen pentsatzen inoiz ezer pasatuko zitzaidanik. (E7)*

*Euskadira bidali ninduten 1989an. Eta bertan izan nintzen 1991ra arte. Bilboko komandantzia nuen destinoa. Nire promozioa nahitaez igo behar zuten Guardia Zibilararen promozio haietakoa izan zen; nik neure borondatez eskatu nuen joatea, Euskadin nahitaez egon behar nuen urtea ahalik azkarren hasteko... azkenean ia 3 urte egon nintzen. Hasieran Bilboko zerbitzugunean eduki nuen destinoa, Bilboko komandantziaren zerbitzugunean, La Salven. Luze gabe lehergailu-txakurren gidaria izateko ikastaroa antolatu zen, eta egin nuen; hari esker lehergailuak detektatzen dituzten txakurren gidari aritu nintzen Bilboko G taldean. Lehergailuak detektatzen dituzten txakurren gidaria izan nintzen, eta bertan izan nituen lehen harremanak ETArekin, nolabait esateko. (E3)*

*1980ko irailean sartu nintzen akademian. Ubedan egin genuen. 1981eko otsailera arte egon nintzen. Madrilera etorri nintzen eta Plaza de Castellako epaitegietan eman zidaten destinoa. Hantxe izan nuen neure lehen esperientzia, ikasi eta beste, atxilotuak igozten. 12 orduko txandaka egiten genuen lan. 15 egunetik behin hartzen genuen atsedeen. Gero, beti izan naizenez geldiezin, edo ipurterrea, esaten den bezala, bada, guardia-promozio bakoitzean, urtebetera edo urtebete pasata, lehen ehun guardiak edo ehunetik gora, nahitaez joan behar izaten zuten... Ni, ipurterrea izanik, boluntario joan nintzen. Nengoen tokian aspertu egiten nintzen, 12 ordu jarraian lanean, eta boluntario joan nintzen. Hilabete eman genuen trebakuntzan, "ikastola" esaten zioten: ahalik gehien ikasten zenuen euskal probintzietan moldatu ahal izateko. Donostiara bidali ninduten. (E8)*

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideen ahaide batzuek ere lagundu dute txosten hau egiten. Pertsona horietako batzuk Euskadin jaio ziren, gurasoak bertan lanean ari zirela, edo oso gazterik iritsi ziren. Beren familiaren historia kontatu digute. Kasuren batean, gurasoak aspaldi zeuden errotuta Euskadin eta bertan ezarria zuten ohiko bizilekua.

*Aita Pasaiako portuan destinatuta egon zen; lehen destinoa Behobian eduki zuen, Espainia eta Frantziaren arteko mugan. Aitaren lehen destinoa Euskadi izan zen eta bertan gelditzea erabaki zuen. Izan ere, atentatua izan zenean, 22 urte zeramatzan bertan bizitzen. (E9)*

*Urte eta erdi nuela, Irunera bidali gintuzten, Gipuzkoara. Aita sarjentua zen eta mailaz igo zutenean bertan gelditu zen; beraz, harrezkero ez ginen Irunetik inora joan. Mailaz maila gora egin zuen eta postuko komandantea zen beti. Kapitaina zela, erreserbara pasatu zen komandantearen graduarekin. Irunen bizi ginen, baina ni kanpora joaten nintzen ikastera; joan-etorrian ibiltzen nintzen, baina Irunen bizi nintzen (...) Beraz, gurasoek laguntzen zuten eta parte hartzen zuten, eta oso pozik zeuden herri honetan, eta gu bertara joaten ginen eta haiekin egoten ginen eta asteburuak bertan ematen genituen; bizitza oso familiarra egiten genuen. (E4)*

*Aita guardia zibila zen; 1979an irten zen, eta garai hartan oso aztoratuta zegoen giroa, jakina. Aitaren lehen destinoa Sestao izan zen. Aitak ahalegin handiak egin zituen nota ona lortzeko, uste baitzen promozioan notarik hoberenak lortzen zituztenek (aita 13.a izan zen) destinorik hoberenak hautatu ahal izango zituztela, baina promozio hartan irizpidea aldatu zen eta esan zuten notarik hoberenak zituztenak ondoen prestatuak zirela, ustez, eta azkenean iparrera joan behar izan zuen, Sestaora hain zuzen ere. Bilboko portuan aritu zen, arlo fiskalean. (E1)*

### 3.2.2. Ia erabateko bakartasuna eta eragozpenak familia-harremanei eta gizarte-harremanei eusteko.

Elkarrizketetan behin berriz azaldu zen guztiz beharrezkoa zela Euskadin destinatuta zeuden ESIKetako kideek beren burua babesteko errutinak etengabe mantentzea. Izan ere, Euskadi ez zen besteak bezalako destinoa, zeren eta norberaren burua babesteko prebentzio-neurriak, lanean ezinbestekoak direnak, egun osora zabaldu behar baitziren, are elkarbizitza-aldietara ere. Horregatik, sarritan herritarrekin ez zegoen inolako harremanik; are gehiago, hesia sortu behar izan zen intimitatea babesteko eta agenteen nortasuna isilpean mantentzeko. Horren ondorioz beste destinoetan izaten ez zen bakartasun fisiko eta emozionala gertatzen zen. Lekukotza batzuetan azpimarratzen denez, bakartasuna agenteentzat oso gogorra bazen ere, zuzeneko ahaideentzat, batez ere ezkontideentzat, oso jasangaitza zen, eta egoera are gehiago gaizkitzen zuen ESIKetako kide batekiko ahaidetasunaren berri edukitzen zuten auzokoen arbuioak.

*Kuarteletik kanpora, ez zegoen modurik adiskiderik edukitzeko. Ezinezkoa. Batzuekin izaten genituen nolabaiteko harremanak, gaueko ostalaritzakoekin batez ere; haiek jakiten zuten guardia zibilak ginela, baina informazio-zerbitzukoak ginenez (kaleko jantzita ibiltzen ginen eta ez genuen ohiko guardia zibilen itxurarik), ausartu egiten ziren eta hurbildu egiten zitzaizkigun. Baina hortik aurrera, bertakoekin kontaktu gehiago edukitzea erabat ezinezkoa zen, eta lagunak egitea are zailagoa. Lankideekin eta ahaideren bat edo besterekin baino ez genituen izaten harremanak... Arazoa larriagoa zen ahaideentzat guretzat baino; guk hain egiten genuen ordu asko lanean, ezen ez baikeen astirik ere edukitzen harreman sozialen falta sentitzeko. Arazorik larriena ahaidetek zuten, batez ere emazteek, erosketak egitera joaten ziren bakoitzean gizartearen gaitzespena jasan behar izaten zuten eta. Denda batean sartu erosteko asmoarekin, eta guardia zibilaren emaztea dela konturatu orduko azkena zen ilaran edo ez zioten kasurik egiten edo beste denda batera joan behar izaten zuen erostera. (E10)*

*Ni pisu batean bizi nintzen bi lankiderekin. Kontuz ibiltzen ginen: esaterako, arropak ez genituen leihotik hurbil esekitzen, inork uniformeko ikurra ez ikusteko. Eraikinean ez gintuen inork ezagutzen; ezkutuan bezala ibili behar izaten genuen. Inorekin batzen ginenean, gezurretan aritu behar izaten genuen. Egia esan, hemen polizia ospe txarra zuten. Dena den, nortasun-agiriaren bulegoetan hasi ginenean lanean, hor agerian izaten nintzen, noski, ezaguna nintzen, azkenean denak pasatzen baitziren bertatik. (E7)*

*Urte haietan ez zegoen harremanik euskal herritarrekin. Kuartelean egoten ginen, giltzapean, edo ni bai behintzat. Bilbok gauza on bat zuen, nolabait esateko: hilean 3 aste ematen zenituen lanean, eta gero astebete libre edukitzen genuen eta alde egin zenezakeen. Kontuan eduki behar da ordura arte Guardia Zibilean urtean 3 edo 4 opor-egun baino ez zirela egoten. Astean ez zegoen egun bat ez bi libre; orduan, Guardia Zibilean ez zegoen egun librerik, nolabait esateko. Hiru aste lan egin ondoren astebete libre edukitzea itzela zen, nolabait esateko. Zer zen arazoa? Bada, giltzapean egoten ginela,*

---

*baina geure borondatez, e?, kuardelean, nire kasuan La Salven. Gutxitan irteten ginen; bertan barruan jan, lo eta bizi. Beraz, zerbitzua egiten zenuen, eta gero itxaron baino ez alde egiteko eguna iritsi arte. (E3)*

*Euskadira bidali ninduten, erreserbara, Donostiara, erreserbako unitatera Guk guardiak egiten genituen Intxaurrendoko kuartel osoan. Eta manifestazioak egiten zirenean, kanpora irteten ginen, bildutakoak sakabanatzera. Bada, lehenengo aurkitu nuena Intxaurrendoa auzoa izan zen, jende urriko auzoa, eta kuartela autobiaren ondoan, kuartel nahiko handia. Hango batzuek Pasaian egiten zuten lan eta beste batzuek bertan egiten genituen guardiak, 12 orduko txandetan. Iritsi eta hilabetera edo, martxoan, lehen atentatua gertatu zen, eta oso gertu izan zen: lankide bat hil zuten Donostian. Ohorezko guardia egitea egokitu zitzaigun, eta zerraldoa lepogainean eramane genuen ibilgailura. Egiaz diotsut, gogorra da. Irudia oroimean iltzatuta daukat. (E8)*

Gurasoak Euskadin lanean ari zirela artean oso gazteak ziren ahaide batzuen lekukotzak ere bildu ditugu. Hain gazteak izanik, deigarria da nola berenganatu zituzten beren burua babesteko errutinak eta nola sartu zituzten eguneroko bizitzan. Nolanahi ere, ongi zekiten bizi ziren egoera ez zela normala.

*Aitak esaten didanaren arabera, Bizkaiko zenbait herritan bizi izan ginen. Aitak La Salveko kuardelean egiten zuen lan. (...) Autoa hartzen zuzenean, ez zen inoiz ibilbide beretik joaten ez ordu berean, oso ezagunak ginen eta. Aita oso ondo moldatu da mundu guztiarekin, oso ezaguna zen. Esaterako, taberna batean sartzenean, barru-barrura joaten zen beti, eta atera begira egoten zen, zer gertatuko ere. Beste gauza bat ere badut gogoan: arma aldean zuen beti; izan ere, ezin zenuen irten armarik gabe, badaezpada. Gero, gogoan dut nola, txikia nintzela, mehatxu bat egin zen, ETAk segurtasuneko indarretako kideen ahaideak mehatxatu zituen. Etxean, ahizpa eta biok oso babestuta egon gara beti. Gogoratzen dut jolasean ibiltzen ginenean ahaideak eta lagunak etxetik urruntzen zirela eta amak niri ez zidala uzten. Ni haserretu eta amorratu egiten nintzen, ez nuen ulertzen. Orain badakit gure segurtasunagatik zela, beldur zelako bahituko gintuzten edo ez dakit nik zer. (E6)*

*1983, denok dakigun bezala, berun-urte haietakoa izan zen; urte oso gogorak izan ziren. Gu Errenterian bizi ginen. Eguneroko-eguneroko atentatuen berri entzuten genuen... aitaren lankide bat hil zutela; beste bat, aitak ezagutzen ez zuena, hil zutela. Eguneroko kontua zen: egun guztietan egoten ziren atentatuak eta egun guztietan egoten ziren heriotzak. Berun-urteak izan ziren. Aita ez zen inoiz beldurtia izan. Esango nuke nahiko lasaia zela, alde egiteko aukera eduki zuen eta. Nolanahi ere, oso errotuta zegoen: bost neba-arrebetatik azken hirurok hemen jaio ginen. Bera oso gustura zegoen eta beste destino batera ez joatea erabaki zuen. Dena dela, han izan zen urte guztietan hauxe esaten zigun: "ezin duzue esan guardia zibila naizela, bestela zerbait oso larria gertatu ahal zait eta". Ni izututa bizi nintzen; hau da, inork ere ezin zuen aita zer zen, bestela hil egin zezaketan eta. (E9)*

*Kodeak dauzkazu. Autoa piztean aitak 200 edo 300 metro urruntzeko esaten zidan, ezer gertatzen bazen hurbil ez egoteko. Hori oso gogorra da, gero. Adibidez, Galerías Preciadosetik irten eta aitak esatea "tira, umeak, zoazte beste aldera eta laster batuko zaituztet". Aitak auto-azpiak arakatu behar izaten zituen eguneroko; horrelako gauzak normalizat jotzen dituzu behin normalizatuz gero, baina ez dira normalak. Ez da normala larritasun horrekin bizitzea, beti pentsatzen hurrengo izango ote naiz?, ba ote dute informazio nahi nitaz hurrengo ni izateko? Izan ere, Gasteizen egon zen guardia bat, erregistroetako*



*batean ez zuena jakin beraren atzetik ari zirela, eta gizon hura mapatik desagertu zen. Horrekin esan nahi dut guri ere gauza bera gertatu ahal zitzaigula. (E2)*

*Nire bizipena amaren eskutik heldu zen, eta aitak esanda ere bai. Hango giroa zaila zen; igo zenean aita beldurtuta zegoen, argi baitzeukan ez zela destino lasaia. Orduan, neurri batzuk hartu behar izan zituen, bizarra hazten utzi behar izan zuen, zertxobait disimulatzeko edo. Horrez gainera, eguneroko segurtasun-neurriak zeuden: lanetik zertorenean, autoa ez zuen inoiz leku berean aparkatzen, badakizu, segurtasun-neurriak aplikatzen saiatzen ginen, autoaren azpian begiratu, amak ezin zuen arropa terrazan eseki, zeren... guardia zibilaren zerbitzu-jantziak eta, ezinezkoa zen. Arropa etxe barruan eseki behar izaten zuen; hala zen. Gurasoek egindako komentarioetatik eta kontatu dizkidaten bizipenetatik, han denetarik zegoen. Jakina, auzokoek bazekiten zertan egiten zuen lan aitak... Ama, etxe batean aritu zen lanean, ugazabandrea artatzen, etxea apur bat txukuntzen eta hala. Esan zidan andrea oso atsegina zela eta ongi moldatzen zirela. Kontua da harremanak izaten zituzten pertsona haiek, nolabait onartu edo egiten zituztenak, beldur izaten zirela gero jendaurrean hitz egiteko. Auzoan bazegoen emakume bat amarekin beti hitz egiten zuena atarian, pribatuan, luze eta atseginez, baina behin Bilbon egin zuten topo, plaza batean, kalean, eta ama harrituta gelditu zen, auzokoak ez ikusi egin baitzuen. Elkar ikusi zuten eta elkarri begira gelditu ziren, baina auzoko emakumea ez zen hurbildu agur egitera, eta amari apur bat arraroa begitandu zitzaion, baina gero ohartu zen beldurtuta zegoela, herritar asko beldur zirela guardia zibil baten emaztearekin edo norberaren ideologikoa ez zen pertsona batekin harremanak izateko. (E1)*

Aspaldiko kontuak izan arren, umetako bizipenak, artean oso txikiak zirela aita galtzea, oraindik ageri-agerian daude elkarrizketatu batzuek beren lekukotzan urte haietako oroitzapenak azaltzen dituztenean.

*Aitari bizia ostu zioten. Oso bizizalea zen, eta huts izugarria utzi zigun. Terrorismoaren aurkako Unitateko inspektore burua zen, eta gerora jakin genuen heriotza-mehatxuak jaso zituela, baina segurtasun handiaren itxura ematen zuen. Ez zuen nahi izan eduki bizkartzainik. Familia Asturiasen bizi ginen, eta ez zuen nahi izan Donostiara joan gintzen. (E12)*

*Aita hil zuten egunean, 1982ko otsailean, alaba txikiak zazpi hilabete egin zituen. Berak bazekien fitxatuta zegoela. Ez zuen sekula ibilbide bera egiten, eta etxebizitzarekin ere zuhur ibiltzen zen eta aldatu egiten zuen. Beldurtuta bizi zen, argi dago. Aitak ez zeukan adiskiderik, inork ezin zuelako jakin non ari zen lanean. Taberna batera joaten zenean, ateari begira esertzen zen; ez zion sekula bizkarra ematen ateari. Ia ezin zuen hitz ere egin, azentuagatik azkar asko igartzen baitzuten nongoa zen. Pasaiako portuan egiten zuen lan, eta ez zuen uniformea soinean erabiltzen. Hala ere, terroristak etxeko atean egon ziren zain. (E13)*

Ahaideak ez ziren beti joaten agentearekin destinora, batzuetan erabakia elkarrekin hartuta, beste batzuetan adorerik ez zutelako jasan behar ziren mugak eta nekeak zirela-eta. Hala ere, urrun bizi arren, ondorio emozionalak agerikoak ziren. Hain zuzen ere, azken bi lekukotzek azaltzen dute nolako ondorioak zituen egoera honek familia-bizitzan, urrun egonik ere.

*Ezkondu herritan bidali ninduten Euskadira; nire emazte ohiak ez zuen nahi izan etorri, ikaratuta zegoen. Hiru hilen buruan bananduta geunden. Kuartel-etxean bizi nintzen, gela batean beste lau lankiderek; guztira hogeita hamarren bat izango ginen. Batzuk kuarteletik kanpo bizi ziren, ondoko kalean. Etxe zaharra zen eta gaizki ze-*

---

*goen. Eguneroko bizimodua jasanezina zen. Gazteak ginen eta eusten genion; bizitza hala moduzkoa zen. Hogeita bost egun jarraian egiten genuen lan, eta ondoren bost egun libre edukitzen genituen eta kalbario hartatik irten ahal izaten genuen. Eguneko lan-saioa zortzi ordukoa zen; amaiezinak egiten zitzaizkigun. Ahal genituen segurtasun-neurri guztiak hartzen genituen. Autoan sartu baino lehen giltzak lurrera botatzen genituen azpian lehergailurik bat ote zegoen begiratzeko; kontrolagailuak ipintzen genituen autoa urrunetik mugitzeko barruan sartu gabe; Bilboko matrikula-plakak edukitzen genituen, Oriedokoa edo Espainiako beste probintzia batzuetakoak nabarmenak zirelako. Kuartelek kanpo ez genuen ezer egiten, espetxean bezala egoten ginen; sukaldaria geneukan, destinoa bestei janaria prestatzea zuen lankidea... Aldi hartan ezin genuen esan guardia zibilak ginenik, gaitzetsi egiten gintuzten, lanerako baizik ez ginen bizi, ez genuen nahi besterik hogeita bost egunak azkar joatea baino etxekoak ikusten joateko. Ez genuen ezerekin ere gozatzen. (E14)*

*Nire familia (ama alarguna) eta anai-arrebak Salamancan bizi ziren orduan. Atentatuak nolabait eragin zien, nahiz eta probintzia hauetan inoiz ez bizi. Izan ere, ETArekin eta haren ingurukoekin eduki zuten erlazio bakarra nire kontrako atentatua izan zen, edo egunkarietako izenburuak, ia asteroko kontua, eta hortik aurrera nire lanbidea, oso gutxitan azaltzen niena, edo inoiz ez. Anaiek bazekiten nolakoa zen nire lana benetan, baina urte batzuk geroago arte amak ez zuen jakin espezialitate honetan ari nintzela, eta ordurako ETak eta ingurukoek ez zuten atentaturik egiten... ez bainuen nahi nire beldurrarekin bizitzea. (E11)*

### 3.2.3. Atentatua jasatea. Bizitza osoa istant batean aldatzen denean.

Nahiz eta ESIKetako kideak gorputzez eta gogoz ongi prestatu egon, bildu ditugun lekukotzek argi erakusten dute nola astintzen duten atentatu terroristek gizakion bizitza. Atentatu zaharrenen inguruko lekukotzetan adierazten da azpiegiturek eta babes-ekipoak ez zirela gaur egun bezain egokiak atentatu terroristak saihesteko edo jasateko.

*Goizetan NANak eta pasaporteak ematen diren bulegora joaten nintzen. Han beti egoten ziren errenkadak eta jende-pilaketak. Eraikina bi solairukoa zen. Nik goikoan lan egiten nuen. Hango bulegoak handiak ziren eta bi sarrera-ate zeuden. Ate batetik, atzealdean nuenetik, pertsona bat sartu zen eta bi tiro egin zituen pistola batez, oinetara apuntatuta; ez zidan niri egin tiro, baizik eta nik adierazten nuenari, uniformeari. Bi tiro bota zituen: bata hemendik sartu zitzaidan eta bestea hemendik (zerbikalak eta bizkarraldea seinlatu ditu). Lurrera erori nintzen... Odola borborka galtzen ari nintzen eta suspertzeko ohatila batean ipini ninduten. (E7)*

*Gure zerbitzua han oso zaila zen. Jakina, arduratan geunden beti zer gertatuko. Zenbait atentatu-saio bizi izan nituen, eta lehergailu-atentatu batzuk ere bai azpiegituretan, komunikazio-dorreetan, trenbideetan; nengoen zerbitzuan egonik, informazio-zerbitzuan, bertaratu egin behar izaten nuen eta gero ikerketa-lanak egin behar izaten nituen. Oso gertutik bizi nuen gertatzen zena, eta zenbat gertuago, txikiagoa arrisku-sentsazioa, eguneroko kontua bihurtzen baita (...) Nik jasan nuen atentatua 1978an gertatu zen, gau batez afalondoan; familiarekin afaldu ondoren kuartelek kanpo zetozen tiro-hotsak entzun nituen. Ez zen lehena, eta bagenekien zer ari zen gertatzen. (Kuartelaren kokapena zaila zen, errepedea lehen solairuko leihoen mailan zegoen eta). Ohikoa zen auto bat iristea errepedetik, abiadura moteltzea eta barrutik metrailatzea. Egun hartan ez zen hala izan. Konturatu nintzen tiroketa ohi baino luzeagoa zela; horrelakoetan egin beharrekoa zen arauzko arma hartu eta zerbitzu iraunkorrean ari zi-*

*ren hirurei laguntzera joatea. Heldu ginenean ikusi genuen ohi baino serioagoa zela kontua. Gure kalkuluen arabera komando bereko hiru talde zeuden: bata errepidearen ondoan, goragune batean, kuarteleko fatxada nagusiaren kontra tiro egiten; beste bat kuartelaren atzealdean; eta hirugarrena guardien pabiloien irteeraren aurre-aurrean. Ikusi genuenean ekintza ez zela ohi bezalakoa, lankide batek eta biok erabaki genuen irtetea eta komandoko taldeetako bat mugiarazten saiatzea kuartelaren barruan errazago mugitu ahal izateko. Biok zauritu gintuzten kuarteleatik ehun bat metrora geundela. Nire zauriak larriak izan ziren; hiru balak jo ninduten. Batak giltzurrun bat ukitu zuen, beste batek gibela, eta larriena bizkarrezurrean hartu nuena izan zen, bi orno hautsi eta lesioa eragin baitzidan bizkarrezur-muinean. Bagenekien, batez ere hiru urte ETAren kontrako borrokan eman ondoren, haien ohitura zela erortzen zirenak, zaurituak, babesik gabe zeudela errematatzea. Hori jakinik, egoerak beldurra sortzen zidan, eta horregatik konortea ez galtzea lortu nuen eta noizean behin tiro egiten nuen airera, ikus zezaten kordean nengoela, bizirik nengoela, eta horri esker ez ziren etorri errematatzen. Hala gertatu zen, zorionez. (E10)*

*Gu, lehergailuak desaktibatzeke taldekook, toki batera heltzen ginenerako ezarrita zeuden jadanik segurtasun-neurriak, eratuta zegoen segurtasun-hesia atentatua gertatu zen edo mehatxatuta zegoen tokiaren inguruan. Orduan, baina, toki hartara iritsi ginenean, ez zegoen segurtasun-hesirik, eta harritu egin ginen. Gero ikusi genuen jendea zegoela granadak jaurtitzeko erabili zuten kamioian, kamioiaren gainean, eta lehenbizi pertsona haiek handik ateratzen saiatu ginen. Ez genekien hiru granada jaurti zituztela eta beste hiru zeudela jaurtitzeko prest. Jaurtigailua plataforma baten gainean zegoen, kamioi baten gainean, eta lehen hiru granadak jaurti zirenean plataforma mugitu egin zen, eta gelditzen ziren hiru granadetako lehena jaurti zenean, kamioiaren ondoko zutoin bat jo zuen. Zer gertatu zen? Lankide batzuek zauriak jasan zituzten eta beste batzuek, nik neuk esaterako, lehenbizi ez genuen izan ondorio fisikorik, baina ondorio psikikoak gelditu zitzaizkigun. (E3)*

*Gogoan dut aitak esaten zuela, jakina, igotzen zara pentsaturik alde oso gatazkatsua dela, eta halakoa zen, eta beldurra duzu, eta azkenean non gertatuko, eta Madrilen. Horrek erakusten du noraino heltzen ziren ETAren terrorismoaren atzaparrak; arriskua ez zegoen Euskadin bakarrik, Espainia osoan baino. Atentatua 1986an gertatu zen. Aita Madrilgo enbaxaden segurtasunean ari zen, erreleboen ibilbideak egiten. Land Rover bateko gidaria zen. Behin, Juan Bravo eta Príncipe de Vergara kaleen izkinara heldu zen, semaforoa gorri ipini zen, eta gelditu egin zen; ondoan aparkatuta zegoen ibilgailua bonba-autoa zen. Land Roverra gelditu orduko bonba-autoa leherrarazi zuten. Land Roveraren barruan bederatzi guardia zibil zeuden: bost hil ziren eta lau larri zaurituta suertatu ziren, aita barne. (E1)*

*Gasteizko erreserba-gunera bidali ninduten. Denetariko zerbitzuak egiten genituen: istiluen kontrako lanak, kuartela babestu, lehergailuen eskolta, presoek eskolta, etab. Atentatu egunean, Laudion, egun hartan ez nuen lanik, baina boluntarioak eskatu zituzten droga kontu batean laguntzeko, gogoratzen dudanez. Egun hartan zain geneuzkan autobidean, bidesaria ordaintzeko lekutik 500 bat metrora, eskuineko bazterbidean, gure norabidetik begiratuta, presio-eltzea jarrita. Lau auto gindoazen konboian. Eztanda handia entzun genuen eta nire autoaren atzealdean airean altxatu zen eta ezkerraldeko hesiaren kontra amaitu nuen. Eskerrak autobidean beti ibiltzen ginela galtzada erditik, bestela egun hartakoa txarragoa izango zen. (E14)*

*Kuartela, garai hartan, tira, beste asko bezala, ez zegoen ondo prestatuta erasoetarako. Uralitazko pabiloiak ziren, kristalak soilak eta normalak ziren, eta garitak, garitak ohi-*

---

*koak ziren, normalak, ez aterik ez ezer. Beraz, ohetik jaikitzen ginenean, gosaria hartzen genuen eta ondoren pabiloira joaten ginen deskantsatzera edo, bestela, erosketak egin genitzakeen, edo irten, edo bankura joan, edo gestioak egin... Bada, jaiki ginen, bannindoan aterantz, bertan baitzegoen logela, atea, korridorea eta beirate bat, autobiaren aurrera ematen duena, etxebizitza-eremu batera. Kanpora nindoan, longaina soinean nuela eta arma aldean, eta atea ireki nuenean leherketa bat entzun nuen, "bum", eztanda bat, eta kristalak gainera jausi zitzaizkidan. Orduan, jakina, artean ondo itzarri gabe nengoen, eta oihua entzun nuen: "Atentatua". Atzera egin genuen, ez dakit zenbat izan zen, 5 minutu, 10 minutu, 15 minutu, ordubete, ez dakit, oso azkar gertatu zen dena; dena den, laburra izan zen, gutxi gorabehera. Beraz, han geunden guztiok atzera egin genuen, eta tiroketa hasi zen; balak zeharka pasatzen entzuten hasi ginen eta bala-eztandak nonahi, zaratak alde guztietan. (E8)*

*Bi pertsona susmagarri zeuden. Bat ikusi nuen autoaren atzeko eserlekuan etzanda. Banekien bi pertsona susmagarri zeudela eta haietan kontzentratu nintzen... apur bat urrunago begiratu banu, hirugarrena ikusiko nuen eta orduan enfrentamendua edukiko genuen. Baina ez nuen ikusi, eta entzun nuen azkena armaren hotsa izan zen, kartutxoa armaren errekararen sartzen, eta neure artean esan nuen "ostia, morroi bat daukat atzean armaturik". Bira egin nuen arma ateratzeko, baina ordurako berak egina zuen tiroa, eta osorik hartu nuen, eta hantxe amaitu zen dantza. Azkarrago ibili zen; ehiztaria ihizi bihurtu zen. Ni haien ehizan ibili eta berek ni harrapatu, ederra balbea (...) Konortearekin sartu nintzen ZIUn, ez nuen inoiz konortea galdu, burua oso argi neukan, eta gainera hil-plantak egin behar izan nituen ez errematatzeke (terroristak). (E5)*

La vivencia de un atentado en los menores de edad deja una huella que, como veAtentatuaren bizipenak ondorio larriak sortzen dizkie adingabeei, luzaroan irauten duten osasun-arazoak edukitzen baitituzte, ondoko atalean ikusiko dugun bezala. Hurrengo adierazpenetan ahaide adingabeen ikuspuntua islatzen da. Kasu batean, alabak urrun zegoela jaso zuen aitaren hilketaren berri, eta horrek sortu zion oinazea kontatzen du hainbat urte igaro ondoren.

*Nik txikitan bizi izan nuen, aita galdu nuenean 13 urte bete berri nituen eta. Izututa bizi nintzen; hau da, inork ezin zuen jakin aita zer zen, bestela hil egin zezaketen eta. Kontu handiarekin ibili behar izaten nuen; ezin nion ezer esan inori. Hori gogorra da neskato batentzat; tira, nebentzat ere gogorra izango zen, noski. Orduko giroa txarra zen, hau da, egunean-egunean pentsatzen zenuen egunen batean aitari zerbait gertatu ahal zitzaiola. Hori izugarria da ume batentzat. (E9)*

*Orduan ez zituzten guardiak jomugan, baizik eta haien ahaideak, min gehiago egiten zuen eta. Zenbat min gehiago sortu, hainbat hobe haientzat. Halakoxea izan zen Zaragozako kuartel-etxeko atentatua. Nire atentatua hiruzpalau hilabete geroago izan zen. Zorte handia eduki genuen bota zizkiguten jotakeekin<sup>16</sup>: ez zuten kontuan eduki kamioia hutsik zegoela, jotake bat jaurtitzen zuten bakoitzean kamioiaren plataforma mugitzen zela, eta ondorioz hurrengo jaurtiketaren ibilbidea apur bat desbideratzen zela. Horregatik, iritsi zitzaizkigun jaurtigaiek ez zuten jo erdiko tabikea, berek nahi zuten bezala, nire fatxadan zegoena, kamioia graduz gradu biratzen ari zen eta; beraz, jaurtigaiek ez zuten jo erdiko tabikea eta eraikinera sartu ziren. Ate batzuk, geletako ateak, beheko eskaileretan, eskailera-buruaren erdian, landatuta ikusi nituen. Esan nahi dut, eszena izugarria zen, ketza handia nonahi, argirik ez, ez zegoen ezer, ez genuen ikusten ezer. Bi guardia ikusi nituen irteten odoletan, batak belaunean zuen odola, besteak buruan,*

---

16 Jotake granadak, ETak berak egiten zituen jaurtigaiak; 70eko hamarkadatik aurrera erabili zituen.

*lehertu ziren jaurtigaiak beren etxeetan lehertu zirelako, barruan zeudela. Zorte handia eduki nuen; nire familian ez zen ezbehar handirik izan: anaia gaueko 10etan jaisten zen egunero txakurrari jaten ematera, eta egun hartan “El precio justo” ikusten ari ziren eta eskerrak anaiak amari esan ziola “itxaron apur bat, horren prezioa ikusi eta jaitsiko naiz”, eta bat-batean pum ez genuen eduki astirik beste ezer egiteko. Kristalak gainera erori zitzaizkigun. (E2)*

*Aitak autoaren azpia arakatzan zuen eta horri esker ez zen hil atentatu batean. Eta gu ere salbatu gintuen; izan ere, autoa gurea zen eta gutariko nornahi hil zitekeen. Bi kilo amonal ipini zituzten ezkerreko gurpilaren parean, gidaria, aita, egongo zen aldean. Aita ohartu egin zen, eta lehergailu-teknikariei deitu zien. Aurreko gauean bi polizia izan ziren etxean afaltzen. Aitaren adiskideetako bat ondoezik jarri zen, baina ez zuen nahi izan joan medikuarenera. Aitak autoan eramane balu, biak lehertuko ziren. Ahizpak eta biok goiz eta arratsalde edukitzen genituen klaseak. Goizean klasean izan ginen; arratsaldean jolasean ibili ginen autotik gertu. Arratsaldeetan, ordu bi eta erdie-tan sartzen ginen eskolan; ordu biak aldean aita autoa martxan jartzera joan zen, eta atezain automatikotik esan zigun lehergailua ipini ziotela. Lehergailu-teknikariei deitu zien; haiek ingurutik urruntzeko esan ziguten, eta autoa ezandarazi zuten, ezin izan zuten desaktibatu eta. Lehergailua zegoela konturatu ez balitz, historia beste era batera amaituko zen. Batzuek esaten dute “pozik egon zaitezke, aita bizirik duzu”, baina ekintza terrorista bat jasan duenak badaki iltzatuta uzten zaituela eta ondorioak nahiko gogorrak izaten direla. (E6)*

*Aitari kalean egin zioten tiro, etxetik irten ondoren, bizi zen auzoan bertan. Esan zigutenean atentatua izan zuela eta ospitalean zegoela, ez zitzaidan burutik pasatu ere egin larri egon zitekeenik. Donostiara joan ginen, eta esan ziguten koma sakonean zegoela. Lau hilabete eman zituen koman, eta gero hil egin zen. Zalantzan bizi izan ginen lau hilabete haiek beldurgarriak izan ziren. Hasieran hotel batean bizi izan ginen, baina hilabete igarotakoan esan ziguten hotela ezin zela ordaindu. Pentsa nolakoa zen ziurgabetasuna: aita koman eta ezin jakin zer gertatuko zitzaion ez zenbat denbora egongo zen hala. Gainera, ostatua aurkitu behar izan genuen hirian aitarengandik ez urruntzeko. Hurko batzuen etxean bizi izan ginen. Aita ospitalean izan zen aldi osoan eskolta eduki zuen gelan, eta guk ere eskolta eduki genuen, beldur baitziren terroristek ez ote zuten egoera aprobehatuko berriz ere atentatua egiteko. Ordura arte sekula ez nintzen bizi izan halako beldurrarekin. (E12)*

*Alaba bakarra izanik, gurasoek nigan hurbil bizi nahi zuten, Sevillan, batez ere gurasoak beti egoten direlako babestuago eta seguruago alabarekin, jakina, eta, gainera, oso maite zituzten ilobak... Horregatik, nigan hurbil egotea erabaki zuten. Irailean etorri ziren. Hilabete eman zuten herrian zenbait gauza egiten, jarduerak eta. Urriko lehen astean aitak erabaki zuen Irunera joatea han egiteko zuen guztia amaitzera eta gero negua hemen pasatzea gurekin. Aitari agur esatean esan nion “Pa, gelditu, ez joan; zure lekuan, ez nintzateke joango.”, ez nekien zergatik ari nintzen hori esaten, eta erantzun zidan “Zer gertatuko zait? Astebete barru hementxe egongo gara” (...) baina telefonoak jo zuenean, neba gazteak zer gertatu zen esan zidan, eta nik ez... belaunikatu nintzen eta oihu egin zuen “Zergatik? Zergatik? Zergatik? Aitari esan nion, senarraren aitari... aita-amaginarrebak etxean zeuden, zorionez, eta imajinatu dezakezu nolako astindua izan zen familiarentzat, bizitza hautsi zitzaigun denoi. (E4)*

---

### 3.2.4. Bizitza hondatuta. Ondorio fisikoak eta emozionalak.

Atentatu terroristek uzten dituzten ondorioez pentsatzen dugunean, lehengo zauri fisikoak etortzen zaizkigu gogora, bai eta erabat osatu arteko susperraldi luzea ere. Izan ere, sendatzeko prozesua luzea izaten da, eta ziurgabetasunez betea, gainera, ez baita jakiten nolakoa izango den suspertze fisikoa. Gutxika-gutxika ohartzen dira lesio batzuk sendaezinak direla eta bizitza osoan haiekin bizi beharko dela. Ondoko lekukotzetan ataka larri hori bizi izan zuten pertsona batzuek kontatzen dute nola egin zioten aurre bizitza osoa aldatu zien jazoera hari.

*Atentatuaren ondoren ospitalean egon nintzen egun batzuk, eta gero Tóledora eraman ninduten. Han 6 hilabete pasatu nituen ospitaleratuta. Egoera hura gainditu baino ez nuen nahi. Pentsatzen nuen noizbait zutik ibiltzea lortuko nuela, eta egunero saiatzen nintzen (...) Nire borrokaren helburu bakarra irten ahal izatea zen, ondo egotea. Egunero galdetzen nion medikuari “Zure ustez zutik ibiliko naiz egunean batean?” Eta behin esan zidan “Egiten duzuna egiten duzula, inoiz ere ez zara berriz zutik jarriko”. Orduan ez dakit zer egingo nuen, baina gero pentsatu egiten duzu eta funtsean arrazoiz zuen (...) 27 urterekin norberaren burua gurpil-aulkian ikustea, bizitzako sasoirik ederranean... Istant batean jazo zen. Aulkian eserita eta geldirik betiko. Pertsona aktiboa nintzen, korrika egitea gustatzen zitzaidan, inoiz maratoi erdiren bat edo beste egin nuen, eta bizitza erditik hautsi zidaten. (E7)*

*Nire susperraldia oso konplexua izan zen; lesioa oso larria zen. Hasieran medikuek esaten zuten ez nintzela inoiz berrirori ibiliko. Zorionez, 21 urte neuzkan eta amore ez ematea erabaki nuen. Basurtoko ospitalean ia hiru hilabete egin nituen, 25 egun ZIUn; familiakoei ez zieten ematen esperantza handirik. Bi hilabete eman nituen ohe artikulatu batean, hankak ezin baintuen inolaz ere mugitu. Ohe artikulutik irten eta gurpil-aulkian mugitu ahal izan nintzenean, Malagako ospitalera aldatzeko eskatu nuen, bertan bizi baitziren aita eta ama. Malagan beste lau hilabete pasatu nituen ospitalean, harik eta baja eman arte. Gero tratamendu ambulatorioa jaso behar izan nuen eta, batez ere, errehabilitazioa egin behar izan nuen. Guztira, lau urte inguru eman nituen errehabilitazioan. Bi urte ospitalean bertan eta beste bi fisioterapeuta batekin. Fisioterapeutak buru-belarri lan egin zuen ni suspertu nahian, eta ez zidan inoiz ezer ko-bratu. Azkenerako anaiatzat nuen. Gero, bi urte gurpil-aulkian eta ondoren hiru urte iztarterainoko aparatu ortopedikoekin eta makuluekin ibiltzen. Inguruan izan nituen guztiek eta nik neuk egindako ahalegin handiei esker gaur egun makulu batekin eta ibilera errazten duten zola batzuekin nabil; oinak mugitzeko ahalmena ezin izan dut berreskuratu. (E10)*

*Atentatua jasan nuen, eta ondoren susperraldi gogorra eduki nuen, buruan zenbait ebakuntza egin behar izan zizkidaten eta. Suspertzeko arazoak dauzkat, eta nire arazo nagusia etorkizuna da, zeren Guardia Zibilean lan egiteko neukan ilusioa hala zapuztea, bada, tira... Sei hilabete ebakuntzetan eta altak eta bajak hartzen igaro ondoren aktibo jarraitzen dut, argi baitago ilusio handia neukala. Urte eta erdiren buruan destino berria eman zidaten Burgosen, baina han ez zegoen nik nahi nuen ezer, sartu aurretik argi baineukan ETaren kontra borrokatu nahi nuela, eta Akademian asmo hori are gehiago sendotu zen. Orduan, prestatzen hasi nintzen, nahiz eta artean ondorioak pairatzen egon; prestakuntza fisikoari ekin nion. Gainera, berez, izaeraz ni naiz oso... beti izan naiz adrenalina handiko gizona, beti eduki dut aurrera egiteko grina gauza batzuetan. Bada, argi nuen terrorismoaren kontrako taldean sartu nahi nuela. Unitate uniformeduna da, unitate berezia. Eta, tira, probak gainditu nituen, zenbait kontu saihestuta, azterketa medikoa, esaterako. Zibiletik egin nuen; jakina, militarretik egin banu, ez nuen lortuko edo*

*kontuan edukiko zen atentatua. Kontua da sartu nintzela, gainditu nuela, trebakuntza bereziko ikastaroa egin nuela, oso gogorra dena, hau guztia ezkutuan mantenduta. Orduan ez zuten aztertu. Guardia Zibilak ez zuen aztertzen. Aztertu balute, seguruenik ez nintzen sartuko; izan ere, gero, jakin zutenean, arazo asko eduki nituen. Eta ekintza azkarreko taldera bidali ninduten, Guardia Zibilaren lehengo terrorismoaren kontrako taldera. Eta harrezkero lehen lerroan aritu nintzen borrokan. (E11)*

Ondorio fisikoak gainditzeko erronkaz ari direla, elkarrizketatuek adierazi dute aztertutako lehen hamarkadetan ez zitzaizela arreta handirik ematen atentatu terroristen biktimen ondorio psikologikoei. Ondoko lekukotzek erakusten dute ondorio psikologikoei eragin oso handia izan zutela elkarrizketatuen bizitzan, eta oso zail izan zutela haiei aurre egitea.

*Atentatuaz geroztik hainbat aldiz ospitaleratu ninduten bihotzekoa nuelakoan. Baina ez ziren bihotzekoak. Ustezko bihotzekoak antsietateak ziren, antsietate-atakeak, eta sarri-sarri gertatzen zitzaizkidan. Lanpostu bat hutsik gelditu ziren Euskaditik kanpo, eta ni interesatuta nengoen; destino hura eskatu nuen, eta ingurune horretatik irten nintzen, nolabait esateko. Dena dela, gaur egun oraindik, batzuetan, antsietate-atakeak edukitzen ditut; berekin bizitzen ikasi dut, erdizka identifikatzen eta erdizka menperatzen. Zer gertatu zen? Bada, azkenean Guardia Zibila utzi behar izan nuela. Ezin nuen hala jarraitu. Guardia zibila izaten jarraitzeko ahaleginak egin nituen, zeren, tira, guardia zibil baten semea naiz, Guardia Zibila gustatzen zait. Baina ezinezkoa zen: edo Guardia Zibila edo ni, ez zegoen besterik. Batzuetan ezin nuen menperatu. Ez nuen etsi, baina neure buruari esan behar izan nion: "Guardia Zibilaren inguruetatik irten behar dut arnasa hartzeko". Eta hori ez da egia, zeren eta gero guardia zibil bat edo Guardia Zibilaren auto bat edo dena delakoa ikusten dudanean, gustatu egiten zait, nahiago nuke bertan jarraitu banu. Baina ezin izan dut. (E3)*

*Atentatua jasan ondoren denari nion beldurra, 4 hilabete egon nintzen bajaran, izututa nengoen, baina lanean jarraitu nahi nuen. Oso nekeza izan zen Burgosko auzitegi medikoaren oniritzia lortzea, zerbitzutik atera nahi ninduten eta. Baina oso gaztea nintzen (...) Adituen laguntza izan nuen, medikazioa hartu nuen, lasaigarriak, lo egiteko pilulak. Lau hilabeteren buruan ohartu nintzen, edo neure burua engainatu nuen, ezin nuela jarraitu hala, tratamendua bertan behera utzi nuen, eta familiako laguntzarekin lanean jarraitu nahi izan nuen. Ezin nuen jarraitu hala. Alta hartu nuen, eta luze gabe boluntario joan nintzen ETAren jomuga nagusira, Leitzarango autobidera. Han beste atentatu bat jasan nuen, granadak jaurti zituztenean kuartelaren kontra. Kalte pertsonalak baino ez nituen jaso; herdoildutako makina bat zaintzen ari nintzen Gorrutin. Irratitik entzuten genuen nola lehergailuek makina jotzen zuten. Lankideen hitzak entzuten genituen, beste bat jaurti dute, eta gero eztanda sentitzen genuen; halako bederatzi izan ziren. (E14)*

*Tira, ondorio fisikoak geratu zaizkidit, metraila gorputzean, baina puska txikiak dira. Ondorio psikologikorik? Ez, ez naiz erotu, baina egia da burua... amesgaietako asko eduki ditut... Nire koinatu baten anaia psikologoa da; eskatu nion galdetzeko ea inor eza gutzen zuen, zeren eta nik nahi nuena zen auzitegiaren atentatu terroristari buruzko azterketa gainditu. Eskoliosia daukat; auzitegi mediku batek zenbait muga dauzkadala adierazi du: ezin dut egon luzaro zutik, ezin dut egon luzaro eserita, ezin naiz ibili ibilgailuetan, hau da, behin eta berriro ibilgailuetan sartzen eta irteten ibili; zorabioak izaten ditut, ebakuntza egin didate sorbaldetan, bai eta bi belaunetan ere. Gaixotasun ugari. Eta muga horiek baino ez zizkidaten onartzen: luzaroan ez egotea zutik. Beraz, auzitegiaren aditu aritzen zen psikologo batengana joan nintzen. Tratamendua eza-*

---

*rri zidan. Grabazioak egin zizkidan, nire emaztearekin hitz egin zuen, zenbait aldiz hitz egin genuen. Eta ebatzi zuen trauma osteko estresa neukala. Gero, neure diruaz ordaindutako txostena eskuan nuela, aurreko auzitegien irizpenak, atentatuari buruzkoak, biltzen hasi nintzen, eta espediente txikia osatu nuen. Errekurtsoa aurkeztu nion Defentsa Ministerioari, eta Armadaren Auzitegi Gorenera bidali ninduten. Han nire kasua aztertu zuten. Erdian eserarazi ninduten, beren aurrean, aulki batean. Eta galderak egiten hasi ziren, eta halako batean erori egin nintzen, hau da, negar-malkotan hasi nintzen. Beraz, azkenean, auzitegi hark ebatzi zuen trauma osteko estresa neukala atentatuaren ondorioz. (E8)*

*Alabak ez nau ulertzen; indarkeria-irudi bat ikusten dudan bakoitzean, berdin da, terrorismoa, Iranen, negarrez hasten naiz, dena etortzen baitzait berriz gogora. Bolbora-usaina ezin dut jasan; trumoia edo ezusteko zarata bat entzun eta baliteke shock-ean edo katatoniko gelditzea, daukadan trauma osteko estresa oso handia da eta. Egoera hura... Horregatik diotsut zaratak ezin ditudala eraman, bolbora-usainak gainez egiten dit, ez naiz joaten neure burua zaugarri ikusten dudan tokietara... Hau da, sindromea daukat: beti egon behar dut atearen aurrean eta zer gertatzen den jakin. Ezin dut eraman ez jakitea, hau da, itsu egotea, nor sartu den jakin gabe; zer gertatzen den jakin behar dut beti. (E2)*

*Mutuara joan behar izan nuen lanbidera berriz egokitzeko prozesua egitera, laneko istripu modura. Mutua shocka izan zen; uste dut lehenengoz ohartu nintzela bertan begia galdu nuela eta bizitza aldatu zitzaidala. Ezin nuen jarraitu bizkartzain-lanetan. Majadahondan daukaten trebakuntza-zentroa bikaina da, eta han egiten duten lana zoragarria da benetan. Denetariko jendea ezagutu nuen bertan, historia dramatikoak bizi izan zituzten pertsonak; zorigaitz askoren berri izan nuen, erabateko zoritxar pertsonalak ezagutu nituen. Zer zen begiratu eta neure artean esan nuen, niri ez zait ezer gertatu, inork ez zekien atentatua jasan nuenik, niri ez zait ezer pasatu, begia galdu dut, besterik ez, ondo nago. Egia esan, hura guztia oso ondo etorri zitzaidan, hainbat galdu zuten pertsona haiekin egotea; zentro hartatik ehun edo ehun eta berrogeita hamar pertsona pasatzen dira urtean tratamendua jasotzera, pertsona horiek ezin dute jarraitu beren ohiko lanpostuan, eta egokitu beharra dute. Ni ofimatikan sartu ninduten; ordenagailua erabiltzen ikasi nuen, eta hori oso erabilgarria izan zen gero; gainera, nominak eta gizarte aseguruak ere irakatsi zizkidaten, enpresak langileen administraziozko lanpostu batera aldatu baininduen, giza baliabideen arloan. (E5)*

Elkarrizketatuek kudeatu behar izan dituzten ondorio fisikoez eta emozionalez gainera, haien hitzetan igartzen da oinazearen eta sakrifizioaren hedatze-uhina familia-eremura ere heltzen dela. Bildu ditugun lekukotzen arabera ez da egon familiarik prozesu honetan kalterik jasan ez duenik, eta jarraian ageri diren adierazpen-zatiek argi erakusten dute nolako astindua eta nolako ondorio kolektiboak utzi zituzten ekintza terroristek. Izan ere, bizitza-kontakizun horiek kontuan eduki behar dituzte erakunde publikoek, zeren eta kasu batzuetan, elkarrizketatuek esan dutenez, behar izan zuten arreta psikologikoa berek ordaindu behar izan zuten beren kabuz. Ondoko lekukotzetan atentatuen biktinek pairatu dituzten bakartasuna eta babesgabetasuna islatzen dira, bai eta atentatua jasan ondoren etxea utzi eta Euskaditik urrunduko behar izateak sortutako oinazea ere.

*Nire familiaren kasuan... nire familia erabat hautsi zen. Izan ere, denok behar izan dugu tratamendu psikologikoa. Eta asko kostatu zaigu aurrera egitea, asko. Anaia, anaia zaharragoa, lehendik ere bazebilen makalik osasunez, eta gainera aitaren atentatua ikusi zuen. Eta nik, arraroa begitanduko zaizu, askotan saiatu naiz, baina duela*



*urtebetera arte ez dut jaso laguntzarik. Laguntza horrekin duela urtebete inguru amaitu nuen. Laguntza horrekin zauri asko sendatu zaizkit, ia 40 urte pasaturik. (E9)*

*Luzaroan bizi izan naiz izututa. Psikologoarenera joan behar izan dut, atentatua behin eta berriz etortzen baitzitzaidan gogora. Nire familian gorrotorik gabe bizitzen ikasi dugu, baina nik ez dut barkatzen. ETAren atentatu baten berri entzuten nuen bakoitzean oroitzapen guztiak eta beldur guztiak etortzen zitzaizkidan berriro. Atentatu bakoitzak biktima bihurtzen ninduen berriz, eta horregatik gaur egungo gazteen ahanzturak edo gure historiaren atal horrekiko interes faltak min ematen dit. (E12)*

*Atentatu baten ondoren, batez ere gure garaian, bakarrik sentitzen zara erabat. Inork ez dizu laguntzen, eta hutsune horrekin hazten zara. Gure familian amak jasan zituen gertatutako guztiaren ondorioak. Huelvara joan ginen; eta hori ere gogorra da gero: gainera, lasterka ihes egin behar. Amak depresioa eduki zuen, eta haren ondorioz hil zen. Gogoratzen dudanean, beti dago gaixorik eta negarrez. Ez zuen nahi bizi. Inork ez zuen deitu nola geunden galdetzeko... Horrek aztarna uzten du, beharrezkoa duzu eta. (E13)*

*18 urte nituela, laguntza eskatu nuen, baina artatu ninduen psikologoari kuartelean bizi nintzela esateak izutu egiten ninduen. Horregatik, esan nion trafiko-istripua eduki nuela, eta hala izan zen; trafiko-istripua eduki nuen eta handik zetorren dena. Urte eta erdi eman zuen nirekin lanean denetarik egiten, hau da, eginahalak eta bi egin zituen nigatik, baina behin kontsultara heldu nintzen eta esan zidan “Hara, amore ematen dut”, eta nik erantzun “Nola?”; eta berak atzera “Amore ematen dut, ez dakit zer gehiago egin zurekin. Badakit hau ez duzula egin trafiko-istripu batean, badakit zerbait dagoela honen atzean, baina ez didazu uzten sartzen. Ezin dut egin gehiago zugatik”. Eta uste dut hain ikusi nuela apal eta zintzo, ezen esan bainion “bai, arrazoi duzu, ETAren atentatua jasan nuen adin honekin, eta seguruenik hortik datorkit daukadana”. Eta esan zidan “Lasai egon zaitezke”. Nor zen esan zidan, eta berari ere hurko pertsona bat hil ziotela, eta orduan lasaitu egin nintzen eta arnasa hartu nuen. Baina hori esan arte ezin nintzen kapaz izan esateko “kuartelean bizi naiz”. Oso tristea da, baina hala da. (E2)*

*Gogoan dut nola atentatua izan zen egunean bertan poliziak etorri ziren etxera. Ni neskatoa nintzen artean, 12 urte neuzkan. Atean jo zuten, eta ireki nuen. Lehenengo esan zidaten nik ez nuela atea ireki behar, neskatoa nintzela eta ez nekiela zer egin behar nuen eta zer ez. Gogoratzen dut hurrengo egunean, larunbatean eta igandean albistea egunkarietan agertu zela, eta astelehenean, etxetik irtetea, amak esan zigula: “Ez esan nora zoazten”. Beti beldurtuta, ezta? Etxera heldu ginen... eskola 12etan amaitzen zen, beraz, 12:15ak edo izan ziren, eta ama izututa aurkitu nuen, bigarrenez. Gutuna jaso zuen eta bertan mehatxuak egiten zituzten eta aitagatik honelakoak esaten zituzten: “polizia nazional hiltzailea, utzi polizia edo joan Euskaditik edo bestela zeure hiletara joan beharko duzu”, edo halakoren bat. Gero, egun hartan bertan edo biharamunean, ez dut gogoratzen, Euskaditik alde egin behar izan genuen. Amaren aita eta osaba etorri ziren, eta Euskaditik atera gintuzten... Ea ondo azaltzen dizudan: autoan aitona, osaba, ama, ahizpa eta bostok joan ginen. Autobideko azken geralekuraino joan ginen, nolabait esateko; aitarekin gelditu ginen bertan, aldaketa egiteko. Aita zeta batean etorri zen. Autoa gelditu genuen, eta beste batetik jaitsi zen gizon bat hurbildu zitzaigun. Amak esan zigun “Estali matrikula”, eta gizon hark amari esan zion “Andrea, kontuz ibili; badakit nor zaren eta non bizi zaren”. Aitonak Alzheimer izan zuen, eta sarritan ez zituen gogoratzen gauza asko, baina hori ez zitzaion ahaztu sekula. Amak esan zigun matrikula estaltzeko, eta keinua egin zion zetari. Euskaditik irten ondoren aldaketa egin genuen. Ama Euskadin gelditu zen etxea saltzeko. Aita osorik irten zen, zentzu fisikoa: ez zuen eskua galdu, ez atzamarririk. Baina Polizia Nazionalak ez zituen onartzen*

---

*ondorio psikologikoak, eta horrek biktimizazio bikoitza sortzen zuen. Urtebete bizi izan ginen berezita, bakoitza leku batean. Aita herri batean bizi zen, lau kilometrora, eta oinez etortzen zen gu ikustera. Ama Euskadin egon zen etxea saldu nahian. Hain zuzen ere, hirugarren ahaleginean saldu zuen: erosleak jakiten zuenean etxea polizia batena zela, atzera egiten zuen. (E6)*

### 3.2.5. Abandonua. Erakundeen eta gizartearen babesik ez dagoelako sentsazioa.

Azterlanaren atal garrantzitsu batera heldu gara, elkarrizketatuei atentatuaren ondoren erakundeek eta gizarteak eman zieten babesari buruz galdetzen diegun atalera, hain zuzen. Elkarrizketatuen erantzunak desengainuz, minez eta ulertezintasunez beteta daude. Labur esanik, haien ustez erakundeek ez zizkieten eman ondorio psikologikoak sendatzeko behar ziren bitartekoak, eta ez zieten lagundu errehabilitazio-prozesuak eragiten dituen gastu handiei aurre egiten, ez atentatuaren ondoren jasandako lesioetara egokitutako lanpostua aurkitzen, ez terrorismoaren biktima onartzeko prozesuan. Elkarrizketatuek esan digute berriz ere biktimizazioa jasateko arriskua dakarrela terrorismoaren biktimatzat onartzeko bide burokratiko astuna egin behar izateak, konpentsazio ekonomikoak jasotzeko bete beharreko baldintzak alde batera utzita.

Nahiz eta administrazio publiko desberdinek urteetan zehar irismen desberdineko neurriak abiarazi ahal izan zituzten terrorismoaren biktimei onarpena eta ordain ekonomikoa emateko, komeni da gogoratzea Gorte Nagusiek gai horren inguruan emandako lehen legedi espezifikoa ez zela 1999ra arte iritsi<sup>17</sup>, eta Eusko Legebiltzarrarena, berriz, 2008an<sup>18</sup>.

Gizartearen erreakzioa dela-eta, elkarrizketatuek esan dute beren egoerarekiko eta beren sufrimenduarekiko enpatia handiagoaren falta sumatu zutela gizartearengandik, eta gogor gaitzetsi dute “zerbait egingo zuten” esanik beren oinazeari ez ikusi egiten ziotenen jarrera.

*Atentatuaren ondoren ez nintzen gauza berriz ere lanean hasteko, eta baja hartu nuen. Neure burua beste era batera taxutu behar izan nuen; izan ere, garai hartan terrorismoaren biktimak egoera ekonomiko tamalgarrian gelditzen ziren. Behin betiko baja ematen ziguten zaurituta egoteagatik, baina, jakina, bajan egonik soldataren zati handia galtzen genuen, osagarrien zatia: destino-osagarria, espezialitatea... hori galdu egiten genuen, baina beharrianak ez, horiek ez genituen galtzen. Alderantziz, gehitu egiten ziren. Gurrpil-aulkian ibili nintzen aldiak ezin izan nintzen bizi etxebizitza normalean: etxebizitza neure egoerara egokitu behar izaten nuen. Are gehiago: gurrpil-aulkia utzi ondoren ere ezin nintzen bizi ez igogailurik gabeko etxebizitzetan ez eskailera askokoetan. Beraz, gastu handiak nituen eta diru-sarrerak nahiko urriak. Izan ere, bi urtez etxebizitza aitak eta anaiak ordaindu behar izan zidaten, nik ez bainuekan aski diru. (E10)*

---

<sup>17</sup> 32/1999 Legea, urriaren 8koa, Terrorismoaren Biktimei Elkartzasuna Adieraztekoa (BOE, 242 zk., 1999/10/09koa). Geroago iritsi zen 29/2011 Legea, irailaren 22koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Babes Integrala ematekoa (BOE, 229. zk., 2011/09/23koa), irailaren 6ko 671/2013 Errege Dekretuak garatua; errege-dekretu horrek Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Babes Integrala emateko irailaren 22ko 29/2011 Legearen Erregelamendua onartzen du (BOE, 224. zk., 2013/09/18koa).

<sup>18</sup> 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa (BOE, 212. zk., 2011/09/03koa), Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuak garatua (EHAA, 239. zk., 2010/12/15koa).

*Jendea, orokorrean, atentatua jasan zenuela jakinez gero, errukitu egiten ziren. Nire ustez, ETAren ankerkeria, beraren ingurunea eta historia ezagututa, ez zaie askorik eskatu behar. Dena den, esan beharra daukat euskal gizartea, orokorrean, ez zela behar bezala aritu harik eta ETAk eta beraren ingurukoek sufrimenduaren edo oinazearen sozializazioari ekin arte. Noski, gehienak Miguel Ángel Blancoren bahiketaren eta hilketaren ondorioz hasi ziren, beldurra kontuan hartuta, ETAk eta beraren ingurukoek ez baitzuten inoiz inolako eragozpenik izan jarduteko (...) Barne Arazoetako Ministerioak kalte-ordainetarako baino ez zuen hitz egin nirekin; gainera, aktibo jarraitzea erabaki nuenez, hasieran kalte-ordain txikia eman zidaten. Urte asko geroago, erretiroa hartu nuenean lesio fisikoen ondorioz, gauza batzuk eskatu nituen, baina ez nuen jaso inolako laguntzarik. Aitzitik, formalismoak, are gaur egun ere, ugariak dira, izapide asko. Bai Ministerioaren lana, bai Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza edo Zuzendariordeztza Nagusiarena negargarriak dira. Urte haietan, Guardia Zibila, erakundeak, ia ez zidan laguntzarik batere eman. Bakarka hartuta, aldirik gaiztoenean ez zuten jokatu behar bezala. Urteak igarota, erretiroa hartzea erabaki nuenean, orduan bai, nire nagusiek zuzen jokatu zuten beti. Osasun Militarreko Zerbitzu Zentralak ongi jardun zuen bertara bidali nindutenetik; are gehiago, asko lagundu ninduten eta laguntza oso onuragarria izan zen. (E11)*

*Aitak atentatua izan zuen garaian, azkenean esku hutsik joaten zinen. Aldi hartan ez zegoen laguntzarik ez arreta psikologikorik; gaur, aldiz, bai, baliteke egotea. Ez, orduan esku hutsik, eta inork ez zizun laguntasunik ematen, ezta hurrik ere. Halaxe zen. Eta politikariek ere ez, ez... tira, ordurako bazegoen Terrorismoaren Biktimen Elkarte, baina sortu berria zen, eta artean ez zegoen laguntza psikologikoa emateko proiekturik, gaur egun dagoena bezalakorik, ez zuen zerikusirik batere. Amak kontatu dit zer gertatu zen aita bisitatzerara joan zirenean Gurutze Gorrira: iritsi zen orduko barne ministroa, eta, bertikoa, "sentitzen dugu, ezer egin ahal badugu laguntzeko", eta halakoak, eta amak gauza bat bakarrik esan zien, ez emateko erretiroa, faborez, eta jartzeko bulego batean edo administrazio-lanak egiten, baina Guardia Zibila barruan, erretiroa ez emateko ahaleginak egiteko. Egia esan, aitarantz oso mesedegarria izango zen ez erretiratzea; arazorik gabe moldatuko zen, geroko bizitzan ondo baino hobeto moldatu zen eta. Oso lagungarria izango zen ez erretiratzea. Orduantxe konturatzen zara egia dela, politikariek ez dutela egiaz agintzen laguntasuna.. Ondo gelditzeko esaten dute, baina gero ezer ez. Ni, biktima naizen aldetik, eta gainerako biktima guztiak, gure artean aritzen gara, eta ahituta gaude hitz hutsak entzuten; hainbat aldiz esan digute hau eta bestea, baina guk ekintzak behar ditugu. Nik ez dakit politikariren batek inoiz ulertuko duen, baina guk dagoeneko ez dugu hitzik behar. Badakit oso polita dela ekitaldi batera joan eta esatea "Zuekin gaude", bai, baina hurrengo egunean, hor konpon. Hori hala da, bizi izan dugu eta (E1).*

*Gurasoen lana dela-eta, ama oso azkarra da eta oso maite zuten Irunen, eta inguruabarrak direla-eta, lagun asko dauzkagu, oso ongi hartu gaituzte adiskideek, lanean, lankideek... Baina gauza batek harrিতa utzi ninduen: behin Virgen del Rocío ko zaindari batek albistearen berri jakin zuenean, ni aurrean nengoela, begiratu zidan eta esan zidan "Bada, zerbaitengatik izango zen". Ni mutututa gelditu nintzen. Hori gogorra da gero; baina sarritan esaten dute, "Zerbaitengatik izango zen". Baina, ea, badago ezer norbait hiltzea justifikatzen duenik? Hitzik gabe gelditu nintzen... Aita hil zutenean, TBE hastapenetan zen. Orduan, Guardia Zibiletik, komandantziatik, TBEri esan zioten zer gertatu zen, eta gero amarekin hitz egin zuten. Askok eskertu zuen; izan ere, galduta zaude: agintariak desagertzen dira, eta ez daukazu norengana jo orientazio bila (...) Neuk ikusia dut: erakundeak hiletetara agertzen dira, eta gero, hor konpon. Desagertu egiten zara. (E4)*

---

*Gure kasuan, ondo etorriko zitzaigun laguntza psikologikoa, eta laguntza soziala ere bai. Garai hartan gizarteak hildakoak juzgatzen zituen: “zerbait egingo zuten”... Hitzak merkeak dira, baina min egiten dute. (E13)*

*Erakundeek ez digute inolako laguntzarik eman. Laguntza bakarra, familiarrena; bestela, ezer gutxi. Erakundeak ez dira inoiz gutaz arduratu, ez eta gaur egun ere. Terrorismoaren Biktimen Elkartearen harremanetan jarri zen gurekin, eta arduratu egin ziren, laguntzak eskatzeko aukera eskaini ziguten hainbat aldiz. Nik ez dut sekula hartu. (E14)*

*Orduan, polizia bat, guardia zibil bat edo beste funtzionarioen bat hiltzen zenean, jendea hain zegoen ohituta, ezen ematen baitzuen erakundeek berek paso egiten zutela eta ez zutela jaramonik egiten. (E7)*

*Guardia Zibilaren ustez bere egoera psikofisikoarekin ezin zuen jarraitu aktibo. Orduan, erretirora pasatu zen berez, erretiroa eman zioten; lehen esan dizudan bezala, pentsioa eta bazeukan, baina apur bat lekuz kanpo zegoen. Lekuz kanpo ikusi zuen bere burua; oso gaztea zen artean, hogeita sei urte, eta azkenean bere buruari esaten zion “Eta, zer egin behar dut orain?”. (...) Aitak ezagutu zuen ezer ez zegoen garaia, inolako laguntzarik eskaintzen ez zuten garaia. Geroago laguntza batzuk ematen hasi ziren, egoera psikologikoa arduratzen hasi ziren. Garai desberdinak ezagutu zituen, eta guk ere bai. Gaur egun, egia da, laguntza gehiago daude, Elkarteari esker aukera gehiago daude laguntza psikologikoa jasotzeko, eta Elkartearen laguntzen saiatzen da, arreta psikologikoarekin ez ezik baita dirulaguntzak emanez ere. Baina eremu politikotik, laguntzaren kontua, komeni denean bai eta komeni ez denean, ez. Baina aldi hartako begiekin ikusi behar da, 80ko hamarkadako begiekin, 1986. urtekoekin, zehazki; orduan bakar-bakarrik gelditzen zinen. (E1)*

*Aitaren atentatua gertatu zenean, andre batek bakarrik deitzen zigun, uste dut Gobernuaren ordezkaria edo zela; urtean-urtean deitzen zigun, eta nola geunden galdetzen zigun. Baina, egiatan, telefono-dei bat baino ez dugu eduki, bat bakarrik. Nire ustez erakundeek ez dute laguntzarik batere eman, eta urte haietan are gutxiago. Nik eduki dudana laguntza bakarra TBEn aurkitu dut; han nahiko lagundu didate. (...) Ahizpa eta biok amarekin gelditu ginen. Baina bi urte geroago Guardia Zibilak Valdemoron, Madrilen, daukan zurtzentzako ikastetxe batera joan ginen. Eta geroztik Madrilen bizi izan gara (...) Aitaren hiletara jendetza handia bildu zen, eta Errentarian gainera; auzokide asko izan ziren bertan, eta nik, egia esan, askoz geroago jakin dut horren berri. Atentatuaren ondoko lehen eskola-egunean inork ez zidan doluminik adierazi. Umeek ez, adin horretan normala den moduan, baina ez irakasleek, ez zuzendariak, ez ikasketak-buruak. Inork ere ez. Nik hori bizi izan nuen, eta erabat harritu nintzen. Dena dela, gauza bat esango dizut: jakin dudanean zenbat jende izan zen aitaren hiletan... Nik gizartearen ulertzen dut, beti baitago beldurra; normala da, gizaki guztiok dugu... Ulertzen dut beldurra, baina beldurra eduki arren, bidezkoak ez diren gauzen aurrean mugitu behar da, eta are gehiago bizitza badago jokoan. (E9)*

*Neure emozioak ahalik ongien kudeatzen saiatu naiz... Beharbada gaur egun ez zen gertatuko jazo zaidan guztia, baliabide gehiago daude eta; orain Guardia Zibilak psikologia zerbitzua dauka. Nik ere gertatzen ari zitzaidan guztia ezkutatu nuen, nolabait, neure artean esaten bainuen “eraginik edukiko ote du honek nire karreran?”. Militar arteko inguruneetan aurrejuzguak egiten dira honetaz: “Kontuz gero, morroi hau burutik eginda dago”. Eta, gainera, pistola erabiltzen duzu lanean. Horrek ere arazoa apur bat ezkutuan gordetzera bultzatzen zaitu, eta horrek lagundu baino kalte gehiago egin dit. Baina, berriz esan behar dut, uste dut gaur egun baliabide askoz gehiago daudela.*

*Agian psikologoarenera joango nintzen, geroago joan behar izan dut, edo psikiatra-renera, eta horretara ere joan behar izan dut, eta tratamendua ipiniko zidaten, orain daukadana bezalakoa. Berandu, beharbada, baina tira. (...) Erakundeen erantzuna oso txarra izan zen. Izan ere, kabinete juridikoa kontratatu behar izan nuen neure kabuz. Horrek guztia eragina izan zuen gero nire osasun mentalean. Izan ere, nola esan? Hamar bat urte eman ditut atentatua behin eta berriro bizitzen, eta xehetasun guzti-guztiak oroitzeko ahaleginak egiten. (...) Terrorismoaren Biktimen Elkarteko kide egin nintzen; izan ere, oso gaizki nengoan, banuen TBEn berri, deitu nuen, eta esan nien "Laguntza behar dut, behar dut...". Esan zidaten: "Baina zu onartuta zaude terrorismoaren biktimatzat?". Ni orduan ez nengoan onartuta terrorismoaren biktimen artean. Eta esan nion: "Ez, baina hauxe eta hauxe gertatu zait". Eta elkarteko psikologo batekin jarri ninduten harremanetan. Bizpahiru saio egin genituen. Gaur egun, neure terapia dut, joaten naiz, entzuten dut, gogoeta egiten dugu biok batera, ariketak egiten ditugu. Neure medikazioarekin segitzen dut, eta gutxi gorabehera banago... uste dut banagoela orekatuta. Baina niri barrea aspaldi amaitu zitzaidan. Akabo da hori. Ni kanporakoa nintzen, adiskide asko nituen, erraz egiten nituen lagunak; horrek guztiak gogortu egin nau, orain fidagaitza naiz eta barnerakoa. (E3)*

*Bai erakundeentzat, bai Kidegoarentzat (izatez, beste erakunde bat da), atentatua jasaten duzunetik, berriz ere lanean ezin izango duzula hasi ohartzen zirenetik eta behin betiko baja hartzen zenuenetik, garai hartan, harrezkero ez zinen existitzen. Zerbait eskatzera joaten zinenean, eragozpenak baino ez zeuden, arazoak nonahi, trabak besterik ez. Zure orde z beste bat ari zen, eta arazoa ez zen jada berena, baizik eta norberarena. Beharbada, horixe zen garai hartako gauzarik txarrena. Gaur egun egoera beste modu batekoa da, baina orduan, ezer ez. (E10)*

*Tramite guztiak oso geldo joan dira. Esate baterako, aita ez zen agertzen atentatuan, hau da, beraren lan-orrian ez zen inon agertzen atentatua izan zen egunean bertan zegoela. Frogatu egin behar izan nuen, ABCko lehen orrian agertu ginen eta. Ikastetxeko matrikularekin, errolda-agiriarekin... halako gauzekin frogatu behar izan nuen urte haietan aita bertan egon zela... Izan ere, ABCren lehen orriagatik izan ez balitz (argazkietan agertzen naiz, eta lehen orrian azaldu ginen), gaur egun ez nintzateke egongo onartuta (...) 2015ean onartu ninduten terrorismoaren biktimatzat. Egizu kontu: atentatua 1988an izan zen, eta Auzitegi Nazionalak ez zuen epaia eman 2000. urtera arte. Auzitegi Nazionalak 12 urte geroago eman zuen nire epaia. Nire atentatuko guardia batzuek 17 urte itxaron behar izan dute lortu arte. 17 urtean behin eta berriro, behin eta berriro. Eta horrek azkenean kalte egiten dizu, eta beharbada gaur sentikorrago nago, baliteke minberago edo egotea, ezen oraindik ezin dut aurrera egin; prozesuan ari naiz, bete-betean, ezin dut aurrera egin. Ez dute uzten aurrera egiten, zer gertatuko bainago beti; oraintxe bertan, Auzitegi Nazionalera bidali beharreko idazki baten zain nago. Orain eskatzen dut onartu dezatela lanerako ezintasuna dudala terrorismoaren ondorioz; izan ere, eragilea terrorismoa izan da, hau da, nire ezintasuna trauma osteko estresak eragin du, eta hori atentatuak sortu zuen. (E2)*

*Nire bizitza Guardia Zibilean zoragarria izan da, egon nintzen taldea zoragarria zen, harro nago pentsaturik nire lanari esker komando bat atxilotu ahal izan dela eta ez duela beste inor hülko. Komando asko erori dira. Horretaz harro nago. Eta kontua da hasieratik biktimei edo ezbeharren bat izan dugunoi ez zaigula eman inolako erraztasunik gutxieneko lanpostu egokituia edukitzeko. Ez Gobernuak ez Guardia Zibilak ez digu esan: "Aizu, psikologoa behar baduzu, ezer behar baduzu, etorri eta eskatu". Ea, ez naiz ni esatera joan behar dena... zeuk arduratu behar duzu zeure langileez, eta ja-*

---

*rraipena egin. Hala egin behar da. Haiek eskuak garbitu dituzte beti. Haiei zenbakiak gustatzen zaizkie, bai horixe. Hainbat atxilotu, hainbat kilo droga, hainbat delitugile... Horixe baino ez zaie axola denei, besterik ez. Datuak. Berriz ere hauteskundeetan garraile izateko. Horixe izan da gehienen ardura nagusia. Eta ni alderdi politiko guztiekin aritu naiz, denekin, eta bat bera ere ez da arduratu. Horixe da nire ustea. Baliteke biktima batzuek jasota edukitzea... ez dut esango bakarria naizela, ez... Uste dut gehienok honela gaudela. Abandonatuta. (E8)*

*Arreba eta biok Guardia Zibilaren zurtzen ikastetxe batera joan ginen. Ikastetxe horretan aritzen dira aita galdu ondoren amak aurrera atera ezin dituen umeak. Guardia zibil bat hiltzen denean, ama kuarteleko etxetik joan behar da, bertan bizi bada. Gainera, orduan emakume gehienek ez zuten lanik egiten, eta ondorioz senarra hiltzen zenean lanean hasi behar izaten zuten, eta ezin izaten zituzten zaindu umeak. Horregatik sortu zen ikastetxe hori. Amari ikastetxearen berri eman zioten, eta ondo iruditu zitzaion gu giro hartatik ateratzea. Pentsatu zuen ondo etorriko zitzaigula. Eta hala izan zen. Oso mesedegarria izan zen handik irtetea. Guardia Zibila dela-eta... gu hara joan ginen, Guardia Zibilak ordaintzen du, eta aitak ere ordaindu zuen bizi izan zen artean. Guardia zibil guztiak ordaintzen dute; kopuru bat kentzen zaie soldatetik Guardia Zibilaren zurtzen gastuetarako. Beraz, bai, ni pozik egon naiz beti alde horretatik; bai, Guardia Zibila ondo portatu da gurekin. (E9)*

*Gizarteak ez zekien ezer. Biktimen hurkoek bai, apur bat gehiago dakite; bakoitzari modu batean eragiten dio. Nire lesio larrienak fisikoak izan ziren, eta nik beti esaten dut ondorioz gelditzekotan, hobe dela fisikoak izatea, horiekin bizitzen ikas daiteke eta. Ostera, lankide askok ondorio psikologikoak dauzkate, eta oso zailak dira eramaten. Gainera, beren hurkoengana jotzen dute, ahaideengana, eta bakartu egiten dira gizartetik; horregatik, gizarteak ez daki haien egoeraren berri. (E10)*

Elkarrizketatu batek azpimarratu du lehenago hedabide batzuetan atentatu terroristei ematen zieten tratamendua: tirokatu ondoren lurrera eroritako pertsonen argazkiak edo hildakoei atentatua gertatu zen tokian bertan egindako argazkiak argitaratzen zituzten. Elkarrizketatu horrek adierazi nahi izan du informazioaren tratamendu hori mingarria izan zela. Atal hau amaitzeko, beste elkarrizketatu batek ironiaz erantzun zion espetetik irteten diren terroristei egiten zaizkien *ongietorrien* gaineko galderari: bere ustez ETaren biktima askok erakundeek konplexurik gabeko tratamendu hori bera ematea merezi zuten.

*Ez, garai hartan ez zegoen arreta psikologikoaren zerbitzurik, neronek ordaindu behar izan nuen... Niri minik handiena egin zidaten gauzetariko bat hedabideen tratamendua izan zen. Errespetua zor zaio biktimen intimitateari, eta kontuan eduki behar da. Hedabide batzuek nire aitaren argazkia argitaratu zuten, atentatuaren ondoren lurrean botata zegoela. Hori lazgarria eta morbosoa da; kazetaritza etikoagoa behar da. Albisteen tratamenduaren xedea nahigabea sortzea zen, baina guretzat hori ez da ona. Ni oraindik ez naiz izan gauza aitaren hilketaren inguruko albisteak irakurtzeko, eta semeak ere ezin izan ditu irakurri. Gaur egun gutxitan ikusten dira halakoak, baina ez da egokia albiste-saioetan hainbeste xehetasun bistaratzea. (E12)*

*Ongietorrien kontua dela-eta, gauza bat esango dizut: ongi torri asko egin behar ziren, asko ere asko, baina benetan merezi zutenentzat. Hor duzu nirea. Ospitaletik irten eta gutxira bilera egin zuten auzoan; auzoko pertsona batzuek, gazteek, ongi torria egin nahi zidaten, pankarta eta guzti: "Ongi torri, auzoko heroia zara". Txaranga ere egongo zen. Itzelezko ekitaldia antolatuta nahi zuten; kristoren iskanbila izango zen. Az-*

*kenean ez zer egin, denon segurtasunagatik, ezta? Baina horixe da nire istorioa, urte batzuk geroago jakin nuena... Baina, bai, erakundeen ongi etorri asko falta izan dira laguntzeko. Egon dira erakunde-ekitaldiak, bai, baina giltzapean modura egin dira, lotsatuta. Donostiako Udalak urrezko domina eman zidan. Asteburu batean Donostiara etorri nintzen, eta aretoan sartu baino lehen Gorka Landaburuk esan zigun: "Tira, ez dut hartuko zuen tokia; gaurkoan zuek zarete protagonistak". Zirrargarria izan zen; izan ere, hau zoriak ematen du, hau da, inork ez du hautatzen biktima izatea. Egun batetik bestera biktima bihurtzen zara, eta etsaia zara, gaiztorik gaiztoena, ezta? Eta urteak ematen dituzu familia eta adiskideak ikusi ezinik... Urte asko dira, eta beti horma baten aurka ari zarela irudipenarekin. Badirudi garai batean ez zegoela inolako asmorik terrorismoarekin amaitzeko; erakundeek begiratzeko moduak pentsarazten zizun beren artean ziotela "tira, joder, hemen daude hauek, astunak halakoak, zer nahi ote dute... dirua baino ez". Ematen du hori guztia diruak konpondu zuela azkenean. (E5)*

Azterlan hau egiten lagundu duten pertsonak hain izan dira eskuzabalak, ezen hone-lako txostenetan agertu ohi ez diren kontuak ere aipatu baitituzte; badirelako, izan, erreparo bereziz jorratzen diren alderdiak. Emozioen narriadurak eta trauma osteko estresak familia-harremanetan sortzen dituzten ondorioez ari gara: aldarte-aldaketak, haserrealdiak, enpatizatze gaitasuna galtzea. Horiek guztiek zenbait gaitz ekartzen dituzte: familia-harremanak haustea, dibortzioak, bakartasuna, suizidioak. Uste dugu arreta berezia eman behar zaiola fenomeno honi. Izan ere, ondorioak pertsonen intimitatean agertzen badira ere, oso interesgarria da biktima askoren bizipenak ulertzeko eta ohartzeko nolakoak diren terrorismoak sortzen dituen belau-naldien arteko ondorioak.

*Bada, hara, bere lanari eta txoriei lotu zitzaizen, ezer ez, ezin zuen ordaindu psikologoa, lanari eutsi nahi zion, eta ez. Zer egiten zuen? Guri jasanarazten zizkigun bere amorrua eta bere etsipena, etxean, biktima gehienek bezala; esan dezagun zehar-kaltea dela, aipatzen ez dena, eta gainera lotsatu egiten zara kontatzean. Niri zenbait biktimak esan didate "Atentatuaren ondoren aitak edanari eman zion, eta tratu txarrak ematen zizkigun". Pertsona horiek tratu txar emaileak dira? Ez, atentatuaren ondorioz aldatu ziren. Pertsona horrek onustean kontatzen dizu, baina lotsatu egiten da. Gero, denboragarranean lortu genuen psikologoarenera joatea, zeren eta nire ustez arazoren bat egonez gero, konponbidea bilatu behar da. Esate baterako, aitak bere buruaz beste egin nahi izan zuen; depresio gogorak jo zuen, eta bere burua hil nahi izan zuen, eta horregatik joan ginen psikologoarenera. Orduan 18, 20 bat urte edukiko nituen; ahizpak 14, 15 inguru. Oso gogorra. Baina, zer egingo duzu? Aurrera egin behar da. Nik bizitza erdia eman dut psikologoekin, negarrez harik eta zertxobait ulertu arte, gauzak baloratzen ikasi arte. Eta ahizpa, nahiz eta psikologoarenera joan ez, beti izan da oso haserrekorra, esaterako. Ama eta biok biktima modura onartuta gaude, psikologoaren dokumentazioa daukagu eta. Beraz, duela zortzi urte ama biktimatzat onartzea lortu nuen, eta ahizpa, lekua berean zegoena ordu berean, ez dago onartuta. Ahizpak askotan botatzen digu aurpegira hori. Guk ez daukagu errua, eta administrazioaren kontra egiten oso zaila da. Izan ere, paperekin hasi nintzenez, Barne Arazoetako Ministerioak esan zidan aita ez zela terrorismoaren biktima, ez zutela hil. Nolako aurpegia gelditzen zaizun... orduan, zergatik jasotzen dut laguntza? Ez izan hain gogorak... Halako trataturik ere! Uste dute dena konpontzen dela diruarekin. Aita lehenengoz onartu zuten biktimatzat, 720 euro jasotzen zituen. Hori ez aintzatespen egokia hilketa-saiakera bat jasateagatik. Errekurtsioa aurkeztu nuen. Gaur egun, Polizia Nazionalak ez du onartzen terrorismoaren biktima modura, eta ez diote eman ez gurutze gorria ez zuria. Zergatik? Gurutze gorriak konpentsazio ekonomikoa daukalako, eta ez zaie interesatzen. Esan ziguten*

---

*administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko esan ziguten. Dena da burokrrazia. Gauzek min egiten dizutenean, zeure artean diozu “merezi du aurrera egitea?”. (E6)*

*Atentatuaren ondorioz aitak ikusmena galdu zuen begi batean, eskuinekoan, entzumena eskuineko belarrarian, ondorio fisikoak izan zituen eskuetan, eta eskuineko eskua mugitze-ko gaitasuna galdu zuen. Horiek ondorio fisikoak izan ziren. Ondorio psikologikoek bizitza osoa iraun zuten. Hor dago trauma osteko estresa, jakina; geroztik ez da sekula egon zentratuta, esan nahi dut ez dela inoiz lasai bizi izan. Asko gustatzen zitzaion mugitzea, ezin zuen egon ezer egin gabe, beti hara-hona... tira... utzi egin gintuen, apurka-apurka utzi gintuen, ez ahaztuta, ezen aita ezagutzen duen edonork badaki... ez zaigu inoiz ezer materialik falta izan, baina sentimenduen aldetik egia da hurbiltasuna eta aitaren maitasuna falta izan zaizkigula. Eta kontua da ezen, psikiatren probekin eta txostenak ikusita, dirudienez, buruan jaso zuen metraila sentimenduen eremuan sartu zitzaioela, eta psikiatreek esaten ziguten “Hara, hauxe gertatzen da, egia da bizitza normala duela”; aitak bizitza normala egiten zuen, gertatzen dena da kalterik handiena psikologikoa izan zela, zeren eta zauri fisikoak hor zeuden, baina azkenean ondorio psikologikoak izan dira gure familiari kalterik handiena egin diotenak. Hala da, ondorio psikologikoak ondorio fisikoak baino txarragoak izan dira, zalantzarik gabe. Gero, aita 2015ean hil zen arnashidetatiko gaitz batengatik; gainera, gizentasunak gaitza okertu zuen, aitak obesitate morbida baitzuen, aldi batean 160 kilo eduki zituen, eta hori ere estresaren ondorioa izan zen, asko jaten zuen, oso..., ez zeukan kontrolik, guk urte askoan jasan zuen estresari egozten genion errua, eta azkenean, batetik beti batera eta bestera ibiltzen zela eta bestetik berak ez zuela bere burua ikusten ... horixe, beraren ikuspegitik ikusi behar da: atentatua gertatu zenean 26 urte zeuzkan, gaztea zen artean, eta halako batean, 26 urte daukazazula, bizimodua hala haustea, bi ume eta emaztearekin... (E1)*

*Biktima askori gauza bera gertatu zaigu: dibortziatuta amaitu dugu. Horri buruzko azterketa egin nahi dugu gurekin ari den psikologo batekin, dibortzio-indizea dela-eta.. Beste bat egin genuen suizidio-indizeari buruz, eta orain, pandemiak atzeratu ondoren, terrorismoaren biktimen arteko dibortzio-indizeari buruzko azterketa egingo dugu. (E10)*

### 3.2.6. Terrorismoaren biktimen papera eta memoria kolektiboaren eraikuntza.

Elkarrizketatutako pertsonen kezka nagusietako batzuk dira memoria eraikitzea eta bitartekoak ezartzea ideia erradikalak ez zabaltzeko, haiek bizi izandakoa berriz gerta ez dadin. Horretarako, elkarrizketatuen ustez oso baliagarria izango da memoriaren eraikuntza hezkuntzaren arloan, batez ere adingabeen artean, ez baitute ezagutu aurreko belaunaldikoentzat ohikoa zen terrorismoaren ia eguneroko jazarpena. Gurekin hitz egin duten biktimetako askok parte hartu dute hezkuntza-ekinaldian; ontzat jotzen dituzte, eta prest daude laguntzen eta programa horiek bultzatzen jarraitzeko. Gainera, ondoko lekukotzetako batean agertzen den bezala, biktimek esan digute terrorismoaren lekuko moral modura ikusten dutela beren burua, eta ez dutela nahi inork pentsatzea azterlan honetan asmo politikoarekin parte hartu dutela. Biktimen iritziz pertsona batzuek uste hori edukitzea alderdi politikoen arteko eztabaida publikoen ondorioa da, eta uste dute ez diela egin inolako onurarik.

*Uste dut ezinbestekoa dela biktimak hezkuntzaren arloan aritzea. Izan ere, hasieratik ezarri genituen helburuak ziren biktimen egoeraren berri ezagutzea eta jendeak jakitea*



*zer izan den terrorismoa herrialde honetan, gazteek ez dakitena, zorionez, ez baitute bizi izan; ez dakite zer izan terrorismoa garai hartan, ez gizarterako ez ekonomiarako. Euskal gizartearen zatituta zegoen, eta herritar asko izututa bizi ziren eta ez ziren ausartzen pentsatzen zutena adieraztera. Horregatik uste zen euskal herritar gehienak ETAren aldekoak zirela, eta ez zen hala, ezta hurrik eman ere. Uste dut biktimak eskoletara joatea oso onuragarria dela eta horren bidez helburu horiek betetzen direla; gainera, lagungarria da, edo izatea nahi genuke, gazteak ez erradikalizatzeko, behin eta berri nabarmentzen baitugu indarkeriak ez duela ezer lortzen, baizik eta indarkeria gehiago sortzen. (E10)*

*Tamalgarria da lagundu ahal duen pertsona batek, norberaren arazoa plazaratu ahal duen batek, ezer ez egitea ikuspegi politikotik komeni ez zaiolako. Etsigarria da. Esate baterako, Elkarrekin programa bat prestatu du lekukotzak eramateko ikastetxe publikoetara (institutuak eta beste), eta triste da jotzen ditugun ate asko ez zabaltzea, batez ere ikastetxe publikoetan, baina pribatuetan ere bai. Saiatu nintzen programa bizi naizen herrira ekartzen, lekukotza eman nahian, eta ikasketa-idazkariaren erantzuna izan zen “Ez dut nahi ikasgelak politizatzea”. Horixe izan zen beraren erantzuna. Orduan, jakina, hori entzunda apur bat harritzen zara eta esaten duzu “ikasgelak politizatzea?”. Esan nion “Barkatu, baina ni ez naiz politikaria; nik zer gertatu zen kontatu nahi dut”, etor daitezela biktimak, ni edo beste batzuk, eta beren lekukotza eman dezatela, ikasleek jakin dezaten zer gertatu den Espainian terrorismoarekin. Nire iritziz, terrorismoak Espainian bi alde dauzka, nolabait: alde batetik terrorismoa bera dago, biktimen sufrimendua, hark dakarren guztia; beste alde batean politika dago. Orduan, non nago ni? Ni sufrimenduaren eta gertaeren aldean nago. Politikara etorrira, politikariek, alderdi guztietakoek eta denetarikoez, ahaleginak egin dituzte beti kontu hau beren onerako baliatzeko, eta orain konturatzen zara noraino sartuta dauden honetan, norberaren sufrimendua, norberaren historia... politika kontuak balira bezala. Orduan, jakina, horrek ere min apur bat eman digu, baina nik nahi dut kontatu zenbat sufritu dugun biktimiek eta nola sentitzen garen eta sentitu garen. (E1)*

*Behin hitzaldia eman nien Zuzenbideko lehen mailako ikasleei, eta gazteak harrituta gelditu ziren. Hain zuzen ere, amaitu genuenean irakasleek esan zidaten txundituta zedela ikasleek behin ere ez zutelako hartu sakelako telefonoa, ezta ezertarako ere; ikasi nahi zuten, eta hunkituta gelditu ziren, ezta? Izan ere, lehen pertsonan kontatzen dituzu gauzak, eta haiek uste dute adineko norbait etorriko dela, nire aita bezalako pertsona bat, eta ohartzeko diran nahiko gazteak diren pertsonak ere hortik pasatu direla. Kontua da biktima askok ez dutela adorerik kontatzeko, lehen esan dudana gaitik, min ematen duelako: kontaketa amaitzen da eta negarrez hasten zara; baina, tira, normala da, ezta? (E6)*

*Mingarria da alderdi batzuk etakideak biktimizatzen saiatzea. Aurrera egin behar da, baina zer gertatu den jakinik. Arbasoek egiten gaituzte garen bezalakoak. Nik ez dut ezer ahazten; gorrotorik gabe bizitzen ahalegintzen naiz, eta baliteke barkatu behar izatea, baina ahaztu ez, sekula ere ez, gizaratearen etorkizunarengatik. Irakaskuntzaren arloan, Batxilergo ikastetxeetan eta unibertsitateetan, egiten diren solasaldiak oso beharrezkoak direla uste dut, haiei esker gazteek aurpegia jartzen baitiete gure historiari eta terrorismoaren kontrako borrokari. Ez nuke edukiko eragozpenik solasaldiren batean aritzeko. Gainera, uste dut baliagarriak direla muturreko jarrerak ezabatzeko. Horixe da biktimen irakaspen nagusietako bat. (E12)*

Terrorismo-delituengatik ezarritako kondenak beteta espexetik irtendako pertsonen udalerrri batzuetan egiten zaizkien ongietorri-ekitaldiak ez dira bidezkoak el-

---

karrizketatuen iritziz: antsietatea sortzen diete, berriz biktimizatzen dituzte, eta hildako ahaideen oroimena iraintzen dute edo berriz irekitzen dituzte jasan zuten atentatuaren zauriak.

*Terroristei egiten zaizkien omenaldiekin iraganera itzultzen ari gara nolabait, ezta? Herrera joan eta omenaldia egitea... arazoa jendearena da. Niri omenaldia egin zidaten herrian, 1998. urtean. Eta nik ez nuen nahi joan omenaldira, eta inork baino mereziagoa nuen. Omenaldia antolatu zutenek isilpean mantendu zuten joan nendin, ezen ni oso lotsatia naiz, eta ez nuen nahi joan. Lehengo pentsatu nuena izan zen “Ez dadila joan politikorik”, denak ziren herritarrak, politikorik bat ere ez, beti joaten baitira zerbait harrapatu nahian. Beraz, horrelako zerbait, omenaldia, gertatzen den bakoitzean, pentsa ezazue nola sentitzen diren biktimak, askok hilerrira joan behar izaten baitute beren hurkoei omenaldia egitera. (E7)*

*Bada, amorru handia, amorru handia ematen du hiltzaile batzuei omenaldia egiteak. Ez dakit, mundua alderantziz dabil. Biktimei ez zaie omenaldirik egin, eta hiltzaileak heroi modura itzultzen dira. Oso gaizki iruditzen zait halakoak egiteko baimena ematea. Ez dakit zer duten gogoan hiltzaile horientzako omenaldiak antolatzen dituzten pertsonak. Zeren eta, ez da bakarrik, hain gorroto handia badiete Estatuko segurtasun indarrei, baina haurrak ere bai, haurrak, haur asko erori dira; horiek ez ditugu kontuan eduki behar? Oso gaizki iruditzen zait, hau da, zauria behin eta berriro irekitzea da, eta pentsatzea, ez dakit, badirudi ez dagoela inor hor. Hori ere berriz biktimizatzearen osagaia da, zeren eta ikusten dugunean, zauria berriz irekitzen da, eta esaten duzu hori ez dela batere bidezkoa, guztiz bidegabea dela. (E9)*

*Bai, hori kendu egin behar litzateke, ezta? Esan nahi dut, ulertzen dut familiak ongietorria egitea, ama batek ez du bere umea gaitzetsiko, dena delakoa... baina, gizar-teak heroizat hartzea? Hain ausartak izan baziren, aurrez egingo zuten tiro, ez atzetik garondoa, ez zuten lehergailurik ipiniko; ez dezatela egia desitxuratu gerra dagoela esanez, ez baita egon (...). Biktimok ez dugu mendekua hartu, ez diegu egin berek guri egin zigutena. Ez gara haiek bezalakoak. Izan ere, kontzientzia dugunontzat oso gogorra izan behar da horrekin bizitzea. Beraz, egin ditzatela ongietorriak, baina beren etxean, ez diezaietela utzi kalean egiten, horrela umiliatu egiten baikaituzte biktimok, esaten ari dira ongi dagoela hiltzea. (E6)*

Etorkizunari begira, elkarrizketatuen kezka nagusietako bat da egia judiziala ezarri gabe dagoen ETaren atentatu ugariak argitzea. Esan digute biktimentzat oso garrantzitsua dela jasandako atentatuaren inguruko egia finkatzea hari buruzko epai judizial baten itzalpean. Gainera, ikuspegi juridikotik eragingarria da terrorismoaren biktimatzat onartzeko.

*Oraindik badaude konpondu beharreko kontu garrantzitsu batzuk, esaterako pertsona batzuk terrorismoaren biktimatzat onartzea. Izan ere, batzuek ez dute onarpena jaso, dela atentatua argitu ez delako, dela atentatua duela asko gertatu zelako eta gertatutakoa frogatzeko behar beste dokumentazio ez dagoelako. Bateratu dezatela biktimen tratamendua, zeren biktima batentzat ez baitago ezer mingarriagorik norberaren sufrimendu bera izan duen beste biktima bat, egoera berean dagoena, guztiz bestela tratatzen dutela ikustea baino. Terrorismoaren biktimak aitortu eta osorik babesteko Legearen arabera terrorismoaren biktimatzat onartutako pertsona guztien tratamendua ez da bera, epaia dutenak modu batera tratatzen dira eta ez dutenak beste batera. Epaia dutenek besteek baino tratamendu hobea jasotzen dute. Pentsatu nolakoa den kasua epaitu gabe dagoen biktimen egoera. Horrek eragin handia dauka ondorio psiko-*

*logikoak dauzkaten biktimengan, behin eta berriz biktimizaturik ikusten baitute bere burua. Edo zer den auzitegietan urrats guztiak gainditu behar izatea, nahiz eta Estatuaren Abokatutzak kasua aurkeztu genionean esan "Hau irabazita daukazue, baina errekurtsioa jartzeko agindu didate". Baina, nondik dator ankerkeria hori, legeak berak agintzen duena ez ematea biktimari harik eta Auzitegi Nazionalak administrazioarekiko auzi batean epaia eman arte, eta gainera gero epaia Auzitegi Gorenera eramatea eta azkenean zortzi urte borrokan eman behar izatea lortzeko? Hori guztiz bidegabea da biktimentzat. Eta oraintsu beste modu bat asmatu dute auzitegietan erakundeen kontra egitea eragozteko: epaiketa-kostuak guztiz neurrigabeak dira. Norberaren administrazio-egoerarekin ados egon ez eta administrazioarekiko auzia aurkezteak eragiten dituen epaiketa-kostuak 2.800 eurokoak dira, eta alde zurretik jarri behar dira. (E10)*

Elkarrizketatuen iritziz badaude azkar eta ezinbestean konpondu beharreko beste kontu batzuk ere: batetik, erakundeek modu aktiboan jardun behar dute terrorismoaren biktimiek bizi izandako bidegabeko egoera aitortzeko; bestetik, laguntza eman behar die, baita laguntza ekonomikoa ere, indarkeria terroristak gaizkien utzi dituen pertsonen. Terrorismoaren biktimatzen onartzeko edo horren ondoriozko lan-onurak edo diru-onurak jasotzeko auzitegietara jo behar izatea etsigarria da, baita iraingarria ere, ETAren kontrako borrokan sakrifizio eskergak egin dituztela sentitzen dutenentzat.

*Guardia Zibiletik erretiratu nintzenean, gainerako erakundeek ez didate eman inolako laguntzarik; are gehiago, edozein tramite, oso txikia izan arren, oso nekagarria zen. Behinola, Barne Arazoetako Ministerioa eta Terrorismo Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia oso gaizki ziharduten: funtzionarioek ez zekiten nola tratatu terrorismoa jasan zuten pertsonak. Gaur egun ez dakit nola diharduten. Nik ez dut inoiz neure burua biktimatzen jo, hala onartuta egon arren. Uste dut gaitzespen gogorra behar dela. Uste dut Eusko Jaurlaritzak kontuan eduki behar dituela Guardia Zibileko kideak, kasu honetan, bai eta Polizia Nazionalekoak eta militarrek ere, biktimentzat antolatzen dituen omenaldien edota ekitaldien agendan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez zuen parte hartu omenaldi batzuetan, esaterako ETAren eta beraren inguruko lehen biktimaren 50. urteurrenekoan (Pardines guardia zibila), ez ekitaldi nagusia ez urteurreneko gainerako guztietan ez ziren izan, eta Melitón Manzanos polemikoaren omenaldian ere ez zuen parte hartu. Eusko Jaurlaritza izan zen lehen omenaldi jendetsua Fermín Monasterio taxilariarena izan zen. (E11)*

*Nik hutsunea igartzen dut, batez ere erakundeen eta hedabideen aldetik, ez baitugu jasotzen egoera traumatikoak jasan eta trauma osteko estresarekin dauden beste kolektibo batzuek jasotzen duten laguntza bera, eta guztiz beharrezkoa da. Nahi nuke guri ere antzeko tratua ematea, eta lan egin dezatela beti egoera hau hobetzeko. Kontua da haienentzat gu gutxika-gutxika azkentzen ari den kolektiboa garela. Hala izango ahal da! Nahiago nuke bihartik aurrera beste inor sartuko ez balitz gure kolektiboan, eta gaudenok banan-banan zahartzeak jota hilko bagina. Baina ez da bidezkoa; gertatutakoa ahaztuko litzateke, historiaren atal hau ahaztuko litzateke, eta arriskua egongo litzateke historia hau berriz gertatzeko. Uste dut erakundeek lan gehiago egin behar luketela kolektiboaren berri zabaltzeko, guk aurkezten ditugun ekinaldietara mugatu beharrean; beren ekinaldiak antolatu behar lituzkete. Lau urtez behin baino ez dira gogoratzen gutaz; deitzen digute, eta argazkiak egiten dizkigute haiekin, gizarteari erakusteko zeinen onak izan diren gurekin. (E10)*

*Badakizu nire kontrako atentatua egin zuten terroristak ni terrorismoaren biktimatzen onartu baino lehenago irten zirela espetxetik? Eta euskal aberriaren heroi modura hartu zituzten. Tira, sektore batek behintzat. Ni oraindik borrokan, are auzitegietan ere,*

---

*eta berak kalean dagoeneko... Aizu, egoera horrek min egin lezake. Nork esango zidan auzitara eraman beharko nituela pertsona batzuk, eta epaiketa guztiak irabazi, gainerra! Epaiketa bat bera ere ez dut galdu, hain zegoen argi kontua... Eta ni bezalako ha- maika gehiago daude. Seguru esaten ari naizena beste lekukotza batzuetan ere agertzen dela azterlan honetan. (E3)*

*1999-2000 inguruan Barne Arazoetako Ministerioaren datu-basea eguneratu nahi izan zuten. Baina, non daude biktimak? Ez omen zekiten, ez zuten osorik eginga terrorismoa- ren biktimen katalogoa, non daude? Zer gertatu zitzaien? Bazegoen pertsona bat, eta hau ezaguna da, gauzak jakin egiten dira eta, senarra, guardia zibila, Intxaurrondon hil ziotena eta gero Badajozera joan zena; sei seme-alaba zituen eta berak bakarrik hazi zituen, bere kabuz. Berarekin harremanetan jarri zirenerako, "Zer esaten ari zara? Se- me-alabak ezkondu daude eta bat unibertsitatean dabil; bakoitzak bere bizitza egin du". Hala da, eman janaria jatekorik ez dagoenean. Batzuei senarra hil diote eta inor ez da haietaz arduratu. Horixe da Estatuak egin duena biktimekin. Eta besteek zer egin dute? Besteek ongi etorriak, heroiak, konpartsa osoa, eta berotasuna, herrietako jaietan, kirolean, kulturari, bizitzako arlo guztietan... Ea, esan, zer euskal enpresetara bidaliko dut nik curriculuma, ezta bakar batera ere [barre] nik ezin diot aurkeztu curriculuma euskal enpresa bati, lanpostu normala eduki dezaket hemen, Euskal Herrian, baina ezin dut eduki, ezin dut bidali curriculuma; zer esango diot? Zer kontatuko diot? Curriculu- mean dauzkadan hutsuneak, nola azalduko ditut, ezta? Ezinezkoa da, ezinezkoa da nik enpresa batean lan egitea. Nire orientazioak erakundeetatik jo behar du edo funtziona- rio aritzea nonbait, administrari edo hor nonbait. (E5)*

Terrorismoaren gaitza sekula gehiago izango ez den gizartea eraiki nahian, azterlan honetan lagundu duten pertsonen galdetu diegu zer nahi luketen egitea espexetik irteten ari direnek eta datozen urteetan irtengo direnek. ETako hildako pertsona baten alabak erantzun digu (aitaren hiltzaileak behin eta berriz esan du ez dela damutzen atentatuak eginga) eta esan du bere ustez damua ezinbestekoa izan behar litzatekeela espexetik irteten direnak birgizarteratutzat jotzeko.

*Ulertzen dut batzuk, oso-oso gutxi, benetan damututa egotea eta birgizarteratzeko es- kubidea edukitzea. Baina kontua da asko damutu gabe ari direla birgizarteratzen, eta beste batzuk onurei heltzeko damutzen direla. Jakina, barkamena eskatzea zigorra kentzeko, hori ez da bidezkoa. Ulertzen dut norbait birgizarteratzea egiatan damutzen bada, eta hori hala dela jakiteko, damutuak bihotzez esan behar dizu, zurekin hitz egin nahi dut, barkamena eskatu nahi dizut eta damututa nagoela erakutsi nahi dizut. Bai- na, zenbat? Horrelako zenbat daude? Hau da, pertsona batek esaten badit benetan da- mututa dagoela, ez nago aurka, ez naiz Jainkoa esateko ez dizut barkatzen, nik barkatu ahal diot, baina, tira... espexetik behar baino lehen ateratzen ari dira biktimei barka- menik eskatu gabe, eta niri hori ez zait ongi begitantzen. (E4)*

*Nahiago nuke aitari ongi etorria egin ahal izango banio. Seme-alabengatik batez ere, ezin izan baitute ezagutu aitona. Baina denetan mingarriena da aitaren hiltzailea es- petxetik irten zenean Asturiasera etorri zela bizitzen, Mieres aldera. Hori zabar joka- tzea izan da; ez zioten utzi behar. Horrek antsietate handia sortzen dit. Kontuan eduki behar zuten. Badakit umea daukala. Pentsa inoiz parkean aurkitzen badut... Ez dakit, oso urduri jartzen naiz. Egia esan, behinola gutuna idaztea pentsatu nuen. Baina ez diote idatzi; aurrera segitu nahi dut iraganean gertatuarekin bueltaka ibili gabe. (E12)*

*Ez dakit nola jokatu behar luketen terrorismoaren biktimek gizartearen aurrean. Baina gauza bat esan dezaket: gorroto handia diet behinola odol-delituengatik epaitu*

*(batzuk 17 hildakorekin) eta gaur egun aske dauden ETako kideei; batzuk kargu publikoan ari dira edo manifestazioen buruan agertzen dira, eta ez zaie batere ardura zer egin zuten. Eta, azkenik, nik ez dut ez ahazten ez barkatzen. Ahal banu, berriz ere ETaren kontra lan egingo nuke, edo gizarteari kalte handia egin dioten beste erakunde batzuen kontra. (E14)*

Elkarrizketatuetako batek erantzun zuen prest egongo litzatekeela bertatik bertara jasotzeko beraren kontrako atentatua egin zuen terroristaren barkamen-eskaera edo atentatuaren ondoko bizipenak kontatzeko, baina gero esan zuen oso latza izan zela judizioan lekukotza ematea terroristei aurpegira begiratzen, aurrean zeudela.

*Tira, egingo nuke, baina ez dut sentitzen barkamenik dagoenik; ez daukat gogorik ezer kontatu ezin didan pertsona batekin biltzeko, ezta? Izan ere, epaiketan egon nintzeanean, apur bat ezohikoa izan zen, zeren epailearen aurrean deklaratu behar izan nuen aurrez aurre neuzkan hau egin zidatenak. Begien aurrean eduki nahi izan nituen hitz egiten ari nintzen artean; aurrean eduki nituen, aurpegia ikusi nahi nien. Baina oso gogorra izan, oso gogorra (...) Hara, gaur jendaurrean hitz egiten naiz zurekin, baina duela hiruzpalau urtera arte ezin izango nuen. Harrezkero, hitz egiten dudanean, beti pentsatzen dut jendeak honen berri jakin behar duela eta gogoan gorde behar dela, jendeak gogoratu behar duela zer gertatu den; oso garrantzitsua da hori. Horregatik lagundu nahi dut eta prest nago biltzeko, ez baitago inor nirea baino lekukotza hoberik emango dizunik. (E7)*

ETAK hildako guardia zibil baten alabari galdetu genion zer uste zuen udalerrri batzuetan, Alemaniako *stolpersteine* edo oroimenaren galtzada-harriak eredu hartuta, abian jarri den ekinaldi batez, hain zuzen ere atentaturen bat gertatu zen kaleetan biktimen oroimenerako plakak jartzeaz. Galdetu genion ea horrelako ekinaldiak, udalerrietakoak eta herritarrek beti begien aurrean edukitzeoak, gizartearen aintzatespentzat har litezkeen, hau da, erreparazio-oroimena sortzeko moduak ote diren.

*Niri oso ondo begitantzen zait; uste dut aitak merezi duela. Nire ustez ekinaldi horiek eskertzekoak dira, eta nik eskerrak ematen dizkiet sustatzaileei. Aitak merezi du. Izan ere, zer gutxiago hori baino. Oso ondo begitantzen zaizkit horrelako ekinaldiak eta biktimak oroitzeko eta gogoan edukitzeko eta, demokrazian bizi ginela, jendea hil zela, pertsonak hil zituztela, jakiteko balio duen guztia. Ondo deritzot egiten den guztiari. Uste dut euskal gizarteak oroimena behar duela, hau da, ahaleginak egin behar dituela, ez gertatu zena aldatzeko, baizik eta jakiteko zer gertatu zen benetan, eta seme-alabei eta haien seme-alabei irakasteko. Gertatu denaren oroimen historikoa behar da, oso latza izan da eta. Egiatan zer gertatu zen jakitea, behintzat. (E9)*

*Dena dela, arantza asko gelditzen zaizkizu, asko, eta batez ere gizarteak bizkar ematea, eta entzun behar izatea “zerbait egingo zuten”. Amorratu egiten ninduen “zerbait egingo zuten” horrek. “Zerbait egingo zuten”. Ertzaina, “zerbait egingo zuten”. Guardia, “zerbait egingo zuten”. Politikaria, “zerbait egingo zuten”. Nork dauka eskubidea beste bati bizia kentzeko? Ez dakit, uste dut zuzenbide-estatu batean gaudela eta bizitza dela nagusi. Ez dakit, behintzat, horrela izan behar litzateke. (E2)*

Azken lekukotza eman duenak aipatu du zer egin dezakeen gutariko bakoitzak bere familia-inguruan edo gizarte-inguruan erreparazio-oroimenaren alde, batez ere hurbilen ditugun gazteak kontuan edukita.

*Gazteak direla-eta, ados nago: ez dakite behar beste historiaz. Nolanahi ere, ohartu behar dugu etxean bertan, familian, hasi behar dugula gauzak kontatzen. Gaur egun, gazteek ez dute telebista ikusten, eta Instagramen ez da horretaz ezer agertzen. Argi*

---

*dago eskoletan azaldu beharko zaiela, baina, horrez gainera, bakoitzaren ardura da bere seme-alabekin horretaz hitz egitea etxean. Terroristak direla-eta, egindakoaz zer harro dauden ikusteak haserrea, amorrua eta sumindura sortzen dizkit. Ez dut sinesten damutu direnik; lehengo amorru bera daukat. Nire kasuan, kaltea eginda dago. Uste dut aintzatespen publiko duina behar dela, gertatu zen gezurrik gabe kontatzea, justifikaziorik gabe. Kasu bakoitza kontatu, hilketak bakoitza. Istorio guztiak. Omenaldia egiteko modua da. (E13)*

## 4 Antzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa.

Ikerketa honetarako bildutako datu kuantitatiboak eta kualitatiboak aztertu ondoren esan dezakegu ESIKetako kideek Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzuan ari ziren bitartean etengabe jasan zutela ETAren mehatxua, eguneko 24 orduetan, kidego horietako kide guztiak (batez ere guardia zibilak eta polizia nazionalak, eta aurreko kidegoetakoak) atentatu terrorista noiznahi gertatzeko mehatxuarekin bizi izan ziren eta. Egoera horrek berekin ekarri zuen ezin gizarteratu izatea ez kidego horietako kideak ez haien zuzeneko ahaideak. Pertsona hauek ez zuten osperik ez eraginik gizarte ingurunean, eta, bildutako lekukotza batzuetan ikusten den bezala, atentatua izateko edo terroristen inguruko jazarpena jasotzeko arriskuaren aurrean, edo beren komunitatera biltzen ziren, kuartelera, eta kanpokoekiko harremanak murrizten zituzten, edo beren etxebizitzetan oharkabean bizitzen saiatzen ziren, eta gezurrak kontatzen zituzten beren lanbideaz anonimotasuna indartzeko, ahal zen heinean.

Inguruabar horiek guztiek eratu zuten egoera onartezina da gizarte demokratiko batean, modu sistematikoan urratzen baitziren Espainiako ordenamendu juridikoan eta nazioarteko zuzenbideko arau-testu nagusietan aitortutako oinarritzko eskubide batzuk. Jarraian hautemandako eskubide-urratzeak azalduko dira, eta kasuz kasu zehaztuko da zer eskubide urratu zen.

Datu kuantitatiboek argi erakusten dute ETAren terrorismoak ESIKetako kideak beste guztiak baino gogorrago kolpatu zituela. Era askotako atentatuak egin ziren: batzuetan pertsona edo jomuga jakin baten kontra zuzenean, beste batzuetan granada ugari jaurtitzeko zituzten kuartel-etxe baten kontra. Terrorismoak luzaroan iraun zuen (kronifikazioa), eta mehatxua etengabea zen, eta horrek guztiak ondorio emozionala sortu zuen: estres iraunkorra edo trauma osteko estresa. Mehatxuak atentatu bihurtu zirenean, zauri sendaezinak gertatu ziren sarritan, eta batzuetan heriotzak ere bai. Ildo horretatik, **pertsonen integritate fisiko eta moralerako eskubidea**<sup>19</sup> urratu zen eta kasu larrienetan **bizitzarako eskubidea**<sup>20</sup> ere bai.

ESIKetako kideek bortxa terroristaren ondorioz beren lanbidean eta beren bizitza pribatuan jasan behar izan zituzten murrizketak eta gabeziak direla-eta, bildu ditugun lekukotzek argi erakusten dute haien eta beren ahaideen **askatasunerako eskubidea eta segurtasunerako eskubidea**<sup>21</sup> urratu zituztela. Azterlanean ageri diren lekukotzetan adierazten da gizarte-bizitzako ohiko jarduketetan (erosketak egitea, tabernara joatea zerbait hartzera, autoa erabiltzea) ezinbestekoa zela norberaren burua babesteko erritual zorrotzak egitea. Gainera, jarduketa horiek ahalik gehien murriztu behar izan

---

19 Egonkortasun emozionalari edo osasun psikologikoari eragitea integritate moralerako eskubidea oztopatzea da. Izan ere, pertsonen bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea da Espainiako Konstituzioaren (EK) II. kapituluko lehenengo atalean (*Oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak*) jasotzen den lehenengoa, 15. artikuluan. Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunaren (Nizako Gutuna) 3. artikuluan ere jasota dago.

20 Espainiako Konstituzio Auzitegiak zein Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hierarkia bat ezartzeari uko egin diote Giza Eskubideen aitortzari dagokionez; izan ere, horiek guztiek maila bera dute askatasun publikoaren ohiko egikaritzean, eta estu lotuta daude pertsonaren duintasun-printzipioarekin (EK, 10. artikulua). Hala ere, aurrekoa horrela den arren, bizitzeko eta integritate fisiko eta moralerako eskubideak betekizun ontologikoa dira eta hori gabe gainerako eskubideak ezin dira existitu. Bizitzarako eskubidea Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) 2. artikuluan, Nizako Gutunaren 2. artikuluan eta 1976ko martxoaren 23ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 6. artikuluan agertzen da.

21 Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (GEDU) 3. artikulua, GEEHren 5. artikulua, Nizako Gutunaren 6. artikulua, eta EZPNIren 9. artikulua.

---

ten zituzten. Bizilekua dela-eta, elkarriketatuen ustez kuartela gehiago da babesleku gotorra norberaren aukerako egoitza baino; gainera, lekukotzaren batean azaltzen den bezala, gotorlekuak izan arren atentatuak jasan zituzten, bai eta kasuren batean suntsitu ere. Kasu batzuk oso mingarriak dira: jazarpenaren eraginez batzuek bizilekua aldatu behar izan zuten, eta batzuek alde egin behar izan zuten Euskal Autonomia Erkidegotik. Beraz, argi dago **zirkulaziorako askatasuna** eta **bizilekua aukeratzeko askatasuna**<sup>22</sup> urratu zirela.

ESIKetako kideen ahaide adingabeei dagokienez, bizilekua aldatu beharrak gizarte-bizitzako azturak ez ezik eskolaratzeko modua ere aldatu zuen, sarritan ikastetxe berria aurkitu behar izaten baitzuten. Kasu horietan **hezkuntzarako eskubidea** urratzen zen, batez ere gurasoek beren seme-alabei **beren balore eta sinesteekin bat datorren hezkuntza eskaintzeko eskubidea**<sup>23</sup>.

Hemen aztertzen ari garen gertakariaren sorburua da lanbide batean norberaren borondatez aritzea. **Lanerako eskubidea**<sup>24</sup> eta **lanbidea edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eskubidea** oinarritzkoak dira, lan-merkatuan sartzeak mantenurako diru-sarreretan ez ezik eragin handia baitauka gizartean parte hartzean edo hartatik baztertuta geratzean ere. Hori dela eta, oinarritzko eskubideak direnez, ordenamendu juridikoko gorengo balioekin lotuta daude, hala nola, **nortasunaren garapen askearekin**<sup>25</sup> eta **pertsonaren duintasunarekin**<sup>26</sup>.

Azkenik, agerikoa bada ere, nabarmendu beharra dago atal honetan aipatutako giza eskubideen eta askatasun politikoaren aurkako erasoak kalte egiten diela Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan jasotako ordenamendu juridikoko gorengo balio guztiei, batez ere **askatasunari** eta **berdintasunari**, eta **pluralismoari** eta **justiziari**<sup>27</sup>.

---

22 Bizilekua askatasunez aukeratzeko eta joan-etorrietarako eskubidea honako hauetan jasotzen da: Espainiako Konstituzioaren 19. artikulua, GEEHren 4. protokoloaren 2. artikulua, Nizako Gutunaren 45. artikulua eta EZPNren 12. artikulua. Pertsonen oinarritzko eskubide hau Estatuak besterik ezin du mugatu, eta legeak ezarritako arrazoiengatik.

23 Hezkuntzarako eskubidea herritarrek botere publikoei eskatu ahal dieten eskubidea da, baina kasu honetan kanpoko eragile batek eskubidea erabat erabili izatea eragozten du. Gurasoek beren sinestearen arabera ikastetxea hautatzeko eskubidea Espainiako Konstituzioaren 27.3 artikulua bermatzen du. Horrez gainera, GEEHren protokolo gehigarriaren 2. artikuluan, Nizako Gutunaren 14. artikuluan, GEDUren 26. artikuluan, EZPNren 18. artikuluan eta EESKNIren 13. artikuluan ere aitortzen da eskubide hori.

24 Lanerako eskubidea eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaletako bat da. Erabiltzeko moduari dagokionez, kreditu-eskubide subjektiboa da, Estatuaren aurrean, beste botere publiko baten aurrean edo hirugarren pertsonen aurrean erabiltzen dena. Azterlan honetako kasua are larriagoa da, eskubidearen urratzea ez baitzen gertatu lan-merkatuaren inguruabarrengatik ez Estatuaren utzikeriarengatik, baizik eta bortxa terroristaren eraginez. Eskubide hau Espainiako Konstituzioaren 35. artikuluan II. kapituluaren 2. atalean aitortzen da. Gainera, aspalditik agertzen da nazioarteko testuetan: GEDUren 23. artikulua, Nizako Gutunaren 31. artikulua, eta Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (EESKNI) 6. artikulua.

25 Espainiako Konstituzioaren 10. artikuluan aipatzen da, ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri diren pertsonaren duintasunarekin, legeari zor zaion begirunearekin eta hirugarren pertsonen eskubideekin batera.

26 Giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbidean sineste askatasunari intolerantziaren eta bereizkeriaren kontra egiteko esleitzen zaion garrantzia agerian jarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1981eko azaroaren 25eko Adierazpenak, erlijioan eta sinesteetan oinarritutako intolerantzia eta bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzkoak. Adierazpen horren 1.2 artikuluan honako hau ezartzen da: "Ezin izango da inor behartu, bere aukerako (...) sinեսmena edukitzeko askatasuna murrizteraino".

27 Zerrenda honetan honako balio hauek ere sar daitezke: justizia eta bakea, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren hitzaurrearen arabera askatasun publikoaren oinarriak direnak, eta askatasuna, justizia, bakea eta berdintasuna, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hitzaurrean aipatzen direnak.



## 5. Ondorioak eta gomendioak.

### 5.1. Amaierako balorazioak.

Estatuko Segurtasun Indarrak eta Kidegoak ETAren lehentasunezko jomugak izan ziren talde terroristaren sortzetik beretik. Ordena publikoa mantentzeko ardura duten indarrek eta klandestinitatean ari den talde terrorista batek talka egitea ezinbestekoa da. Honek ez du azalpenik behar. Horren ildotik, azterlanean ikertutako aldia (1960 - 2011) ESIKetako kide guztiak egon dira ETAren jomugan, noiznahi eta nonahi. Aldi horretan EAEan zerbitzuan aritu ziren ESIKetako kideek beren lanean zein bizitza pribatuan eta gizarte-harremanetan bizi izan zuten egoera hain izan zen berezia, ezen beren ahaideek ondorio emozionalak jasan zituzten bakartasunaren eta jazarpenaren eraginez, atentatu terroristen ondorio fisikoez gainera. Terrorismoari aurre egiten dioten segurtasuneko kidego guztietan arrisku batzuk berezkoak badira ere, azterlan honetan, ezaugarri berezi batzuk hauteman ditugu Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren ESIKetako kideen egoerari erreparatuta. Batetik, arestian esan bezala, ETAk funtsezko etsaitzat jotzen zituen segurtasun-indarrak; hala, segurtasun-indarretako kideak izan ziren ETAren lehen biktimak 1960ko hamarkadan (Pardines guardia zibila eta Manzanos polizia-inspektorea), baita, azkenetan ere, XXI. mendeko lehen hamarkadan (Puelles polizia-inspektorea, Sáenz de Tejada eta Salva guardia zibilak, eta Nérin jendarrea). Bestetik, Ordena Publiko Indarretako kide guztiak bizi ziren ETAren mehatxupearan, eta gainera lanbidean zein bizitza pribatuan eta familia-bizitzan. Horren ondorioz, kidego horietako kideen eta beren ahaideen gaineko bortxaren bidez, ETAk gizarte-bakartasuna ezarri zien guztiei. Halaber, beste kolektibo batzuetan gertatu zen bezala, ESIKetako kideek gizarte-estigmatizazioa eta bazterkeria morala jasan behar izan zituzten eguneroko bizimoduan. Atentatu ugari egiteaz gainera, terroristen dinamikak ezohiko egoerak sortu zituen, gizarte demokratikoetan itundutako elkarbizitzarekin guztiz bateraezinak direnak, hain zuzen ere, pertsona batzuen oinarrizko eskubideak eta funtsezko askatasun publikoak urratzen zituzten eta. Prozesu horiek larriki narriatu dute elkarbizitza demokratikoa, eta kalte fisikoa eta morala egin diete haien ondorioak jasan dituzten pertsonen. Bi arloak (banakoa eta kolektiboa) zenbait fase edukiko dituen prozesu baten bidez konpondu behar dira. Elementu batzuk bi arloetan agertzen dira. Gertatutakoaren kontaketa bidezkoa taxutu behar da, denen gainera jartzen duena biktimek jasandako bidegabeko oinazea, haiekiko enpatia lortu ahal izateko.

Gaitz da zehazten zenbat pertsonak jasan zuten indarkeria hori eta bizi izan behar izan zuten bidegabeko egoera hori. Nolanahi ere, esan dezakegu egoera horretan izan zirela 1960 - 2011 arteko aldi luzean Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzuan aritu ziren ESIKetako kide guztiak eta beren ahaideak. Egoera honetan bizi izan diren pertsonen guztirako zenbaterikoa, gutxi gorabeherakoa izanik ere, guztiz onartezina da ikuspegi demokratikotik eta gizartearen dibertsitateari zor zaion begirunearengatik. Txosten honetako datu kuantitatiboetan ezartzen ditugun irizpide batzuk lagungarriak izan daitezke behin betiko kopurua ematen ausartzeko. Irizpideok baliagarriak dira lehen hurbiltze baterako eta herritarrek fenomeno honi buruzko iritzia eratzeko elementuak edukitzeko.

Atal honetan proposamenak egin behar dira EAEko gizartean eztabaida dinamikoa sortadin gertatutakoaren oroimenari buruz eta biktimek merezi duten erreparazioari buruz. *Pedro Arrupe* Giza Eskubideen Institutuak egindako aurreko txostenetako metodo bera erabili da txosten hau egiteko, eta helburuetako batzuk ere berak dira. Haie-tan bezala, Nazio Batuek oroimenerako eskubidearen prozesua egiteko finkatutako es-

---

parrua hartu da erreferentzia modura ondorioak eta gomendioak prestatzeko; prozesu horrek honako hiru ardatz hauek dauzka: egiarako eskubidea, justiziarako eskubidea eta erreparaziorako eskubidea<sup>28</sup>. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arlotik, zenbait egilek eta erakunde ahaleginak egin dituzte giza eskubideak urratu zaizkien biktimen *erreparaziorako eskubidea* formulatzeko, oinarritzat hartuta estatuek beren gain hartzen dutela arloko nazioarteko itunak, estatuen ordenamendu juridikoetan txertatutakoak, betearazteko eta aplikatzeko betebeharra, batetik, eta biktimek esku-bide-urratzeen *konponketa jasotzeko eskubidean*, bestetik<sup>29</sup>.

Kapitulu honen helburua da dei bat egitea euskal iritzi publikoari hauek direla eta: egitate horiei buruz gogoeta egiteko beharra, memoria konpontzailea eraikitzeke beharra, eta biktimek pairatutako sufrimenduarekiko enpatia sortzeko beharra. Hiru arlo elkarri lotuta dituen formula horrekin bat, gure azken gogoetak neurriak proposatuko ditu arlo horietako bakoitzean.

## A) Memoria eta egia. Askatasun publikoak zaintzeko lehen babes-lerroa.

Memoria eraikitzeke ariketaren helburua gertatutako egitateen dimentsio kualitatiboa aipatzea ez ezik, gertakari horien ondorioak aztertzea ere bada. Horrenbestez, gertatu dena ezagutu eta horrek hura pairatu duten biktimei eragin dien zuzengabekeria aitortu beharra dago. Ezagutzaren eta aitortzaren ariketa bikoitz horrek publikoa izan behar du eta, erakundeek babestuta dagoen neurrian, aitortza ofizial bat eduki behar du<sup>30</sup>. Beraz, memoria konpontzaile batez ari gara, biktima errugabeentzat ez ezik —haien sufrimendu bidegabea agerian jarriko da—, gaixotasun onartezin baten baitan bizi izan den ehundura sozialarentzat ere, zeinak orain bizikidetzat demokratikoa berreskuratu nahi baitu. Ez da ariketa erraza, zeren eta, bide horretan, gizagabekeriaren eta gure lagun hurkoen saminarene amildegira hurbiltzeko beharrean aurkituko baikara agian<sup>31</sup>.

Horri dagokionez, gorago aipatutako testigantzetan aurkitu ditugun ebidentziekin ondorioztatzen dugu Euskadiko jazarpen indarkeriari sektore sozial batzuek eutsi ziotela, bazterketa moraleko prozesu baten bitartez. Bazterketa morala gertatzen da *“gizabanako edo talde jakin batzuk azkenean balio moralak, arauak eta justizia-gogoe-tak aplikatzen direneko mugetatik kanpokotzat hartzen direnean. Moralki baztertzen direnak ezdeusak, baztergarriak edo duintasunik gabeak balira bezala hautematen dira, eta, horrenbestez, haiei mina eragitea onargarri, egoki eta justutzat hartzen da”*<sup>32</sup>. Ho-

---

28 Joinet, Louis *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos)*. Amaiera-ko txostena, gutxiengo bereizkeriaren eta babesaren prebentziorako azpibatzen diren 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html>

29 Gure proposamenen lan honi jarraituko diogu: Gómez Isa, Felipe (zuz.) *El derecho a la memoria*, Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006 eta Múgica Munárriz, Guillermo “Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA”, in Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.) *Con las víctimas del terrorismo*, Donostia: Gakoa, 2009, 119-137 or.

30 Gómez Isa, Felipe: “El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de derechos humanos” in Gómez, F. (zuzendaria): *El derecho a la memoria*. Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 23-75 or.

31 Múgica Munárriz, Guillermo “Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA”, in Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.) *Con las víctimas del terrorismo*. Donostia: Gakoa, 2009, 119-137 or.

32 Opatow, Susan “Moral exclusion and injustice: an introduction”, in *Journal of Social Issues*, 46. libk., 1. zk., 1990, 1. or. *Moral exclusion occurs when individuals or groups are perceived as outside the boundary in which moral values, rules, and considerations of fairness apply. Those who are morally excluded are perceived as nonentities, expendable, or undeserving. Consequently, harming or exploiting them appears to be appropriate, acceptable, or just.*

rrenbestez, kolektibo jakin batek herritarren zati bat uzten du beraiek justiziaren beren esparrutzat ulertzen duten hartatik kanpo eta, beraz, herritarren zati hori indarkeriazko erasoen menpe geratzen da. Baztertutako pertsonentzat *“bazterketak berekin ekarriko luke haiekiko joera positiborik ez egotea eta esplotazio, gorroto eta indarkeriaren helburu gisa hautatuak izateko aukera egotea; halakoak, gainera, onargarri gisa hauteman daitezke”*<sup>33</sup>.

Bazterketa moraleko prozesuak aztertu dituzten ikertzaileei jarraituz, beren justiziaren idealetik beste pertsona batzuk baztertzen dituztenak bat etorri ohi dira ondoko hauetan:

- *“Baztertuak psikologikoki urrun daudela eta deslotuta daudela hautematea;*
- *Baztertuekiko betebeharrak edo erantzukizun moralik ez edukitzea;*
- *Hautematen da baztertuek ez dituztela justizia eta komunitatearen baliabideak merezi;*
- *Baztertuentzat onartzen dira justizia-kontsiderazioen barruan daudentzat onartuko ez liratekeen egoerak.”*<sup>34</sup>

ESIKetako kideen eta beren ahaideen kasuan, bazterketa morala ETAren jarduera terroristaren hasieratik beretik igartzen da ETAK bere atentatuak justifikatzeko prestatzen zituen testu ideologikoetan. Gainera, elkarrizketetan adierazi diguten bezala, ETAren erasoetatik babesteko aplikatzen zituzten neurriek (anonimotasunean mantentzea, kuarteletik kanpo gizarte-bizitzarik ez egitea, lanbidetik kanpo adiskiderik ez edukitzea...) aztertu dugun kolektiboaren gizarte-bakartasuna areagotu zuten. Hori dela-eta, ezagutzen ez diren pertsona batzuek informazioa helarazten zioten ETARI atentatuak prestatzeko, eta Justiziak oraindik ebazteko ditu haien zigor-erantzukizunak. Dena den, pertsona haien lana ezinbestekoa izan zen ETAK bere presioaren eta jazarpenaren bidez ESIKetako kideen eta beren ahaideen bazterketa morala eta gizarte-bazterketa areagotzeko.

Talde terrorista eta beraren ingurukoak diskurtsoa eratzen hasi ziren, berentzat zein kanpoentzat zena, eta adierazten zuena Estatuko Segurtasun Indarrek erakunde-indarkeria erabiltzen zutela eta indarkeria horri aurre egiten ziotela herriko indarkeria eraldatzailearekin. Frankismoaren azken urteetan eta 1978ko sistema demokratikoaren lehen urteetan mezu horrek nolabaiteko arrakasta lortu zuen gizartearen sektore batzuetan. Horregatik esan dute elkarrizketatu batzuek inoiz entzun dutela “egingo zuen zerbait” edo “ibiliko zen zerbaitetan” moduko esapideak. Gaur egun gauza gara aztertzeke nola abiarazi zuen ETAK gizarte-bazterketako estrategia hori, hau da, nola sortu zuen talde terroristak bere burua justifikatzeko diskurtsoa, biktimgileek eta beren ingurukoek baliatzen zutena beren buruari sinetsarazteko gertatzen ari zen guztia nolabait biktimgileek “merezia” zutela.

Ildo horretatik, biktimgileek beren oroimenaren eraikuntzan parte hartzeak (adibidez, lekukotzak emanez hezkuntza-arloan) bi onura dauzka: batetik, iraganean eraturako estereotipoak ezabatzea; bestetik, biktimgileak jasan duten estigmatizaziotik askatzea. Kontatzaile-nortasuna sortzeak ahalmena eman diezaieke bazterketa-prozesu hauek jasan dituztenei, Bilbaok eta Etxebarriak azaltzen duten bezala: *“lekukotzak aukera ematen dio biktimgileari galdutako askatasuna berreskuratzeko (berak ez du biktimgile izatea hautatu, inork biktimgile izatu du), bere historiaren egile bihurtzen baita. Esan dezakegu horrela bik-*

---

33 Martín-Peña, Javier; Opatow, Susan eta Rodríguez-Carballeira, Álvaro. “Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral”, in *Revista de Psicología Social*, 26:2, 2011, 177-190 or.

34 Martín-Peña, Javier; Opatow, Susan eta Rodríguez-Carballeira, Álvaro, op. cit., 188. or.

---

*timen kontatzaile-nortasuna sortzen dela. Izan ere, biktima askoren sufrimenduak ez du mendekua eskatzen, baizik eta kontatzea*<sup>35</sup>.

Bazterketa moralaren prozesuari atentzia ematerakoan, gonbita egin nahi diogu euskal gizarteari gogoeta egin dezan biktima errugabeek pairatutako sufrimenduarekiko memoria konpontzaile eta enpatiko bat eraikitzeke beharrari buruz, bai eta ETA banda terroristak eta haren ingurune sozialak kaltetutako aniztasunaren balioa kontuan hartzeko ere. Aurreko beste txosten batzuetan gogoratzen genuenez, memoriaren ariketa honako helburu hauetara zuzendu behar da:

- Bizi izandako egoeretan zenbait elementu patologikok (tolerantziarik eza, aniztasunaren bazterketa, norberaren iritziak indarrez inposatzea, gizabanakoa ukatzea...) izan duten eginkizuna ulertzea.
- Indarkeriaren bidegabekeria, eta beraz, biktimen errugabetasuna aintzatestea erraztea.
- Giza eskubide urraketa guztiak onartezinak direla onartzea, bai eta azaldu diren gertaerak ere.
- Memoriak orainaldiarekin lotuta egon behar du, eta are gehiago, orainaldia azaltzen lagundu behar du. Iragan kaltegarriari begiratzen diogu eta aztertu egiten dugu, oraingo balio irmoetatik abiatuta. Saihestu behar da Martínez de Bringasek<sup>36</sup> *memoriaren fetitxismoa* esaten diona; orainaldia menperatzen duten iraganeko dinamikak, hari ulerbide eta zentzu bat emateko ezgai bihurtzen dutenak. Ariketa politiko bat, zeina lotuta baitago Hannah Arendtek *gaiizkiaren hutsaltzea* deitu zuenarekin<sup>37</sup>.

## B) Justizia eta erreparazioa. Berebiziko papera terrorismoa garaitzeko.

Gizarte gisa, geure buruari ezarri diogu memoria egiteko betebeharra, zeren eta ulertzen baitugu justizia egiteko betebeharra badaukagula. Horrenbestez, aurkitzen dugu memoria eraldatzaile bat eduki behar dugula, zertarako eta birgogoratze-ariketa huts bat ez bihurtzeko. Memoria eraldatzaile bat da memoria konpontzailearen klabea planteatzen dena, hain zuzen biktimagileek biktimei kendu nahi izan dioten horri begira, bai eta gizarteari berari begira ere, bizikidetza demokratikoaren klabea.

Memoriaren erabilerak honako honetarako balioko du: erreparazioaren oinarriak ezartzeko eta biktimei eskubide duten hori emateko<sup>38</sup>. Aurreko azterlan batzuetan gogoeta egin da oroimenaren eraikuntza etikoaz. Ikuspegi hori izango litzateke biktimei eragindako mina aitortzea, batetik, eta horrez gainera jarrera morala hartzea eta kalte hori bidegabetzat jotzea eta, horrenbestez, onartezina dela adieraztea. Biktimak modu arbitrarioan jazarri ziren, borraroez baizik ezagutzen ez zituzten akusazio batzuetatik defendatzeko aukerarik eman gabe. Horrek inspirazio-iturri ditugun justizia-idealak nabarmen kaltetzea dakar, bai eta bizikidetza demokratikoaren printzipio etikoak ere, haiek edukirik gabe uzteraino.

---

35 Bilbao, Galo eta Etxebarria, Xabier. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz, 2005, 48. or.

36 Martínez de Bringas, A. "De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestrados de la memoria", in Gómez, F. (zuz.): *El derecho a la memoria*, op. cit., 270-275 or.

37 Arendt, Hannah *Eichmann en Jerusalén*, Bartzelona: DeBols'lillo, 2009.

38 Etxebarria, Xabier. *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*. Bilbo: Bakeaz, 2007, 83-93 or.

Gizarte gisa, guri dagokigu aitortza-moduak artikulatzea eta erreparazio eraginkorre-rako neurriak ezartzea. Horri dagokionez, gomendatzen dugu hainbeste erabili diren formula batzuetara ez jotzea: “inor ere ez da egiazki erruduna” edo “gizarte osoa da erruduna”. Izan ere, praktikan haien eragina da gertatutakoaren erantzukizuna lau-soturik gelditzen dela. Azken batez, guztien ekintzak parekatuz gero, dela haien eran-tzukizun-maila gorenean, dela maila txikienean, inor ez da ateratzen egiazki gertatu-takoaren errudun<sup>39</sup>.

Gizarte bateko kideak garen aldetik, gauza izan behar genuke onartzeko iraganeko te-rriorismoak itzelezko erronka egin ziela elkarbizitza demokratikoari eta aniztasunaren eta askatasunaren funtsezko balioei. Horrenbestez, terrorismoaren aurka jardun duten segurtasun indarrak aitzindariak izan dira oinarrizko eskubideen erregimena eta ordez-katzen gaituzten erakundeak babesteko borrokan. Haien lana, haien sakrifizioa eta ETA-ren terrorismoa garaitzeko ahaleginetan izan duten zeregina nabarmendu behar ditugu. Atxikitako armak, desegindako komandoak, konfiskatutako dirua, eragotzitako atenta-tuak... horiek guztiek argi erakusten dute segurtasun indarrei esker ez direla hilketak gertatu, ez direla dramak gauzatu, ez gaituztela galera gehiagok atsekabetu, eta ETAren terrorismoaren biktimen zerrenda ez dela izan luzeagoa. Lorpen horrek aintzatespena merezi du, eta ESIKetako kideek jasandako oinazea bidegabetzat jo behar da.

Aurreko txosten batzuetan adierazi izan dugun bezala, memoria konpontzaile batek ondoko hauek hartu behar ditu kontuan:

- Biktimen sufrimenduarekiko enpatia, hau da, laguntza ematea eta elkartasuna adieraztea. Jasandako sufrimenduaren inguruan kontakizuna eraiki duen gizarte batek aitortu behar du bidegabekeria hori, eta eskubideak urratuta eduki zituz-ten pertsona horiekin sentibera izan behar du. Komeni da azpimarratzea, lehen esan bezala, horrek ez duela esan nahi biktimen ideologiarekin ados egotea<sup>40</sup>. De-sadostasun politikoa zilegi da gizarte guztietan eta beharrezkoa da, hain zuzen ere, justiziaren prozesua eta eztabaida ideologikoa bereiztea. Hortxe dago, baita ere, eskuzabaltasun demokratiko eta desberdinen arteko bizikidetzaren ariketa garrantzitsu bat.
- Nabarmendu dugu gure azterketaren xede izan den kolektiboak gizarte-estig-matizazioko prozesua jasan zuela. Beharrezkoa da pertsona horiei errehabilitazio soziala eta morala eskaintzea. Kendutako edo zalantzan jarritako balioa eta duin-tasuna berriro itzultzea.
- Azterlan honetako pertsonak terrorismoaren eraso jasan zuten beren boronda-tez hautatutako zerbitzu publikoko lanbide batean aritzeagatik. Beren erresilien-tzia eta prezio pertsonal handiaren trukean lanean tinko jarraitzeko gogoia herri-tarren aurrean goraiatu behar dira.
- Biktimen galera konponezina da. Ezinezkoa da sortutako kaltea erabat ordaintzea. Inork ezin dizkie biktimei itzuli kendutako denbora, galdutako aukerak, kenduta-ko integritate fisiko eta morala eta, are gutxiago, senideren bat hil zietenean. Kon-ponenezintasun hori, bai eta eragileen eta biktimen artean dagoen asimetria morala ere, aitortzea memoria-ariketa ororen betekizun morala da. Memoriak iraganaren bizipenezko eraldatze bat ere bilatzen du, eragindako bidegabekeriaren aitor-penaren bidez, bai eta hainbeste sufrimendu sorrarazi zuen iragan horretaz bes-

---

39 Etxebarria, Xabier. *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*, op. cit., 90. or.

40 Múgica, Guillermo. op. cit., 131. or.

---

telako etorkizun bat balioan jartzea ere. Horrek beste fase bati ekitera garamatza: ulertze eta adiskidetzea.

- Orain arte esandako guztiagatik, justiziak kalte-ordaina ekarri behar du. Europar Batasuneko legeriak ematen duen definizioaren arabera, justizia leheneratzailea hau da: *“biktinek eta arau-hausleek, horretarako baimena askatasunez ematen badute, zigor arloko arau-haustearen ondoriozko arazoei irtenbidea ematea ahalbidetzen duen prozesua, hirugarren inpartzial baten laguntza”*<sup>41</sup>.

### C) Gizartearen adiskidetzea eta kohesioa. Gertatutakoa berriz ez gertatzeko konpromisoa.

Gizarte-adiskidetzea, komunitate-politika den aldetik, memoria, justizia eta leheneratzeko prozesu guztien azken helburua da. Adiskidetzetik gabe, bakea su-eten bat izango litzateke, luzeagoa edo laburragoa, eta gizarte-haustura gailenduko litzateke. Fase honetan, beharbada, biktimen barkamena egon daiteke, baina baldintza hori ez dugu hemen sartu, oso ekintza pertsonala eta borondatezkoa baita, eta ezin da inoiz halakorik eskatu. Barkamenaren ordeztu, ulertzeko baldintza sartu dugu. Hannah Arendt-ek ulertzeari eta adiskidetzeari buruz hitz egin zuen:

*Adiskidetzea ulertzearekin batera doa, ezinbestez, eta horrek tout comprendre c'est tout pardonner ohiko gaizki-ulertzea ekarri du. Hala ere, barkamenak ia-ia ez dauka zerikusirik ulertzearekin, ez baita horren baldintza, ezta ondorioa ere. Barkamena (zalantzarik gabe, gizakiaren gaitasun handienetako bat, eta, beharbada, ekintzarik ausartena, itxuraz ezinezkoa dena -egindakoa desegitea- egiten saiatzen delako, eta dena amaituta zegoela zirudienean, hasiera berria ezartzea lortzen duelako) ekintza bakarra da eta ekintza bakar batean amaitzen da. Ulertzeak, ordea, ez dauka amaierarik, eta beraz, ez du egiazko emaitzarik sorrarazten; gizakien bizimodu espezifikoa da, gizabanakoak arrotz bezala jaiotako munduarekin adiskidetu beharra daukalako, eta mundu horretan arrotz bezala jarraituko du beti, bere bakartasun espezifikoa dela-eta... Totalitarismoa ulertzeak ez dakar barkamena berekin, aitzitik, halakorik gerta daitekeen munduarekin adiskidetu ahal garela esan nahi du.*<sup>42</sup>

Egile alemaniarren definizioaren arabera, ulertzeak adiskidetzeko prozesu politikoaren giza alderdiak eta gizartearenak aintzatestera bultzatzen gaitu. Ondorioz, adiskidetzea honela definitu daiteke: topaketa publikoaren prozesua, non tarteko pertsonak komunitate politiko gisa aitortzen duten jasandako oinarritzko eskubideen urraketa eta bidegabekeriak onartezinak direla. Prozesu hori harremanen esparru berria eraikitzeke oinarria da, eta esparru berri horretan giza harremanen etikarekiko eta arau demokratikoekiko begirunea bide bakarrak dira etorkizunean sor litezkeen auziak konpontzeko, betiere gertaera horiek berriro ez gertatzeko helburuari begira<sup>43</sup>.

Hizpide dugun kasuan, biktimagileek berek irmotasunez adierazi behar dute adiskidetzeko konpromisoa hartu dutela, eman dugun definizioarekin bat etorrita. Egindako bidegabekeriak eta kaltea berariaz eta zintzotasunarekin onartzea eta iraganeko

---

<sup>41</sup> 2.1 artikulua. Europar Batasunaren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25eko, delituen biktimen eskubideen, laguntzaren eta babesaren inguruko gutxieneko arauak ezartzen dituen. Zuzentarau horrek Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen du.

<sup>42</sup> Arendt, Hannah “Comprensión y política (Las dificultades de la comprensión)”, in *Daimon, Revista de filosofía*, 26. zk., 2002, 17-18 or.

<sup>43</sup> Definizio hori lan honetan dago oinarrituta: Nordquist, Kjell Åke “¿La verdad de quién? ¿Cuál reconciliación? Sobre la reconciliación como concepto político”, in *Estudios de filosofía*, 2008, 491-497 or.

erroreak berriz ez egiteko konpromisoa hartzea ezinbesteko urratsak dira adiskidetzeko prozesu bati ekiteko borondatea berresteko. Prozesua, berez, luzea izango da seguruenik, eta eragozpenez betea, oztopo ugari gainditu beharko baitira: hobenak, susmoak, gaitzespenak, aurreiritziak, gaizki-ulertuak... Inoiz abian jarriko bada *bigarren aukeraren etika*, ezinbestekoa da aurretik ez erortzea “errugabetzeko erretorika” esaten zaion horretan, hau da, biktimagileak ez saiatzea beren ardura pertsonalak gizartearen inguruabarrei, beharrian historikoari, sufrimendu biografikoari edo beste zerbaitek egotzen; izan ere, Galo Bilbaok adierazten duen bezala, harrigarria bada ere, baliteke batzuetan biktimei berei egotzen saiatzea. Beraz, ardura onartzea adiskidetzeko prozesuaren ezinbesteko osagaia da<sup>44</sup>.

Sentimendu negatibo asko pilatuta daude, eta, horregatik, gizartean hausnarketa-prozesuaren buruzagi diren erakunde publikoek eta entitate pribatuek lan eskerga egin beharko dute topaguneak eraikitzeko. Biktimek eta biktimagileek komunikazio-espazioak izan beharko lituzkete adiskidetzeko gizarte baterako konpromisoa adierazteko, bizi izandako trauma hutsaltzeko edo ahazteko, jasandako kolpeak biktimagileei itzultzeko tentazioak ezabatuta.

## 5.2. Prozesu hau gauzatzeko Eusko Jaurlaritzari aurkeztutako iradokizunak.

- Balioestea Estatuko Segurtasun Indarrek eta Kidegoek ETAren aurkako borrokan, ETA garaitzeko eta talde terroristaren biktimen kopurua gehitu zuten atentatuak saihesteko egin duten lana. ESIKak askatasun publikoen zerbitzuan ari diren erakundeak direlako ikuspegia sendotzea.
- Herritarrei jakinaraztea ETAren biktima izan diren ESIKetako kideek eta haien senideek jasan duten bidegabeko sufrimendua, beren ikuspegia kontuan hartzeko eta gertatutakoaren kontaketa jasanarazitako kalteaz oharturik eraiki dadin. *“Biktimen ikuspegia hartzea behar-beharrezkoa da egiazko diskurtso etikoa eratzeko, batez ere indarkeriaren gaiari heldu nahi bazaio. Are gehiago, seguruenik, biktimen ikuspegia hartzeak erabateko iraultza etikoa ekarriko luke”<sup>45</sup>.*
- ESIKetako biktimen eta beren ahaideen gizarte-aintzatespena bultzatzea lankidetzan arituz terrorismoaren biktimaren aitortza juridikoa lortzeko edo horrek berekin dakartzan prestazio ekonomikoak eskuratzeko eskatzen diren administrazio-baldintzak betetzeko aholkuak ematen dituzten biktima elkarteekin. Elkarrizketatuek gehien aipatu dituzten kezketako bat izan da; izan ere, administrazioaren aurrean egin beharreko kudeaketa eta administrazioarekiko auzi luze eta konplexuek berriz ere biktimizazioa jasateko arriskua sortzen dute, eta horrek eskatzaileen babesgabetasun-sentsazioa areagotzen du.
- Terrorismo-delituengatik espetxeratutako pertsonen egiten zaizkien omenaldiek birmiktimizazio-eragin handia dute, elkarrizketatuek adierazi duten bezala. Hitz egin dugun biktimen iritziz, zenbat eta gizarte-aintzatespen handiagoa jaso biktimagileek, hainbat eta handiagoak dira haiek hildakoen edo atentatuetan zauritutakoen ahanztura eta abandonua. Justizia eta osasun demokratikoa aintzat

---

44 Bilbao, Galo; *Víctimas del terrorismo y reconciliación en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz, 2007, 27. or.

45 Bilbao, Galo eta Etxeberría, Xabier *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo: Bakeaz, 2005, 34. or.

---

edukita, erakunde publikoek horren guztiaren jakitun egon behar dute, eta arazoa konpondu behar dute; horretarako, terrorismoan aritu direnen goraipamena saihestu ez ezik, terrorismoaren biktimen duintasunari zor zaion begirunea sustatu eta zabaldu behar dute herritarren artean.

- Bide publikoetatik kentzea ETaren terrorismoarengatik kondenatutako pertsonak goraipatzen dituzten irudi grafiko, kartel eta ikus guztiak, aurreko puntuan aipatu diren arrazoi berengatik.
- Terrorismoaren biktimek hezkuntza-arloan (unibertsitate-aurrean zein unibertsitatean) lekukotzak emateko programekin aurrera egitea eta programa horiek bultzatzea. Programa horien bidez terrorismoa jasan duten pertsonak beren bizipenen lekukotza morala ematen dute, asmo politiko guztietatik urrunduta. Hain zuzen ere, azterlanak erakusten duen bezala, EAEn lanean aritu ziren ESIKetako kideek eta beren ahaideek presentzia berezia merezi dute, bestela ikusezin gelditu bailiteke edo beren sufrimendua “naturalizat” jo bailiteke, haien egitekoa ETaren aurka lehen lerroan borrokatzea zen eta. Beraz, biktimek hezkuntza-arloko programa horietan parte hartzea baliagarria izan liteke terrorismoa garaitzeko egin duten lana nabarmentzeko, bizi izan zuten bidegabekeriaren berri emateko, eta indarkeriari zilegitasuna kentzeko.
- Botere publikoek dagoeneko abian duten arreta psikiatriko-psikologikoa ematen jarraitzea ETaren jazarpenaren eta atentatuaren ondorioz osasun-arazoak dauzkaten ESIKetako kideei.
- Udalerrri batzuetan egiten bezala, bide publikoetan erraz ikusteko moduko plaka finkoak (edo bestelako adierazgarri iraunkorrak) jartzea atentatu terroristetan hildako pertsonen berri emateko, ESIKetako kideen kasuan ETaren aurka borrokatzeagatik merezi duten aintzatespena aipatuta.
- ETaren historian zehar EAEn aritu diren ESIKetako kideek jasandako atentatuak eta jazarpena ez erlatibizatzea, ezinbestekoak izan balira bezala. Biktimagileek beren ekintzen erantzukizuna dutela ulertzea.
- ETaren terrorismoaren aurkako borrokan aritu ziren ESIKetako kideen aintzatespen publikoa bultzatzea, gizartearen eremu askotan estigmatizazioa eta bazterketa morala jasan dituzten zerbitzari publikoak diren aldetik. Polizia-kidegoak gizarte bidezkoagoaren eraikitzailetzat hartu behar dira. Bortxa terrorista jasan zuten pertsonak eta kolektiboak aintzatespena jaso behar dute, eta ESIKen garrantzia nabarmendu behar da biktimen bizipenen harira, haien helburuetako bi terrorismoaren aurka borrokatzea eta askatasun publikoak zaintzea baitira.
- Sustatzea ESIKetako kideek eta beren ahaideek ETaren terrorismoaren aurkako borroka duten ikuspegia islatzen duten fikzio-lanak eta artelanak, herritarrei haiekiko enpatia edukitze laguntzeko.
- Erakunde publikoek jarraitzea txosten honetan salatzen diren jarduerak narriatutako elkarbizitza zibikoa konpontzeko lan egiten, eta jarduera horien gaitzespen berariazkoa sustatzen.
- Txosten honen berri zabaltzea, nonahi entzun daitezten bildutako lekukotzen aho-tsa eta azaltzen diren giza eskubideen urratzeen salaketa. *Gogora - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak* asko lagundu dezake topaketak, bizipen-trukeak eta eztabaidak suspertzen, EAeko eremu publikoak azterlan honen xede den kolektiboak bizi izandakoaren berri eduki dezan.



- Azterlan honetan landutako helburu berak dauzkaten elkarten arteko topaketak sustatzea, aurrean aipatutako oroimenaren, justiziaren eta adiskidetzearen faseak edukiz bete behar dituen iritzi anitz eta sortzaileari ahotsa emateko.
- Iritzi publikoaren esku jartzea egindakoaren autokritika egin duten ETAko kideen edo haren inguruko pertsonen lekukotzak. Biktimei egindako kaltea eta gizarte osoaren elkarbizitza demokratikoari onartzeko prozesuan komenigarria da hausnarketa-espazioak egotea giza eskubideak urratu dituzten pertsonen berriz gizarteratzeko bideari ekin ahal izan diezaioten modu publikoan.
- Laguntza osoa ematea inolako konpromisorik eta betebeharririk eduki ez eta damua eta terrorismoaren gaitzespena agerian jarri dituzten biktimagileekin errestaurazio-topaketak egiteko prest dauden biktimei. Biktimen lekukotza moralak eta, damututa, egindako kaltearen jakitun diren terroristenak indarkeriari zilegitasuna kentzeko ekitaldi eraginkorrenetakoak dira gizartearentzat.

---

## 6. Bibliografia.

Alonso, Rogelio; Domínguez, Florencio y García Rey, Marcos; *Vidas Rotas. Historia de* Alonso, Rogelio; Domínguez, Florencio eta García Rey, Marcos; *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madril: Espasa, 2010.

Arendt, Hannah. “Comprensión y política (Las dificultades de la comprensión)”, in *Daimon, Revista de filosofía*, 26. zk., 2002, 17-30 or.

Arendt, Hannah; *Eichmann en Jerusalem*, Bartzelona: DeBolsillo, 2009.

Azurmendi, José Félix; *ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato*. Donostia: tarttalo, 2014.

Bilbao, Galo eta Etxebarria, Xabier; *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz, 2005.

Bilbao, Galo; *Víctimas del terrorismo y reconciliación en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz, 2007.

Domínguez, Florencio; *Las claves de la derrota de ETA. Informe del Centro Memorial de las víctimas del Terrorismo, nº 3*. Gasteiz: Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroa Fundazioa, 2017.

Elorza, Antonio (koord.) *La historia de ETA*. Madril: ediciones Temas de hoy, 2000.

Etxebarria, Xabier; *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*. Bilbo: Bakeaz, 2007.

Fernández Soldevilla, Gaizka eta López Romo, Raúl; *Sangre, votos, manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical 1958-2011*. Madril: Tecnos, 2012.

Fernández Soldevilla, Gaizka; “A sangre fría. El asesinato de José Antonio Pardines (y sus antecedentes)”, in Fernández Soldevilla, Gaizka eta Domínguez Iribarren, Florencio (koord.) *Pardines. Cuando ETA empezó a matar*. Madril: Tecnos, 2018, 77-127 or.

Bakearen Aldeko Koordinakundea; “Violencia de persecución”, in *Palabras de Paz*, 40. zk., zazp. 2000.

Garmendia, José María; “ETA: nacimiento, desarrollo y crisis (1959-1978)”, in Elorza, Antonio (koord.) *La historia de ETA*. Madril: ediciones Temas de hoy, 2000, 77-162 or.

Gómez, Felipe; “El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos”, in Gómez, F. (zuz) *El derecho a la memoria*, Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 23-75 or.

Jauregui, Gurutz; “ETA: orígenes y evolución ideológica y política”, in Elorza, Antonio (koord.) *La historia de ETA*. Madril: ediciones Temas de hoy, 2000, 171-267 or.

Joinet, Louis; *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos)*. Amaierako txostena, gutxiengo bereizkeriaren eta babesaren prebentziorako azpibatzen 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html>

López Romo, Raul; *Foronda txostena. Terrorismoaren testuinguru historikoak Euskal Herrian eta biktimekiko arreta soziala. 1968-2010*. Gasteiz: Valentín de Foronda institutua, 2014.

López Romo, Raúl; “Historia y memoria: las muertes de Juan Antonio Eseverri” *Grand Place*, 1 zk., 2014, 101-104 or.

Mateos San José, Juan José; *Los verdugos voluntarios*. 8. edizioa. Badajoz: Editamás Editorial, 2019.

Martín-Peña, Javier; Opotow, Susan eta Rodríguez-Carballeira, Álvaro. “Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral”, in *Revista de Psicología Social*, 26:2, 2011.

Martínez de Bringas, Asier; “De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestros de la memoria”, in Gómez, F. (zuz.): *El derecho a la memoria*, Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 267-294 or.

Música Munárriz, Guillermo “Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA”, in Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.) *Con las víctimas del terrorismo*, Donostia: Gakoa, 2009, 119-137 or.

Nordquist, Kjell Åke; “¿La verdad de quién? ¿Cuál reconciliación? Sobre la reconciliación como concepto político”, in *Estudios de filosofía*, 2008, 491-497 or.

Opotow, Susan; “Moral exclusion and injustice: an introduction”, in *Journal of Social Issues*, 46. libk., 1. zk., 1990, 1-20 or.

Pérez, Kepa; *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbo: ADDH eta Eusko Jaurlaritza, 2005

Sánchez, Manuel eta Simón, Manuela; *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*. Bartzelona: Ediciones Península, 2021.

